

goiena

ZU HEMEN ZAUDE



KILOMETROETARAKO LEKAIXOA OÑATIN

Domekan Euskararen eta Gipuzkoako ikastolen aldeko urteroko festara autobusez edo bizikletaz joatea gomendatu dute

**GEHIGARRIA
ERDIKO
ORRIETAN**

Oñatiko Txantxiku Ikastolako boluntarioak azken lanetan eta domekako Kilometroak egunerako dei egiten. BERNAT ALBERDI

Debagoienean ere Kataluniari babesa kalean

Elkarretaratzeak egin dituzte herririk herri eta osoko bilkura bereziak udaletan, "Kataluniaren eta demokraziaren" alde / 3

**UDA eta Loramendi
elkarteak lanean,
euskara lehen mailan
egon dadin
Aretxabaletan** / 17

**Goikobaluko
erromeriari bultzada
eman, eta Gazteluko
Jaia ospatuko dute
Arrasaten zapatuan** / 12

SINADURAK

MARIA AGIRRE / 6	ELIAS ZUMALDE / 37
AITOR OROBENGOA / 10	IOSU ELORZA / 39
MAIDER ALDAI / 15	IDOIA ETXEBERRIA / 56




OÑATIKO SANMIGELAK / 21

**Pilotalekua estali eta
konpondu edo ez
erabakiko dute
Bergarako Bolua
auzoko bizilagunek** / 39



**Eskualde osorako
bulegoa ireki du SOS
Arrazakeria gobernuz
kanpoko erakundeak
Arrasaten** / 5



Kulturismoa,
sakrifizio handiko
kirola

ETako kide ohi
'Borda'-ri
elkarriketa

GELMAKO AZKEN FASEA!

ARRASATE

Irailaren 1etik
aurrera planoak
eta prezioak
gure webean

BISITATU ETXEBIZITZA PILOTUA

BIBAI 943 25 38 21 www.inmobibai.com

KILOMETROAK 2017



irailak 24



Txantxiku
Ikastola



Babesleak



FAGOR **ULMA** **AMPO** **ELKARGI** SGR

Erakundeak

 OÑATI dibilen herria
 Gipuzkoako Foru Aldundia
 GIPUZKOA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA
 DEIA

Laguntzaileak

Komunikabideak



EL DIARIOVASCO EL CORREO Gipuzkoa Deia

berlin **ARGIA** **GARA**  

Erreferendumari babesa Debagoienetik

Kataluniako bozketaren bueltan asteen izandako gertakarietan Espainiako Estatuak izandako jarrera salatu eta kataluniarrei elkartasuna adierazi diete ibarreko herrietan

Maite Txintxurreta DEBAGOIENA

Katalunian urriaren 1erako deitutako independentziaren gaineko erreferendumaren bueltan azken egunotan izandako gertakariak Debagoiengan ere izan dute isla.

Hala, asteen herri gehienetan elkarretaratzeak egin dituzte Kataluniako herriari eta erreferendumari babesa adierazteko, eguaztenean erreferenduma antolatzen ariteza leporatuta izandako hamabost pertsonen atxiloteten harira. Elkarretaratze horiek EH Bilduk deitu zituen, eta herri bakoitzeko EAJko zinegotzi eta alderdikideek ere hartu zuten parte. Arrasaten Ahal Duguko zinegotziak ere izan ziren elkarretaratzean, baita Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan Irabaziko udal ordezkariak ere.

Elkarretaratze jendetsuak izan dira, eta horietan hainbat herritarrek esteladak erakutsi dituzte Kataluniari eta prozesuari babesa adierazteko.

Aramaioren kasuan, gaur arratsaldean egingo dute elkarreta-

ratzea, 19:00etan, Herriko Plazan, *Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat* lelopean.

Mozioak eta ezohiko bilkurak

Oñatin eta Antzuolan gaur, egubakoitza, ezohiko osoko bilkura egingo dute Kataluniarekin lotutako mozioak eztabaidatzeko, arratsaldeko zazpitan. Oñatin EH Bilduk eta EAJ alderdiek adostutako mozioa izango da aurkeztuko dutena.

Aretxabaletan, eguaztenean egin zuten ohiko osoko bilkura, eta bertan EH Bilduk aurkeztutako mozioa onartu zuten.

Eskoriatzaren, bozeramaileen mahaiak bat egin du Eusko Legebiltzarrean EAJk eta EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek adostutako adierazpen instituzionalarekin. Bertan, Estatuak Katalunian burututako operazio polizialak salatzen dituzte, eta "oinarrizko askatasunen aurka-



Eguaztenean Eskoriatzan egin zuten elkarretaratzea. IMANOL BELOKI

ko errepresio estrategia" baztertea eskatu. Adierazpen horrek "printzipio demokratikoekiko konpromisoa" berresten duela diote, Kataluniari "elkartasuna" adieraztearekin batera.

Bergaran, aldiz, astelehenean izango dute ohiko osoko bilkura, eta Udal Gobernuak Eskoriatzan onartutako Legebiltzarreko adierazpen instituzional bera aurkeztuko du. Era berean, EH Bilduk eguazten goizean bilkuran aurkezteko mozio bat prestatu zuen, baina egun hartako gertaeren ostean "zaharkituta" geratu zaiela azaldu du Gorka Artolak. Hortaz, "gutxienez", adierazpen instituzionalaren alde botatuko dute, eta, hain zuzen, astelehenera bitartean izan daitezkeen gertaeren arabera baloratuko dute beste mozio bat aurkezteko aukera.

Elgetan ere datorren asteen izango dute ohiko osoko bilkura, martitzenean. Bertan, EH Bilduk Kataluniaren inguruko mozio bat aurkezteko asmoa duela aurreratu du.



TALLERES CHAPIME
San Andres 5, 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 45 22

CITROEN C3 BERRIA ZU BEZAIN BEREZIA

- ConnectedCAM Citroën™
- 36 pertsonalizazio aukera
- Citroën Advanced Comfort®



CITROËN-ek nahiago du TOTAL Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 isurpena (g/km): Citroën C3: 3,2-4,7 / 83-109

citroen.es

Fagor CNAko zuzendaritzari azalpenak eskatu dizkiote

Langileek taldearen egoera ekonomikoaz galdetu dute, eta negoziazio prozesuko "epea etetea" eskatu dute

Eneko Azkarate DEBAGOIENA

Jarduera eten eta langile guztiak kanporatu osteko bigarren negoziatio batzarrean, Fagor CNAko langileek berretsi egin dute jarrera: Enplegua Erregulatze Espediente aurkezteko argudioak ez dituzte onartzen eta "ekoizpenaren aldeko apustuari" eusten diote, "jarduera industrial Garagartzan mantentzea" eskatuz. Langileek adierazi dutenez, zuzendaritzak ere eutsi egin die berenei: langile guztiak kaleratzeko asmoekin aurrera jarraitzen dute.

Langileek eskatu dute "negoziaketa epea etetea". Izan ere, diote, zuzendaritzak "ez du argitu" zein izango den aurkeztuko duten proiektua, negoziaketa prozesuak zer emango duen jakin arte itxoin nahi duelako.

Egoera ekonomikoa

Langileek aditzera eman dute, bestalde, batzarrean eskatu dutela argitzeko zein den CNA Taldeko enpresen egoera ekonomikoa, "taldearen benetako egoera ekonomikoa" zein den jakin nahi dutelako.

Era berean, aditzera eman dute batzarrean eskatu dutela Fagor Kooperatiba Elkarteak eta Fagor CNAk sinatutako kontratuaren kopia Fagor marka erabiltzeko.

Datorren astelehenean, irailaren 25ean, negoziatzen jarraitzeko beste batzar bat egingo dute zuzendaritzak eta langileen ordezkariak. Bien bitartean, langileek adierazi dute mobilizazioekin jarraituko dutela eta iragarri dute gaur, egubakoitza, elkarretaratzea egingo dutela Arrasateko Herriko Plazan, 18:30ean.

Bestalde, Edesa Industrialeko Garagartzako lantegiaren aurrealdean egurrezko hainbat gurutze txiki agertu dira aste honetan, *Cata nos mata* (Catak hil egiten gaitu) idatzita dararmatenak.



AMAIA TXINTXURRETA

Uztaritzeko erailketa salatu dute

Joan den asteen, haurdun zegoen emakume bat erail zuten Uztaritzen, eta, hori salatzeko, elkarretaratzeak egin dituzte astelehenean Debagoiengan; Bergaran eta Oñatin, zehazki. Emakumeen Mundu Martxak ohiko protokoloa jarraituz deitu zituen elkarretaratzeak, eta horiekin bat egin zuten Martxanterak taldeak eta Oñatiko Sare Feministak, hurrenez hurren.

"Kontzertu ekonomikoa defendatu behar dugu"

PEDRO LUIS URIARTE EKONOMIALARIA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia sailburu izandakoak hitzaldia egin du Aretxabaletan, 'Gure kontzertu ekonomikoa... eta gure komunitatea' izenburupean

Eneko Azurmendi ARETXABALETA

Pedro Luis Uriartek (Bilbo, 1943) kontzertu ekonomikoa izan du hizpide aste honetako hitzaldian, eta haren garrantzia azpimarratu nahi izan du. Euskal gizarteak, oro har, kontzertua gehiago ezagutu beharko lukeela aldarrikatu du, "ezinbestekoa delako euskaldunon ongizaterako".

Zer da kontzertu ekonomikoa?

EAEn eta Nafarroan darabilgun finantziario sistema propio bat da, Espainiako Estatuko gainontzeko autonomia erkidegoek ez dutena. Kontzertu ekonomikoa, azken finean, ahalbidetzen digu existitzen diren zerga guztiak -23- guk geuk biltzea, foru ogasunen bitartez -Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa-. Hala, ia independentzia finantzario osoa edukitzea ahalbidetzen digu. **Kupoak ere lotura zuzena du kontzertu ekonomikorekin, ezta?**

Bai. Eusko Jaurlaritzak bildutako diru kopuruaren zati txiki bat Espainiako Estatuari ordain-



Pedro Luis Uriarte, kontzertu ekonomikoa eskuan duela. ENEKO AZURMENDI

tzen dio urtero, haren konpetentziatik kanpo dauden eta estatuak garatzen dituen gastuak ordaintzeko-aireportuak edota armada, adibidez-. Iaz 12.950 milioi euro batu ziren eta hortik 1.500 milioi ordaindu zitzaizkion

Estatuari. Gainontzekoa gastu publikora bideratzen du Jaurlaritzak; hau da, hezkuntzara, osasunera, errepideetara, eta abarretara. Orain, gainera, Espainiako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza akordiora iritsi dira,

eta, horren bitartez, orain arte ordaintzen aritu den 1.500 milioi euroren orde, 1.300 milioi ordainduko dizkio Gobernuari.

Badago desberdintasunik EAEkoaren eta Nafarroakoaren artean?

Nafarroako kontzertua EAEko kontzertuaren kopia bat da. Desberdintasun txiki batzuk badiutuzte, baina anaia bikiak direla esango nuke. Hala ere, interes politikoak direla eta, banatuta egon dira denbora luzean. Nafarroako eskuinak, UPNk, euskalduna den oro deabruaren moduan ikusi izan duelako.

Euskal gizarteak, oro har, ezagutzen du kontzertu ekonomikoa?

2013an, inkesta baten emaitzak ikustean, arduratu egin nintzen. Izan ere, emaitza horren arabera, euskal gizartearen %51k ez zuen kontzertu ekonomikoa ezagutzen. Hori dela eta, martxan jarri nintzen eta kontzertuari buruz inoiz izan den libururik handiena idatzi nuen, baina modu desberdin batean, edozeinek ulertu ahal izateko moduan; hau da, modu errazean azaldu eta anekdotak tartekatuta. 3.000 orrialde zituen liburu hark, eta ondoren beste bi idatzi nituen. Azkena idatzi dudana da *139 preguntas para un concierto de 139 años*.

Datorren urtean, beraz, 140 beteko ditu. Nola sortu zen?

1878ko otsailaren 28an jaio zen. Ez zen euskaldunon konkista bat izan, baizik eta armen bitartez Espainiak inposatutako

zerbait. 1876an Foruak elimintu ziren Martzial legearen bitartez. Estatuak ez zuen presentziarik gure lurraldean eta zergak biltzeko modu baten bila hasi zen. Foru aldundiak ezabatuta, estatuak berak aukeraturako aldundiekin akordio bat egin zuen, lurralde historikoetan zergak biltzeko -Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan-. Urteak aurrera joan ahala, mantendu egin da eta gaur egun, oraindik bizirik dago. Beraz, inposatutako erregimen bat zena alde biko harreman bilakatu da, Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren arteko harreman, hain zuzen.

Ze garrantzi ematen diozu euskal gizarteak hau guztiau jakiteari?

Handia. Kontzertu ekonomikoa mehatxupean dago. Komunitate bat sortu dugu, 2.700 herritar inguru gaudena. Konpromiso moral bat daukagu: kontzertua ezagutu, defendatu eta ezagutarazi. Ezinbestekoa da hau, agian, egunen batean kalera irten beharko dugulako aldarrikatzera euskal gizarteak daukan eskubide bat dela. Beraz, kontzientziatu egin behar dugu, eta kontzertu ekonomikoa defendatu.

"KONTZERTUAK AHALBIDETZEN DIGU EXISTITZEN DIREN ZERGA GUZTIAK GUK GEUK BILTZEA"

UR HANDITAN
Asteartero
22:15ean

INVICTUS
Asteazkeneo
22:15ean

BASKONIAKO HISTORIA BAT
Ostegunero
22:15ean

HERRI TXIKI
Igandero
22:00etan

gauero gertatzen ari da

Gertatzen ari da gauero, zure herrian, munduan, udalekuetan. Gertatzen ari da pentsakor jarriko zaituen zerbait, dantzan jarriko zaituen zerbait. Gertatzen ari da *Ur handitan*, *Izan Invictus*, *Baskoniako historia bat*, *Golazen*, eta *Herri txiki*, *infernu handi* saioetan. Zerbait gertatzen ari da... ikusi beharrekoa.

SOS Arrazakeriak bulegoa zabaldu du Arrasaten

Hainbat proiektu eta ekitaldi bultzatzeko gune izango da bulego berria. Izan ere, azkenaldian gora egin du SOS Arrazakeria taldearen jarduerak bailaran. Hala, bulego propioa izango du aurrerantzean taldeak, Arrasateko Udalaren laguntzarekin

M.A ARRASATE

Arrasate pasealekuko 3. zenbakian dago bulegoa eta dagoeneko hainbat dira SOS Arrazakeria taldeak antolatutako dituen ekintzak. Batetik, Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin batera urriaren 28an egingo den kontzertu solidarioa, *Pasabide seguruen eskubidea*, giza eskubidea izenekoa. Sentsibilizazioa eragiteaz gain, kontzertu horren helburua errefuxiatuentzat pasabide legalak eta seguruak aldarrikatzea izango da.

Bestetik, Bizilagunak egitasmoa antolatuko dute Debagoienean. "Bertako familiak eta kanpotik datozen familiak elkartu eta elkarrekin bazkaltzea da helburua. Herri askotan egiten dira halakoak eta hemen ere pauso hori eman nahi dugu", dio Nora Ugarteburuk, Debagoieneko SOS Arrazakeria taldeko arduradunak.

Diskriminazioaren aurkako Berdin sarea ere martxan dauka SOS Arrazakeria taldeak bailaran, diskriminazio kasuak detektatu eta horiek salatzeke helburua daukana. "Arrazakeriaren aurkako sare bat da hau eta diskriminazio kasuei aurre egitea da helburua. Bulego berri honekin gura duguna da



Arrasateko zinegotzi Amaia Azpiazu eta Nora Ugarteburu, arduraduna. E. AZURMENDI

gune bat izatea kasu hauek salatu ahal izateko", azaldu du Ugarteburuk.

Azkenik, atzerriartasun tramiteen gaineko aholkularitza zerbitzua eskainiko dute bulego berri horretan. Izan ere, orain arte arreta zerbitzua Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik eman izan da, baina bulego berriak horretarako aukera eskainiko du.

Bulegoa, Arrasate pasealekuan

Esan bezala, aipatutako bulego berria Arrasate pasealekuko 3.

atarian dago -2. eta 4. bulegoak- eta goizez egongo da irekita, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara. Hala ere, aurrez hitzordua eskatu behar da, 658 74 97 55 telefonora deituta.

Bulego berriaren gaineko informazioa duten txartelak banatzen hasia da dagoeneko SOS Arrazakeria, eta eskaria handia dela nabarmendu du Ugarteburuk. Arrasaten dagoen arren, Debagoien osoko herritarrei emango zaie zerbitzua bulego berri horretatik.



GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA

Furgoneta Elikagai Bankukoei

Danobatgroup-i esker furgoneta berria du Bergarako Elikagaien Bankuak. Elikagaiak jaso eta banatzeko erabiliko dute hori. Kooperatibako presidente Cesar Arriolak eman zizkion furgonetaren giltzak eguaztenean Jose Manuel Pinedari, Elikagaien Bankuko presidenteari.

Kriminologia Gradua, UNEDen berritasun akademikoa

UNED-Bergara Ikastetxeak unibertsitate ikasketen eskaintza zabalduko du; guztira, 27 gradu emango ditu

M.A BERGARA

2017-2018 ikasturtea berritasunean dator UNED-Bergara Ikastetxean; izan ere, Kriminologia Graduko lehen eta bigarren mailak emango dira. Azken urteetan arlo horren inguruan goi mailako formakuntzan emateko zegoen eskaerari erantzuten dio gradu berriak. Eskaintza berriarekin, guztira, 27 gradu eskainiko ditu aurtun UNED-Bergarak; horien artean daude Geografia eta Historia, Filosofia, Soziologia, Turismoa, Matematika, Kimika, Kriminologia...

Graduen katalogoaz gain, 74 unibertsitate master eta hementzi doktoretza programa eskainiko dira bertan.

Lau hamarkada daramatza UNED-Bergarak hainbat eta hainbat pertsonari egoera pertsonala eta ikasketak uztartzeko aukera ematen. Urtero, batez beste, 60 ikasle amaitzen dituzte unibertsitate mailako ikasketak. Gehienetan, ikasteko denbora luzerik ez duten ikasleak dira, ikasketak bestelako ardurarekin uztartu behar dituztenak, hain zuzen ere.

NISSAN
Innovation that excites

NISSAN QASHQAI BERRIA
BETI LEHENENGOA

GAURSA
Gamarrako Atea, 46 A-B 01013 - Gasteiz - Araba - Tel. 945 262 501
Kontsumo mistoa: 3,8 - 5,8 l/100 km. CO₂ isurpenak: 99 - 134 g/km. Kontsumo homologatua europar legeriaren arabera.

NISSAN INTELLIGENT MOBILITY



ZABALIK

MARIA AGIRRE

"No hacer diferencias"

Gauza asko kabitzen da udako albumean. Udan irakurritako liburua, argazki sorta, eta bizipen ugari.

Galderak eta erantzunak ere bai. Hausnarketarako balio dezaketen horiek.

Udan, herriko mugetatik kanpo joaterakoan ohikoa izaten da "nongoa zara?" galdera egin edo entzun behar izatea. Nik uste dut euskaldunok album kuriosoa osa dezakegula galdera horri dagozkion erantzunekin.

Kilometro kopuruaren arabera izan ohi da erantzuna: "Euskal Herrikoa", "Soy vasca" edo "I'm from Basque Country" dira aukeretariko batzuk. Beste batzuek, berriz, nahiago dute espainiarrak direla esatea. Badira urrutiago joan eta "europarra naiz" aukera erabiltzen dutenak.

Norberaren esku bat edo beste erabiltzea.

Hori bai, gehienetan, Basque Country aukeratuta, maiz, herrialdea kokatu beharra izaten da, geografikoki, edo bestela, kirolarekin edo beste arloren batekin lotura eginez –hiriren bat, futbola eta sukaldaritzako oso erabiliak izaten dira–. Hor konturatzen gara Basque Country markak gure mugetatik at duen

arrakastarekin, eta jendeak zerekin lotzen gaituen.

Udako oporraldian, Espainian, Kanarietako La Palma irlan pare bat alditan egin zidaten galdera. Azkena, irla erakusten ari zitzaigun gidariak.

–Vosotros sois españoles, ¿no?–, galdera.

–Somos vascos–, nik erantzun. Gainera, une hartan euskaraz ari nintzen ondokoarekin.

Eta gidariak, modu onean, eta taldea bizkor antolatze asmotan:

–Bueno, no vamos a empezar a hacer diferencias–.

Badakit espainiarrez ba ote zekigun galdetu nahi zigula, baina galdera beste modu batera formulatu zuen. Eta nik, boteprontoan, galdera erantzun nuen.


"No hacer diferencias". Hausnarketarako esaldia.

Baina gauza bat da nabarmendu nahi izatea eta beste bat era naturalean zure burua kokatzea.

Batek daki, agian, noizbait, haiek egingo digute lan hori.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Arazoa ez da ikasgelan eserita egoten ez dakitela, ez direla nahikoa mugitzen baizik

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

[HTTPS://LABUR.EUS/QWZGI](https://labur.eus/QWZGI)

Ikasleak ez direla gai eserita adi egoteko, ez dutela arreta jartzen, hiperaktibo asko dagoela... kexa orokor diren garaiotan, hain juxtu eserita denbora gehiegi igarotzen dutela uste du Angela Hanscom pediatriak:

Haurrak ez dira behar adina mugitzen, eta horren ondorioz ikasteko prestatuta ez dauden gorputzak (garunak) ditugu ikastetxeetan.

"Zaila da umeak lurrean bueltaka ikustea, zuhaitzetara igotzen edo jirabiraka, jolasgaraia murriztu egin da curriculumak behartuta, eta aire librean gutxiago jolasten dute, gurasoen beldurrak, ardura kontuak eta gizarte modernoaren ordutegiak tarteko. Umeak ez dira nahikoa mugitzen, eta arazo handia da hori", dio.

10-11 urteko ikasleekin egindako ikerketa aipatzen du pediatriak: aztertutako hamabi ikaslelik batek baino ez zituen indar eta oreka normalak; gutxiegi mugitzearen ondorioz, azpigaratuta zuten oreka.

"Sistema sentsorial indartsua garatzeko, haurrek euren gorputza norabide

guztietan ordu ugariz mugitzea beharrezkoa dute. Ikasteko prestatuta ez dauden gorputzekin doaz eskolara, ongi funtzionatzen ez duten sistema sentsorialekin, eta mugimendu nahikorik ezean garuna ez da pizten. Haurrek ikas dezaten, arreta jartzeko, mugitzen utzi behar diegu".

"Gorputzak mugimendua eskatzen die desesperatuki. Eta haurra mugitzen hasten denean, zer gertatzen da? Geldi egoteko eta arreta jartzeko eskatzen diegu; ondorioz, euren garunak lo hartzen du berriz".

Post gehiago 8. orrialdean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

PROTAGONISTA

"Bizikleta maite duen edozein emakumerendako taldea da"

ERKUDEN ALMAGRO BIZIKUME PROIEKTUAREN SORTZAILEA

X. Gorostidi/ M. Bikuña ARRASATE
Erkuden Almagrok txirrindularitza profesionala utzi zuen duela hamar urte. Ofizio zuena afizio bihurtu zuen orduan, eta *Bizikume* proiektua ipini zuen martxan, emakumeak elkarrekin bizikletan ibili ahal izateko. **Zergatik erabaki zenuen emakume txirrindulariak elkartzea?** Errepidera gizonezkoekin irteten nintzen, eta, gustura ibili arren, erritmoak ez ziren berberak, berba egiteko erabiltzen genituen gaiak ez ziren berberak, beharrak... Orduan, sare sozialen bidez taldea sortzeko proposamena zabaltzen hasi nintzen, eta erantzuna itzela izan zen. Egun, 200 bat emakume gara, hainbat taldetan banatuta. **Aberasgarria izan da, orduan?** Zalantza barik, bai. Profil ezberdinetako emakumeak elkartzen gara, eta gure esperientziak partekatzen ditugu elkarren artean. Guztion artean.



Erkuden Almagro, Arrasaten emandako hitzaldiaren aurretik. XABI GOROSTIDI

Orain, Debagoienean sortu gura duzue taldea.

Hemen ere egongo da bizikleta gustuko duenik. Bada, taldean ibiltzera animatuko balira, nirekin kontaktuan jar daitezke,

Mujeresenbici.es webgunearen bitartez. Blog antzeko bat da. Askotariko informazioa dago hor.

Bizikletan ibiltzeko elkartzen zarete, baina bestelako ekintzak ere egiten dituzue.

Badaude emakume batzuk bizikletan ibilitakoak direla eta badakitela nondik nora ibili. Baina beste batzuk berriak dira. Horiekin ikastaroak egiten ditugu. Mendiko bizikletaren eta errepidekoaren arteko ezberdintasunak zeintzuk diren, ze ibilbide egin daitezkeen, erruberak zulatzen direnean zer egin, bizikletan ibiltzeko zer arropa eta material behar den...

Webgunea emakumeak erakartzeko bidea izan da orduan.

Bereziki bizikletan hasi gura izan dutenendako. Aholkuak eta beste ematen ditut. Noizbehinka, nire istorioak idazten ditut, ibilbide berriak proposatu...

Talde berri bat sortzen denean, ze dinamika izaten duzue?

Eurekin elkartzen gara, oinarri batzuk finkatzeko. Lehenengo irteera eurekin egiten dugu, baina, ostean, talde bakoitzak dinamika propioa izaten du.

Asko aldatu da emakumeen txirrindularitza, profesional izan zinen garaitik?

Asko. Emakumeen kirola, oro har, asko profesionalizatu da hamar urtetan. Joane Somarribaren garaikoa naiz ni, eta orduan beste baldintza batzuk zeuden.

HAU BE BADOGU!

Netflix-en publizitatea Donostian



Borja Cobeagak zuzendutako *Fe de etarras* filma promozionatzeko argazkian ikus daitezkeen kartel erraldoia jarri du Netflix-ek Donostiako erdigunean. Kartelak polemika sortu du sare sozialetan, eta Internet bidezko plataformari boikota egiteko dei egin dute hainbatek, "probokatzailerak" dela argudiatuz. Hori dela eta, *#boicotnetflix* traola *trending topic* izan da. Madrilen *Narcos* telesaila iragartzeko polemika sortu zuen kartel bat erabili zuten iaz.

Sare sozialak ere Kataluniari begira

Urriaren 1eko erreferenduma gero eta gertuago izanik, sare sozialetan Katalunia da hizpide nagusi, zalantzarik gabe. Debagoieneko hainbat herritan elkartasuna adierazi dute herritarrek, eta, sare sozialen bidez, txiolarari euskaldunen artean ere *#KataluniarekinBat*, *#Catalunya*, *#ReferendumCAT* eta *#KatU1* traolak *trending topic* izan dira. Orokorrean, babes eta elkartasun mezuak nagusi izan dira nagusi astean barrena.

Alzheimerren Munduko Eguna atzo

Gogoratu ezin dutenen horietaz gogoratzea lelopean mezu ugari partekatu zituzten erabiltzaileek atzo, Alzheimerren Munduko Egunean. Mundu mailan *trending topic* izan dira, horren ondorioz, gaixotasunaren aurka borrokatzeko zenbait ekimen ezberdin.

@eu.wikipedia: "Alzheimer mundu osoan ia 30 milioi pertsonen pairatzen duten gaixotasun neurodegeneratibo terminala da".

ITURRI ONETIK

Eskoriatza, infernu handian

Herri txiki, infernu handi
ETB1eko saioak beste denboraldi bat hasiko du eta bigarren saioa Eskoriatzari eskainia izango da: urriaren 15ekoa, hain zuzen. Egunotan aritu dira herriko pertsonaia ospetsuenekin; besteak beste, Karmen Pagaldai, Lander Villar, Mari Karmen Eraña, Angel San Miguel, *Patas*, *Txapel*... eta atzo grabatu zuten aretoko saioa kiroldegian. Gorka Urrutiaren goitibeheran heldzen dira Apotzagatik behera Gurrutxaga eta *Pagadi* aurkezleak; azken horrek eskoriatzar peto-petoa izateko ahaleginak egingo ditu.

GORA ETA BEHERA



Txarapeako lanetan behar ez dena zikintzen

Aretxabaletako Txarapea ibilbideko bizilagun batek kexa adierazi gura izan du etxebizitzaren atzeko parteko malda egonkortzeko egiten dabilzan lanak direla eta: "Gauza bat da pareta indartzeko eragiten den porlan zikina, baina beste bat paperezko zakuak edozein lekutan utzi eta porlanez behar ez dena zikintzea. Ez dira gero euren kalean horrela ibiliko".



GUTUNAK

Hartu tartetxo bat bidean gelditu direnak omentzeko**ENRIKE LETONA**

ARRASATEKO SORTU

ARRASATE

1975eko irailaren 27an frankismoak bost borrokalaria hil zituen. Geroztik, egun hori hartu izan dugu aurretik eta geroztik hil dituzten borrokalariai omentzeko. 27an, asteazkenean, Seberon elkartuko gara, 19:00etan. Manifestazioa egingo dugu, eta ondoren ekitaldi xume bat Monterronen. Hainbeste gauza egiteko ditugun garai hauetan, memoria ariketa bat egin eta biktima guztien aitorpena indartzeko murgildu gaitezen une bat gure historiaren hainbat gertaeratan. Guztia eman dutenek ez dute merezi gure oroimenera ekartzea? Aurrera egin behar dugu, baina herri honen etorkizuna

ezin da eraiki, aurretik gertatutako guztia oroitu gabe. Inor ez da ezinbestekoa, baina guztiok gara beharrezkoak. Hurbil zaitez Seberora 27an, gure aurreko borrokalariaiekin batera egingo dugu egun horretako bidea eta baita etorkizunekoa ere.

Berdintasunik ez**ROSA NARBAIZA**

BERGARA

Irailaren 15eko GOIENAKo gutunetan agertu zen Inazio Arregirenari lotuz, beste honek harritu ninduen ni, *El Diario Vasco*-ko portada osoa betetzen zuen argazkiak, Orioko gizonezkoenak. A! San Juango emakumeena ere hor nonbait aurkitu genuen, jakina, baina bestearen zortziren bat edo neurtuko zuena, inola ere ez merituen arabera. Zorionak kirolariei eta atximurkada bana besteei.

HANDIK ETA HEMENDIK

Sorgindutako izenak**TXERRA RODRIGUEZ**

HTTPS://LABUR.EUS/SGZZL

'ARGIA'-N ARGITARATUA

Izenek izana ei dakarte edo, berba modernoak erabilia, izenak performatzen du izaera. [...] Aurrekoan euskara elkartearen izenen gainean aritu ginen eta ufa, a zer izen pusak dituzte. Doktore-tesi antropologikoa egiteko bazka ere badute izenek, analisi semiotikoak gorabehera. Ikus ditzagun batzuk:

-Berba edo hitza dutenak: Berbaro, Berbaizu, Berbots, Hitzaro, Zorritzketan (zorritztoak hizketan)...

-Izen geografikoak: Sasiburu, Loramendi, Karrikiri, Karrikaluze, Goibeko... [...]

-Euskalkian idatzitakoak: Tximintx, Lagatzu, Noaua,

Maxixatzen, Arrekikili, Bagera, Nañon, Txatxilipurdi...

Eta abar. Benetan ere esanguratsua litzateke (eta exotikoa!) hauen gaineko azterketa. Ea bateren bat animatzen den.

Gure zirkua**ANDONI EGAÑA**

HTTPS://LABUR.EUS/4GJYH

'BERRIAN'-N ARGITARATUA

Ekimen edozeri deitzen zaion garaiotan Iker Galartzak zirkua bat eraiki du Tolosako zezen plazan. Gustatu egiten, nonbait, zirkuko giroa orobat: itzalpeko lana, karpa zutitzea torlojuak jartzea, argiak eskegitzea, erosotasun handirik gabe baina talde-lanean aritzea... eta ekin egin zion. [...] Espazio egonkor bat eta Zirkua Eskola baten hasierako urratsak ere buruan ditu.

Orain oraingoz ipini du karpa Tolosako zezen plazan Udalarekin hitzarmenen bat eginda eta aste bete barru eskainiko dute lehen funtzioa. Funtzio publikoan ari diren askorentzat ikasgai ere bada: zerbait egitan nahi denean, abian jartzea bezalakorik ez da nahi den horretara hurbiltzeko. [...]

Amets edozeri deitzen zaion sasoiotan futbolari batek esan dezake lasai asko Ligako laugarren jardunaldian Betisi irabaztea duela bere ametsa, Ikerrek ongi zehaztu du zertan datzan egiazko ametsaren izatea. Iraupenarekin du zerikusia.

Ametsik politenak ez omen dira behin soilik bete daitezkeen haiek, luzaroan ekinean aritzera behartzen zaituztenak baino. Ez dabil oker. Bestela, ametsa, bete ahala hustu egiten da.

Post gehiago 6. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

**ABOKATUAK****BERNARDINO MAIZTEGI**

BERGARA / Irizar 5

Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A

Tel.: 943 79 98 86

Faxa: 943 77 01 08

blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5

Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA /**NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10

Tel.: 943 71 21 12

zenbaki@zenbaki.eus

AHOLKULARITZAK**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3

Tel./Faxa: 943 79 29 26

andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otolara Lizentziaduna 4

Tel.: 943 71 25 49

Faxa: 943 71 17 79

asegi@asegim.com

GARRAILAN

BERGARA / Matxiategi 36

Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10

Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.eus

zenbaki@zenbaki.eus

ARKITEKTOAK**BIARK ARKITEKTOAK**

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behe

Tel.: 943 79 80 33

www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe

Tel.: 943 79 51 25

Faxa: 943 71 19 85

uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Juana Uranga, Trini Ruiz de Alegria, Julene Iturbe eta Libe Bengoa dira erakusketan agertzen diren arrasatearrak. MAURO SARAVIA

Frankismoa eta gerra emakumeen begietatik

'Emeek emana' erakusketa Arrasatera dator eta martitzenean inauguratuko dute. Data berezia da, 81 urte betetzen dira-eta frankistak Arrasatera sartu zirela. Egun berean, herritarren testigantzekin osatutako kereila kriminala jarriko du Udalak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Intxorta 1937ko kideek memoria historikoa galdu ez dadin lanean dihardute aspalditik, eta azken bi urteetan kementsu jardun dute, 1936ko altxamendu frankistak eragindako ondorioak pairatu zituzten emakumeekin lanean. Lan horren emaitza da *Emeek emana* erakusketa. Bertan, 63 emakumek gerran bizi izandako pasarteak pilatu dituzte, bideoak eta erretratuak erabiliz. Oñatin gaur arte egon da ikusgai, eta martitzenean Arrasaten inauguratuko dute.

"Gure lana egiaren zati bat da eta memoria historikoan diharduten taldeen izenean egia, justizia, erreparazioa eta ez erreplikatzeko bermeak aldarrikatzen ditugu. Frankismoaren inpunitea bukatu egin behar da, eta, horretarako talde memorialistek, frankismoaren biktimek eta erakundeek lan komuna egin behar dugula pentsatzen dugu", adierazi du Intxorta 1937 elkar-teko Julia Mongek.

63 testigantza horien artean, lau arrasatearrenak ere badaude: Julene Iturberenak, Libe Bengoarenak, Juana Urangarenak eta Trini Ruiz de Alegriarenak, hain zuzen.

Aurkezpen jendetsua

Asteazkenean egin zuten erakusketaren aurkezpen ekitaldia, Kulturaten, eta han izan ziren Intxorta 1937ko Julia Monge eta Juan Ramon Garai, erakusketako erretratuak egin dituen Mauro Saravia argazkilari txiletarra, Arrasateko udalbatzako alderdi guztietako ordezkariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Maribel Vaquero ere. "Emakumeen ikuspuntu hori helaraztea da helburua, emakumearen sufrimenduaren errekonozimendu bat egitea; izan ere, ematen du emakumeek sekula ere ez dutela gerrateetan parte hartzen", adierazi zuen Maria Ubarretxena alkateak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan dute Intxorta 1937ko kideek, eta Vaquerok honela arrazoitu du babes hori: "Intxortako Julia Monge eta Juan Ramon Garai proiektu honekin etorri zirenean, oso interesgarritzat jo genuen. Izan ere, testigantzen, irudien eta emakume horien biografien bidez, emakumeek urte latz haietan egindako ekarpena bil-tzen du proiektu honek".

81 urte, hiru ekintza

Martitzenean 18:30ean zabalduko dute erakusketa, Kulturaten, eta aurretik, 18:00etan, lore eskaintza egingo diete erreparatu-tuei Laubide plazako monolitoan.

Goizean, aldiz, Arrasateko Udalak frankismoaren gehiegikeriak ikertzeko kereila kriminala jarriko du Bergarako epaitegian. 11:00etan izango da, eta gerra eta frankismo garaiarekin lotutako herritarren testigantzak aurkeztuko dituzte.



Super BM berria, aparkalekutik ikusita. XABI GOROSTIDI

Musakolako Super BMk ez du ateak itxeko asmorik

Decathlon batek ordezkaturako zuela zioten zurrumurruak gezurtatu egin ditu planta berriko arduradunak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Iazko azaroaren 17an zabaldu zituen ateak Musakolan dagoen Super BM supermerkatuak, 23 lanpostu berri sortuta. Aldi berean zabaldu zituen ateak Lidl-en egoitza berriak ere, eta, elkarren alboan egonda, bien arteko konparaketak egiteko joera nabaria izan da arrasatearren artean.

Aparkalekuko auto kopuruari erreparatuta, azarotik hona jende gehiago pilatu izan da kate alemaniarraren aldean, eta horrek bidea eman die Super BM itxi egingo zela zioten zurrumurruari, baita haren lekua Decathlon kate frantziarrak hartuko zuela ziotenei ere. "Bertara datozen bezeroek askotan galdetu digute horri buruz, baina informazio horiek gezurrak dira", adierazi du Miriam Garciak, Musakolako Super BMko arduradunak.

Azarotik hona euren lantaldean murrizketarik egon den galdetuta, ezezko erantzuna eman du. "Azaroaren 17an zabaldu genituen ateak. Supermerkatu berri bat zabaltzerakoan, ohikoa izaten da lehen egunetan jende kopuru handia erakartzea, eta, hori dela, gure lantalde finkoaz gain, langile gehiago izan genituen errefortzu gisa. Baina gure lantalde finkoa 23 langilekoa izan da hasieratik, eta hala mantentzen da".

Zurrumurruak aurkakoa esan arren, salmentak bide onetik doazela baieztatu du.

Decathlonen eskaririk ez

Merkataritza zinegotzi Victor Fuentesek adierazi du Arrasateko Udalera ez dela planta berri bat zabaltzeko eskaririk heldu. "Udalera ez da Decathlonen inongo eskaririk heldu; beraz, zurrumurruak faltsuak dira.

Radarretan, oraingoz, ez dituzte neurgailuak jarri

Pasa den asteko egunean, hainbat langile herriko hiru puntutan jarritako radarretan lanean aritu ziren, horien hornidura elektrikoa egiten. Baina funtzionamenduan egon ahal izateko neurgailua behar dute, eta hori jarri gabe dago.

Uribarrin, Garibain eta San Andresen jarri zituen radarrak Arrasateko Udalak martxoan.

Udalak neurgailu bakarra alokatuko du, txandaka lekuz aldatzen joango dena. Hala, gidariek ez dute jakingo neurgailua martxan dagoen edo ez, beldur efektu horrekin hiru neurgailu alokatzea saihesteko.

Hirigintza zinegotzi Ibon Arruppek azaldukoaren arabera, aste honetan onartu behar zen neurgailuaren alokairua kontratazioa mahaian, eta, martxan jarri aurretik, abiadura neur-tuko dela ohartarazteko seinaleak jarriko dituzte.

Bi arazorentzako konponbideak eskatzen

Arrasateko EH Bilduk azalpenak eskatu ditu ospitale ondoko putzuaren eta GI-627 errepideak Kataide inguruan duen egoeraren gainean. Lehenari buruz Eusko Legebiltzarreko taldearen bidez eta bigarrenari buruz, Batzar Nagusiko taldearen bidez

Xabi Gorostidi ARRASATE

Bi gai horiekiko kezka eragin da, Arrasateko EH Bilduk Legebiltzarrera eta Foru Aldundira jotzea erabaki du konponbide eske.

Ospitale ondoko putzua

Duela hamar urtetik inongo erabilpenik dago Arrasateko Zerrajera eremuko D lursaila. Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen Visesa enpresak du haren ardura, izaera publikoko etxebizitza publikoak egitea baitzen hasierako asmoa.

Horiek egin ahal izateko, lurzoruan zuloa egin zuten, baina ordutik hona ez da beste esku hartzerik egon, eta putzu handi bat geratu da.

"Ordutik hona, hainbat keza egin dituzte inguruko biztanleek, baita ber-bertan den ospitaleko erabiltzaileek, arratoiak, eltxoak eta direla eta. Udalak ere errekerimendu ugari egin dizkio Visesari, animalia izurrite hauez gain eremuaren atea konponatzeko eskatuz, edo azkenak landare inbaditzaileen kontrolaren inguruan", azaldu dute EH Bilduko ordezkariak.

Maidar Otamendi EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordeak informazio eskaera egin zion Iñaki Arriola Inguru-



Ospitale ondoko putzuarekin kezkatuta dago Arrasateko EH Bildu. IÑAKI GOROSTIDI

men, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza sailburuari, besteak beste, bere garaian agindutako etxebizitzak egiteko asmorik duten jakite aldera. Martitzenean tramitatu zen eskaera, eta 20 eguneko epean jaso beharko lukete Jaurlaritzaren erantzuna.

Bihurgune 'arriskutsua'

Bestetik, Bergararik Arrasaterako noranzkoan Kataide poligonoaren parean dagoen bihurgunean gertatzen den istripu kopuruarekiko kezka helarazi du EH Bilduk. Astelehen goizean,

adibidez, beste istripu gertatu zen. Hala, 2017an zenbat istripu gertatu diren eta horiek gutxitzeko neurriak hartuko duten galdetu diote Bide Azpiegitura-tako diputatuari. Horren harira, abiadura neurtzeko radarra jartzea eta bidea berriz asfaltatzea proposatzen ditu EH Bilduk konponbide gisa.

Ordenantza fiskala

2018rako ordenantza fiskalera-rako proposamenak plazaratu ditu asteon Arrasateko EH Bilduk (*Goiena.eus*-en ikusgai).



NIRE USTEZ

AITOR OROBENGOA

Kontu eske

Duela aste batzuk gure kaleetako hormetan LAB sindikatuak jarritako kartelak agertu ziren Jaurlaritzaren industria-politika kritikatzeko. Zehazki, kartel horietan, egoera kaskarrean aurkitzen diren hamar enpresaren izenak aipatzen ziren eta beraiei laguntzeko Industria Sailak ezer gutxi egiten dela salatzen zuen sindikatuak. Iruditzen zait Industria Sailak ez duela inoiz garbi hitz egiten krisialdi egoeretan dauden enpresei laguntzeko duen benetako ahalmenaz. Izan ere, dela Europar Batasunak ezartzen dituen estatu-laguntzen mugengatik, dela gaitasun ekonomiko urriagatik, Jaurlaritzak ezer gutxi egin ahal izango du enpresa horiei laguntzeko.

Ondorioz, iruditzen zait bere eskuetatik kanpo dagoenaz baino gehiago, berez dituen eskumenez eskatu beharko geniokeela erantzukizuna. Esate baterako, ekintzailetasuna eta ikerkuntza bultzatzeko burutzen duen lanaz. Izan ere, Euskadiko ekintzailetasun maila Espainiako Estatu txikienetarikoena izatera iritsi da eta, bestetik, ikerkuntza gastua barne produktu gordinaren %1,84ra jaitسي da, helburutzat jotzen zen %3tik erabat aldentuz.

Zarzuela beste urtebetez gozatzeko hitzarmena

Udalaren eta Izaskun Murgia elkartearen arteko akordioak urtean ekoizpen bat eta lau antzezpen egitea jasotzen du

X.G. ARRASATE

Arrasaten zarzuela ekoiztu eta elkartearen lana ezagutzera emateko asmoz egin dute akordioa, beste behin. Horri esker, 12.000 euroko diru laguntza jasoko du elkarteak, eta, trukean, urtero obra bat ekoizteko eta lau emanaldi egiteko konpromisoa hartuko du Izaskun Murgia elkarteak.

"Izaskun Murgia elkarteak kultur elkarte bezala ekarpen handia egiten dio herriari, eta, ildo horretan, kultura izanik Udal honen lan ardatz nagusie-


tako bat, elkartearen lana kon-tuan hartuta, hori bultzatu eta ezagutaraztea ahalbidetuko duen hitzarmena sinatu nahi izan dugu, urtero bezala", adierazi du Udalak.

Urtean obra bat ekoizteko eta euren lana baldintza egokietan egiteko, Amaia Udal Antzokia eta bertako langileak elkartearen mesedetara uzten ditu hitzarmenak. "Erakunde publiko gisa, Udalaren betebeharra da elkartearen lana bultzatu eta errazteko baliabideak haien eskura jartzea".



GI-627 errepideko bihurgunearen irudia. GOOGLE EARTH






13. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

**375 argazki jaso ditugu.
Eskerrik asko parte hartzeagatik!**

Irailaren 25etik urriaren 1era arte, zure
argazki gustukoena aukeratu ahal izango duzu
(PUBLIKOAREN SARIA). Sar zaitez
blogak.goiena.eus/argazkiak/ webgunean
eta eman zure botoa!

Eta adi egon! **Urriaren 6an**, XIII. Udako Argazkien Goiena
Lehiaketaren irabazleak emango ditugu! Zorte on!



SANTA CRUZ DE CUERRAGOSEN | Argazkia: Jone Uribebebarria



SANABRIAKO HONDARTZAN | Argazkia: Angel Ayastuy



ERTZETAN | Argazkia: Nerea Zugasti



Aaaaaa | Argazkia: Ander Etxeberria Otadui



INDIAKO KALEETAN BARRENA | Argazkia: Aitziber Romero Sanchez



TORIMBIA | Argazkia: Helena Azkarraurizar Jauregi



ZARAUZKO PORTUAN SALTOKA | Argazkia: Alfredo Losada



GARRAIOLARIA | Argazkia: Gaizka Unzueta Irasuegi



JON, UR PUTZUAN SALTOKA! | Argazkia: Mikel Loiti



ARRATSALDE PASA MASSACHUSETTSEN | Argazkia: Miren Lizarraga Aranzabal

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK

INTERSPORT
ARRASATE LORAMENDI ZUMARRAGA



Kultura elkarteetako ordezkariak, martitzenean egindako aurkezpen ekitaldian. TXOMIN MADINA

Goikobalu erromeriatik, Gazteluaren Jaira

Santa Barbara parkearen balio historikoa, botanikoa eta ludikoa sustatze aldera, duela bost urte Goikobalu erromeria antolatu zuten herriko hainbat eragilek; orain, izena aldatu diote, eta bihar, zapatua, ospatuko dute, hainbat berritasunekin

Xabi Gorostidi ARRASATE

Herriko historiako pasarte ugariaren gordailu da Santa Barbara edo Goikobalu izenez ezagutzen den parkeak; gaztelua edo dragoiaren kondaira, besteak beste.

Herriko hamahiru kultura eragile batzen dituen Zuztarrak Errotuz taldeak Arrasateren ondarea balioan jartzea izan du beti ardatz, eta, asmo horri jarraituz, Goikobalu erromeria antolatzea erabaki zuen, herriko txoko berezi horri omenaldia egiteko.

Egonkortzea helburu

Elkarte antolatzaileen inplikazio aktiboari eta Udalaren laguntzari esker ospatu da erromeria azken lau urteetan, eta, hasierako ibilbide hori egin ostean, herriko agenda kulturalan errotuko den eguna izatea nahi dute sustatzaileek.

Hala, aurrerantzean ere, irailko laugarren asteburuan egingo dute, herrian egiten diren

beste jai batzuekin talkarik ez egiteko.

Berritasun ugari aurtan

Martitzen arratsaldean egin zuten aurtengo edizioaren aurkezpena, Kultureteko klaustro barruan, eta, egitarauaren nondik norakoak azaltzeaz gain, bosgarren edizioako nobedadeen berri eman zuten.

Jaiaren izena aldatu egin dute: Goikobalu erromeria zena Goikobalu Gazteluaren Jai izango da; horrez gain, furgoneta bat jarriko dute Herriko Plazatik Goikobalura bazkaritarako jakiak igotzeko; eta, azkenik, sagardo-kupel bat jarriko dute, *Heuk in, heuk jan* bazkariko jakiak bultzatzen laguntzeko.

IRAILEKO LAUGARREN ASTEBURUAN EGINGO DA AURRERANTZEAN, BESTE JAI BATZUEKIN TALKARIK EZ EGITEKO

Egitaraua

- **11:30** Arotz plazatik ibilbide gidatua
- **12:00** Herriko Plazan elkartu, eta 12:30ean erromerian Goikobalura
- **13:00** Umeentzako jolasak eta dantzaldia
- **13:45** Sokatira
- **15:00** *Heuk eruen, heuk jan* bazkaria
- **15:45** Kanta herrikoiak
- **16:00** *Herrixa dantzan* Patxi Monterorekin.
- **17:15** Dantzaldia
- **18:45** Jaitiera

Antolatzaileak:

Zuztarrak Errotuz, AED, Lore Gazteak, Arrostaiz, Ekin Emakumeak, SUDC, Txatxilipurdi, Udalaxepe, Trikitixa Eskola, Portaloi Elkarte, Bertso Eskola, Ttakun Elkarte, albokariak.

Merkataritza Berdearen Asteko zozketa bihar

Beste urte batez, herriko merkatariek bat egin dute MugikortasunAstearekin, Merkataritza Berdearen Astea antolatuta.

Hiru bizikleta, zozketan

Hala, irailaren 16tik 22ra bitartean herriko komertzioetan erosketak Arrasate Txartelarekin ordaintzen dituzten bezeroen artean zozketa erakargarria egin-

go dute, bihar, zapatua, 13:30ean, Herriko Plazan. Sari nagusia hiru bizikleta berri izango dira, baina, horretaz gain, produktu ekologikoz jositako otarren zozketa ere egingo dute.

Lehenik, txartelak aurkeztu

Zozketan parte hartu nahi dutenek 12:00etatik 13:30ak arte izango dute euren erosketa-txartelak aurkezteko tarte. Behin horiek guztiak batuta, 13:30ean ekingo diote zenbaki sarituak aukeratzeari.

Mugikorreko bideo jokoan txapelketa bihar, zapatua

Kultureteko klaustroa bideo jokoan maitaleen bilgune bilakatu da bihar. 10:00etatik 20:00ak arte, 128 lehiakide nor baino nor gehiago arituko dira mugikorreko jokoetan duten trebezia neurtzen.

Bi bideo joko

Txapelketa berezi horretan, bi bideo jokoren baitan neurtuko

dituzte indarrak: *Clash Royale* eta *Hearthstone*. Mundu mailan milaka erabiltzaile dituzten jokoak direla ikusirik, elkarlanean antolatu dute txapelketa Udalak eta Mondragon Unibertsitateko LEINN graduako lantalde batek.

12 eta 22 urteko gazteei zuzenduta dago, eta interesa dutenek egunean bertan izango dute izena emateko aukera. Txapelketaz gain, hitzaldiak ere izango dira, eta tartean dago *Mariodela* ezinez ezaguna den jokariak eskainiko duena.

53koen, 61ekoen eta 64koen kintadetarako deialdiak eginda

Uda ostean ugaritzen hasten dira urte berean jaiotakoek ospakizun bazkariak.

53koak

1953an jaiotakoak Donostiara joango dira irailaren 30ean. Hara joan nahi dutenek 65 euroko diru-sarrerara egin beharko dute Laboral Kutxako kontu honetan: 3035-0202-74-2021044186.

61ekoak

1961ean jaiotakoek Arrasaten ospatuko dute euren kintada. Hara joan nahi dutenek 65 euroko diru-sarrerara egin beharko dute Laboral Kutxako kontu honetan, urriaren 12a baino lehen: 3035-0001-51-0011165507.

64koak

1964an jaiotakoak urriaren 28an elkartuko dira Arrasaten bertan. Izena emateko, 55 euro sartu behar dira kontu honetan: 2095 5055 50 9113880736.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
•
Psikoterapia:
•
umeak, gazteak eta helduak
•
Arreta psikologikoa
•
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
•
Estimulazio goiztiarra
•
Logopedia
•
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

"Biltzeko leku bat eskaini nahi diegu herritarrei"

IGOR URIZAR BALEIKEKO ZINEGOTZIA

Bi urte daramatza Baleikek herriko udalbatzan, antolaketa propiorako lokalik gabe. Orain, Otalora kalean zabalduko dute lokala "erreferentziatzeko" gune izateko asmoz

Xabi Gorostidi ARRASATE

Alderdi politikoen funtzionamendurako lagungarri izaten da lokal propioa izatea; barne eztabaidetarako eta kartelak eta halako materialak gordetzeko. Baleikek bazuen horretarako beharra, eta laster, hori asetzeko, lokala zabalduko dute.

Lokal fisikorik gabe, nola antolatuta zarete bilerak egiteko?

Genituen baliabide urriei ahalik eta aprobetxamendu hoberena ateratzen saiatu gara, defizitak aukera bilakatzeko asmoz. Kulturate erabili izan dugu asanbladak egiteko, gehienbat, batez ere, kalean egitea zaila zenean -logistika edo klima txarrak

behartuta-. Horrek bere deserosotasunak baditu, baina jendearekin errazago konektatzen lagundu digu eta politika era xumean lantzen ikasi dugu.

Nola sortu zaizue Otalorako lokala hartzeko aukera? Ikusi al duzue beste lokalik?

Otalorakoak hainbat irizpide betetzen zituen: kokapena, erdialdean jende ugari pasatzen den lekuan egotea; fatxada gardena, jendearenganako hurbiltasuna indartuz, esparru egokia, gure espazio beharrak asetzen dituen, eta, noski, prezio aldetik gure posibilitateen barnean mantentzen dela.

Erosi? Alokatu?

Alokairua da, Ahal Dugu Euskadik ordaindua. Euskadiko Hiritar Kontseiluak estrategikotzat dituen herrietan egoitzak zabaltzea erabaki du, eta, zorionez, Arrasate horietako bat da.

Zer onura ekarriko dizkizue?

Arrasatearrentzat erreferentziatzeko leku bat izatea. Gure ekimenak zentralizatzeko eta planifikatzen laguntzeko ere baliagarria izango da, materia-

la gorde, eta guztiok elkarlanean aritzeko. Gure helburu handienetako bat eragile eta antolatutako jende multzoei biltzeko toki bat eskuragarri jartzea da, denboraz erlazioak ehunduz eta politika eztabaidatu eta ekiteko leku bat izatea.

Gaurkotasun politikoarekin lotuta, nola hartu duzue Nagua Albak Podemos Euskadiko buru izaten jarraitzeari uko egin izana?

Hurrengo primarioetan ez aurkeztea erabaki du, oraindik gure idazkari nagusia da. Guztiz errespeta garria iruditzen zaigu hartu duen erabakia. Gure idazkari nagusiarekin erlazio ona izan dugu, hainbat aldiz bisitatu gaitu eta herriko eragile ezberdinekin harremana izan du. Ezin gara kexatu.

Podemos Euskadiren zirkuluen %38 zuzendaritza aldatzearen alde zeuden. Non lerratzen da Baleike?

Arrasateko kideen artean hainbat postura ezberdin daude, baina beti saiatzen gara adostasun maila bat izaten. Arrasateko zirkulua %38 horren barruan zegoen; beraz, Naguaren erabakia ulergarritzat jotzen dugu eta partekatzen dugu.



Igor Urizar, aurrean, alderdikideekin, lokal berria izango denaren kanpoaldean. X. G.

Oroimen Eguna Besaiden

Azken urteetako eguraldi eskasa ez zen domekan Besaiden agertu, eta Oroimen Eguna giro ederrean ospatu zuten. "Egun borobila izan zen guztiontzat. Bailaran turismoa sustatzeko balioan jarri beharko genuke Besaide, eta Arrasate aldeko pinudia kentzea lagungarri izango litzateke", adierazi du Aitor Zubiagak, Besaide Mendizale Elkarteko presidentek.



BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

Bizikletak protagonista

Mugikortasun Asteak ziprztindutako asteburua izan zen aurrekoa, eta bertan presentzia nabaria izan zuten bizikletek.

Zapatuko Bizikleta Azokak herritar ugari erakarri zituen, baita domekako bizikleta birak ere; hamar kilometroko ibilaldia egin zuten, Seber Altubetik abiatuta. Irudian, birari hasiera eman zioten momentua.



NEREA LAZPIUR



**% 100
AFEKTIBOA**

EUSKARA IKASTAROAK

Debagoieneko AEK

"Komunikazioa da gure metodoa"

EUSKARA TITULU OFIZIALAK

Garibai 14 · 943 77 03 69

arrasate@aek.eus

"Urtetik urtera kategoria parekatuagoa da gurea"

JOSU HERRERO FORD MUGARRI ARRASATE ESKUBALOIKO KAPITAINA

Ford Mugarri Arrasate Eskubaloit taldeak hilabete inguru egin du denboraldi-aurreko prestaketetan murgilduta, eta bihar ekingo diote 2017-2018 liga txapelketari

M. Bikuña/M.Txintxurreta ARRASATE Zaptu honetan abiatuko du Euskadiko denboraldi berria Ford Mugarri Arrasate Eskubaloit Taldeak. Deustuko Unibertsitateko Loyola taldea izango dute aurkari, arratsaldeko seietan, Iturripen.

Ate joka duzue liga txapelketa. Fin ailegatuko da taldea?

Partiduz partidu joan behar dugu. Emaitzak ateratzen joan ahala, horiek nor bere lekuan jartzen dute. Baina orain arte egindakoa positiboki ikusten dugu, eta beti da garrantzitsua liga ondo hastea, konfiantza hartzeko.

Gabonak arteko tarte erabakigarria da, ezta?

Bai. Lehenengo partiduetan puntuak batzen joanez gero, beti hobeto. Ez baduzu irabazten, konfiantza galtzen duzu. Joan den urtean, adibidez, nahiko gorabeheratsu hasi genuen liga, eta, azkenean, topatu genuen gure lekua, baina kostata.

Zegokion leku hori lortzeko asko sufritu zuen iaz taldeak.

Bai. Orduan, gainera, nik uste dut egutegiak ez zigula askorik lagundu hasieran. Basauri bezalako aurkari zailen kontra jokatu behar izan genuen, eta, bueno, uste dut aurten *lasaixeago* hasiko garela. Ligako azkenengo partiduetan Basauri, Aloña eta Urduliz izango ditugu aurkari, partidu oso garrantzitsuak izango dira.

Zaleek aurpegi berri asko ikusiko dituzte taldean?

Batzuk bai. Julen Agiriano, adibidez, joan den urtean lesioan zegoen, eta bueltan dago. Mikel Zuloaga ere itzuliko da, Tolosan ibili eta gero, eta Mikel Zubiaurre ere bai. Horrez gain, aurten goian zein behean arituko diren bigarren taldeko jokalariek ere izango dira.

Aipatu dituzunak, taldean ezagunak izanda, fitxaketa onak dira.

Bai. Gainera, esperientziadunak dira, eta horregatik fitxaketa



Josu Herrero, iazko partidu batean. IMANOL SORIANO

"AZKENENGOAREN AURKA ERE GALDU DEZAKEZU, INOIZ EZ DAKIZU ZER GERTATUKO DEN"

horiek albiste onak dira guretzako.

Goiko postuetan egotea izango da aurtengo helburua?

Ahalik eta goren egotea izango da helburua. Beti esaten den moduan, partiduz partidu joan behar dugu, norgehiagoka guztiak irabazteko asmoz. Gero, azkenengo partiduetan, ikusiko genuke ea *Final four* hori nola joaten den.

Aurten lehenbizikoz egin den igoe-ra fase hori jokatzeko ala lehenengo egin eta zuzenean sailkatzea?

Noski, hoberena izango litzateke lehen postuan bukatzea, baina horretarako asko borrokatu beharko dugu.

Zeintzuk izan daitezke zuekin batera goian egongo diren aurkariak?

Uste dut joan den urteko taldeak hor izango direla: Aloña Mendi, Corazonistas, Urduliz... Horrez gain, aurten bi talde jaitzi dira

Lehenengo Nazionaletik, Askartza eta Bidasoaren bigarren taldea, eta horiek ez dakit zer ekarriko duten. Baina besteak nik uste dut antzera ibiliko garela. Finean, joan den urtean ere liga nahiko parekatua izan zen.

Eskubaloian bizkaitarrak betidanik izan dira oso talde zailak.

Bai. Gainera, Bizkai aldera jokatzerako joatea ere zailagoa izan ohi da.

Kategoria gogorra da zuena, ezta?

Bai. Urtetik urtera geroz eta parekatuago daudela dirudi, gainera. Orain, liga formatua aldatu delarik eta lehen bostak dutelarik bukaerako fasea jokatzeke aukera, are gehiago. Azken partidura arte lehia mantentzea dakar horrek. Talde oso onak daude, eta denak berdintsu aritzen gara. Azkenengoaren aurka ere galdu dezakezu, inoiz ez dakizu zer gertatuko den.

Harrobia dagoeneko lanean hasia egongo da.

Bai. Orain, denboraldi-aurreko partiduekin ari dira. Aurten, lau talde izango ditugu, Bigarren Nazionalekoa barne. Bada, hortxe ari gara, poliki-poliki, denboraldia antolatzen eta erritmoa hartzen.

Hastapen ikastaroa egingo dute Arrasateko tailagileen elkarteak

Urriaren 2an hasita, hogeita hamar orduko ikastaro bat izango da, eta izen-ematea zabalik dago dagoeneko

M.T. BERGARA

Arrasateko tailagileen elkarteak (ARTE) hasiberriendako egur taila ikastaroa antolatu du, mundu horretan hasteko interesa duten guztiek proba egin ahal izan dezaten.

Ikastaroa tailagile elkarteak Nafarroa etorbidean, Debagoieneko Ospitalearen aurrean, daukan lekuan izango da, urriaren 2an hasita.

Hogeita hamar orduko hastapen ikastaroa izango da, eta astean hiru aldiz elkartuko dira egun bakoitzean ordu eta erdiko saioak egiteko. Tailagileen elkarteak kideen eskutik jasoko dituzte taila egiteko oinarrizko ezagutzak.

Izen-ematea

Hastapeneko taila ikastaro horretan parte hartzeko interesa dutenek 620 17 42 55 telefonora



Egurra lantzen. PINTEREST

dei egin dezakete izena emateko (Jose Mari).

Izena ematen duten guztien artean berba eginda aukeratu dute eskolak emateko asteko hiru egun horiek zeintzuk izango diren, gehiengoari komeni zaionaren arabera.

Flamenko-fusio ikuskizuna Al-Andalus elkarteak

Maledantza dantza akademiako ikasleek flamenko-fusio estiloko dantza emanaldia eskainiko dute gaur, egubakoitza, irailak 22, Zigarrola kalean dagoen Al-Andalus kultura elkartearen lekuan. Iluntzeko zortzietan hasiko da ikuskizuna, eta kultura elkarte horretako bazkideei eta interesa duten guztiei zuzenduta dago. Gaurko dantza emanal-

di hori ikusteko sarrera doan izango da.

Malena Lobo irakasleak zuzentzen duen flamenko dantza akademia da Maledantza, eta Aretxabaletan eta Aramaion ematen ditu eskolak gaur egun. Eskolak emateaz gain, emanaldiak ere egiten dituzte noizean behin.

Hilaren 22ko ikuskizun horretaz gain, aurrerantzean Al-Andalus elkarteak ere eskolak ematen hasiko direla aurreratu du Lobok.

Ikasturte berriko zinema emanaldiak bihar hasiko dira

Udako oporretako geldialdiaren ostean, Amaia Udal Antzokiko aretoko zinema emanaldiei ekingo diete berriro aste bukaera honetan.

Hala, bihar, zapatua, bi emanaldi egongo dira, 19:30ean eta 22:00etan, biak ala biak Christopher Nolanen *Dunkirk* filmarenak. Drama generokoa da eta 12 urtetik gorakoei zuzen-

duta dago. Domekan, 19:30ean, film horren beste saio bat izango da, eta astelehenean ere bai (20:30).

Umeendako eskaintzari dagozkionez, *Gru 3: Mi villano favorito* emango dute bihar, zapatua, 17:00etan, eta domekan, ordu berean.

Hurrengo asteburuan, helduendako *Kingsman: Círculo de oro* filma emango dute (urriaren 1ean 19:30ean eta urriaren 2an 20:30ean) eta umeendako, berriro, *Emoji* (urriaren 1ean, 17:00etan).



Pasa den urteko Sagardo eguneke argazki bat. IMANOL SORIANO

Sagardoaren bueltako egun dotorea domekan

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Sagardo Eguna antolatu du Udalak domeka honetarako, Aramaio Sagarzalien Elkartearen laguntzarekin; txotx irekiera Aramaio Pelota Elkarteko kideek egingo dute, eta ondoren, dantza erakustaldia egongo da

Eneko Azurmendi ARAMAIO

12:00etan emango zaio hasiera egunari, txotx irekierarekin, eta aurtan, Aramaio Pelota Elkartea omenduko dute irekiera horretan. Jaiari hasiera eman ostean, eguerdi partean eta bazkalordura arte herriko sagarzaleek sagardoa eta sagar-zukua eskainiko dute plazan. "Sagardoa egiten duten aramaioarrek euren postua izango dute plazan eta herriarrek sagardo hori dastatzeko aukera izango dute, edalontzia euro batean erosita", azaldu du Paulino Ibabek, Aramaio Sagarzalien Elkarteko kideak (ASE).

Bestalde, Lagun Artean dantza taldekoek taloak egingo dituzte plazan bertan eta salgai jarriko dituzte. 13:00etatik aurrera, dantza egiteko aukera izango da. Horrez gain, pintxoak eta txorizoak ere egongo dira.

Aurtan, ohi baino lehenago

Ibabek adierazi du sagar denboraldia aurreratu egin dela aurtan. "Aurreratuta dator frui-

tua. Normalean, hilaren bukaran hasten gara, baina aurtan hasi gara dagoeneko". Hala ere, sagar urte "oso ona" izaten ari dela azpimarratu du.

Edozeinentzat ateak zabalik

Duela hamahiru urte jaio zen Aramaio Sagarzalien Elkartea, Ibabek dioenez, eta gaur egun 28 bazkide ditu. "Edozein izan daiteke bazkide, baina %75ek, gutxienez, aramaioarrak izan behar dute. 1.500 euro ordaindu behar dira bazkide egin ahal izateko". Hala ere, ez dago bazkide izan beharrik, edozeinek eraman dezake sagarra ASEra, bertan zukua edo sagardoa egiteko. "Interesa duenak deitu besterik ez dauka -689 58 99 13-,

12:00ETAN IZANGO DA TXOTX IREKIERA ETA 13:00ETAN DANTZA EGITEKO AUKERA EGONGO DA

eta ordu bat jarriko zaio sagarrrak ekartzeko. Onena da goizean goiz ekartzea, 08:00etarako. Hala, eguerdirako zukuarekin etxera zoaz".

Ibabek dio sagar desberdinak ekartzea dela egokiena, sagardo hobia atera dadin. Horrez gain, sagar garbiak eramatearen garrantzia ere azpimarratu du. "Egokiena da zuhaitzetik hartzea zuzenean, eta, lurretik hartuz gero, sagar ustel guztiak baztertu egin behar dira. Hala ere, berriz garbitzen ditugu. Garbitasuna ezinbestekoa da hemen, produktu ona irten dadin".

Urtean, 50-60 tona sagar

Batez beste, 50-60 tona sagar egiten dituzte urtean ASEn -bi hilabete inguru irauten du denboraldiak, azarora bitartean-. "Kopuru horren %60 baino gehiago zukura bideratzen da, eta urtetik urtera haziz doa portzentaje hori. Badirudi jendea geroz eta gutxiago gustatzen zaio la sagardoa", dio Ibabek.



NIRE USTEZ

MAIDER ALDAI

Netflix

Zaratak, aldamiok eta oinezkoen ibilbidea desbideratzeko kono laranjek jan dute kalea. Alde zaharreko etxe guztietako leihoak berritu behar direla dio Udalak.

Hirugarren pisukoak ez ditu oraindik gortinak eskegi eta ez dago errezelik berean. Abdominalak egin eta entsalada afaldu zuen asteartean. Ez du egongelarik eta Netflix-en ikusten ditu telesailak gauero -bakarrik, normalean-. Katu zuri bat du eta geranioak ureztatzen ditu goizetan. Tesi bat edo liburu bat edo hiztegi baten zuzenketa egiten ari da, edo fotokopiak dohainik ditu lanean. Paper dorreak zikintzen zaizkio sukaldeko olio tantekin. Ilea luzatzen uztea erabaki zuen eta moztu du mototsa berriz ere; pena, okerre pasata zenuen. Basura poltsak ez ditu egunero ateratzen eta, nagitasunagatik edo, balkoian metatzen ditu. Ispilu bat du leiho ondoan, makillatzeko argi naturala hobia omen da.

Parez pare bizi garenoi kostako zaigu ulertzea kalean agurtzen ez gaituenean, ez dugula elkar ezagutzen. Berean Netflix-ek duen funtzioa betetzen duela berak iluntzeetan gurean.

Aitor Aranaren omenezko mendi ibilaldia bihar

Azkeneko urteetan egin ohi duten moduan, Aitor Arana zenaren omenezko mendi martxa egingo dute aurtan ere -XVI.a-, Orixol Mendi Elkartek antolatuta, bihar, zapatua. 08:00etan izango da irteera eta izen-emateak bost euro balioko du. Horretarako aukera kiroldegian egongo da, ordu erdi lehenago hasita -07:30-.

Yoga ikastaroa, Itur Zuri emakume taldeak antolatuta

Sivananda eskolako filosofia jarraitzen duen yoga ikastaroa jarriko da abian urriaren 1ean, Itur Zuri emakume taldeak antolatuta. Eguaztenetan 10:00etatik 11:30era izango dira saioak, martitzenetan 18:30etik 20:00etara eta egubakoitzetan 18:00etatik 19:30era; azkenik, domeketan 19:00etatik 20:30era. Kuotari dagokionez, hilean saio bat 25 euro, bi saio 35 euro eta hiru saio 45 euro. Bestalde, irailean bi saio egongo dira probatzeko edota sasoiaren jartzeko: hilaren 26an -martitzena-, 18:30ean eta 29an -egubakoitza-, 10:00etan.

Izena emateko aukera ondorengo telefonora deituta egongo da: 626 00 81 51 (Rocio).

Inhar Amenabarrek ezin izan zuen lasterketa bukatu

Inhar Amenabar -Renault 5 GT Turbo- pilotu aramaioarrak ezin izan zuen etxeko lasterketa amaitu pasa den zapatuan. "Azkenengo txandan kolpe bat hartu nuen bide izkinaren aurka. Autoaren kolpe-leungailua ere lurrera erori zitzaidan eta ez erabaki nuen ez bukatzea. Hala ere, autoak ez du gauza handirik", adierazi du Amenabarrek.

Zenbait zuhaitz mozketa, linea elektrikoak dela eta

Ondorengo egunetan hasiko dituzte zuhaitzen mozketa eta inausketa lanak behe eta goi tentsioetako lineen inguruan. Izan ere, Udalak zenbait arrisku ikusten ditu; zuhaitzen ondorioz matxuraren arriskua edo suteen arriskua txikiagotzea, esate baterako.

Lan horiek Eskoriatzako Razkin enpresak egingo ditu, eta aste honetatik urriaren amaiera arte iraungo dute.

Udalak, bestetik, ohar bat helarazi nahi izan die herriarrei eta ohar horretan adierazi du lanek irauten duten bitartean "argi-mozketa txikiak" egon ditezkeela gune batzuetan, "langileen segurtasunagatik".



Ganadua, Aramaioko larreetan. ENKO AZURMENDI

Ganaduzaleen jardunari aitortza bat eman guran

HAZI fundazioak Life Oreka Mendian izeneko proiektua martxan du iaztik, mendiko larreen kontserbaziorako estrategia bat garatzea helburu duena; orain, Aramaioko Udalak bat egin du ekimenarekin, eta hainbat ekintza abian jarri ditu dagoeneko

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Eusko Jaurlaritzak HAZI fundazioaren bitartez zuzendutako proiektua da Life Oreka Mendian, Europar Batasunak diruz laguntzen duena.

Esan bezala, mendiko larreen eta mendiko garanduen arteko oreka bilatzea da proiektu horren helburua. "Europar Batasunetik datoz neurri batzuk larreei eta larreetan lan egiten duten ganaduzaleei balio bat emango dietenak. Azken finean, mendia eta ganadua balioan jartzen duen proiektua da", adierazi du Aitor Larrañagak, Ingurumen teknikariak.

Aramaioko Udalak gaiarekiko interes berezia erakutsi du eta HAZI fundazioarekin bildu ondoren, proiektuarekin bat egitea erabaki du. Hala, ekimenera batu diren beste hainbat udalerritako ordezkariarekin batera, Aramaioko ordezkariak ere HAZI fundazioko kideekin batu dira, gaiari lotuta herrian dauden beharrak zeintzuk diren ikusi

eta behar horiek nola ase daitezkeen aztertzeko. "Gaia mahai gainean jarri dugu eta egin duguna da adierazi bakoitzak bere lurraldean ganadua ze baldintzatan daukan eta baldintza horiek aztertu ondoren, ikusi nola mantendu edo hobeto daitezkeen baldintza horiek", zehaztu du Larrañagak.

Hainbat behar

Diagnostiko hori egin ostean, Aramaion hainbat behar agertu dira, Larrañagaren esanetan. "Larre horiek eta paisaia hori mantentzeko azpiegitura batzuk behar dituzte ganaduzaleek: askak, iturburuak, txabolak, paso kanadarrak, eta abar. Horiek dira behar garrantzitsuenak".

UDALAK GAIAREKIKO INTERES BEREZIA ERAKUTSI, ETA PROIEKTUAREKIN BAT EGITEA ERABAKI DU

Behar horien jakinaren gainean dago HAZI fundazioa. "Guk gure beharrak detektatuta ditugu eta dagoeneko helarazi dizkiogu fundazioari. Espero dugu banaketa justua egingo duela laguntzarekin, proiektuak martxan jartzeko aukera izan dezagun".

Oraingoz, proiektu bat aurrera eraman da; izan ere, Europak babestutako larre habitataz aztertzeko lau kaiola ipini dituzte Arangion. Kaiola horiekin, larreetan hazten diren belar espezie ezberdinen azterketa egingo dute, zein produkzio duten ikusteko.

Lau urteko proiektua

Europar Batasunak lau urtez lagunduko du egitasmoa. Hala ere, diruari baino gehiago, ganaduzaleen arteko elkarlanari eman nahi izan dio garrantzia Ingurumen teknikariak. "Lau urtetan behar berriak agertuko dira. Elkarlan bat hasi dugu eta horrek bere fruituak emango ditu, diruaz aparte".

Kuadrillan indarkeria matxistak duen egoera aztertu dute

2016an egin zuten diagnostikoa, eta hilaren 26an, martitzena, aurkeztuko dituzte emaitzak, Zuian

E.A. ARAMAIO

Arabako zenbait eskualde ari dira emakumeen aurkako indarkeriaren errealitatea ezagutzera bideratuta dagoen proiektu bat aurrera eramaten, eta Gorbeialdeko Kuadrilla horietako bat da. 2016an egin zen indarkeria matxistaren gaineko diagnostikoa, eta emaitzak aurkeztuko dituzte datorren martitzenean, irailak 26, Zuiako Oregi Etxean, 19:00etan.

"Diagnosi honen aurkezpenari esker, datuak, emakumeen ibilbideak, prebentzio zerbitzuak eta bestelako datu interes eta garrantzitsuen berri izango dugu", azaldu du Kuadrillak.

Berdintasun foroa, 29an

Bestalde, Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak, XIV. emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako gunea

martxan jarri du; erakunde publikoek eta pribatuek gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde antolatzen dituzten hainbat ekimenen urteroko topaketa.

Aurten, 2017ko irailaren 25etik abenduaren 15era izango da. Autobus ibiltari bat EAEko herrietara helduko da eta gunearen ekitaldien lekua izango da.

Hala, autobus ibiltaria irailaren 29an, egubakoitza, iritsiko da Aramaiora, eta eskolako gazteak bertara gerturako dira, berdintasunari buruzko tailerrak egitera eta formazioa jasotzera, berdintasun teknikari aditu baten eskutik.

2017 Guneak Martxoaren 8ko kanpainaren lelo bera izango du: *Berdintasuna nire baitan ere hasten da*: "Pertsona guztiok daukagun erantzukizunarekin, eguneroko ekintzen eta jarrerren bidez, berdintasuna bultzatzeko".

Bertso eskolan izena emateko aukera zabalik dago

Aramaioko bertso eskolan izena emateko epea zabalik dago, ikasurte berriari ekiteko. Beraz, bertsoarekiko zaletasuna dutenei edota bertsoan ikasi nahi dutenei dei egin die bertso eskolak bertan izena emateko. Urriaren hasierara arte egongo da horretarako aukera 615 73 92 55 (Manex) edota 688 62 70 89 (Xabi) telefonoetara deituta.

Trikitia edo panderoa jotzen ikasteko aukera aurten ere

Panderoa nahiz trikitia jotzen ikasteko gogoia duen edozeinek aukera izango du urriaren 20tik aurrera. Izan ere, orduan hasiko dute ikasturtea eta eskolak egubakoitzetan eskainiko dituzte. Trikiti elkarteak izena ematera animatu nahi ditu herritarrrak. Horretarako aukera *trikikalejira@hotmail.com* helbidera idatzita egongo da.

Kantu tailerrean izena eman daiteke dagoeneko

Jubilatuaren Elkarteak kantu tailerra antolatu du eta interesatuek bi telefono hauetakoren batera deitu beharko dute izena emateko: 675 00 88 21 (Bittor) edota 605 72 05 31 (Cristina).

Hilean hiru saio izango dira eta lehena urriaren 6an izango da (egubakoitza), 10:00etatik 11:30era bitartean, erretiratuen lokalean.

Sorkunen kontzertu akustikoa gaur, egubakoitza, Sastiñan

Sorkun abeslariak eta Mikel Romero gitarra-joleak kontzertu akustikoa eskainiko dute gaur, 19:30ean, Sastiñan. 2018rako disko bat argitaratzea aurreikusten du Sorkunek, *Ziklomorphosia* albuma argitaratu zuen talde berarekin. Horren aurretik, baina, hainbat kontzertu eskainiko ditu formatu akustikoan. Horietako bat izango da gaurkoa.



Loramendi eta UDA elkarteak kideak eta Udaleko Euskara Saileko ordezkariak egitasmoaren berri ematen. MIRARI ALTUBE

Euskara lehen mailan egon dadin lanean

'Euskara lehen mailara' egitasmoa aurkeztu dute Loramendi euskara elkarteak eta Aretxabaleta kirol elkarteak, Udalaren babesarekin. Herriko umeen eta gazteen artean euskara bultzatzea da helburua eta lan-ildo bi jarriko dituzte abian aurtan

Mirari Altube ARETXABALETA

Loramendi euskara elkarteak eta UDAn elkarrekin landutako *Euskara lehen mailara* egitasmoa aurkeztu dute astean. Herriko umeen eta gazteen artean euskarak duen egoerarekin kezkatuta elkartu dira biak, jakinik, UDAn bueltan 500 kirolari inguru eta beste horrenbeste guraso elkartzen direla.

Lanerako gogotsu

Agurtzane Elkoro UDAn presidentea lanerako gogotsu agertu da: "Euskararekiko kezka aspalditxoan dugu; geure kabuz euskara bermatzeko pausoak eman ditugu eta zuzendaritzako kideok ere jarrera aktiboa izan dugu. Baina orain, pauso bat aurrerago emateko gertu gaude, kontuan hartuta UDA tresna aproposa izan daitekeela euskararen aldeko jardunean".

Loramendiko kideek "pozik" hartu dute UDAn lanerako gogoia, eta biek bat eginda hainbat proiektu jarriko dituzte abian.

Bi lan-ildo 2017an

Urtea bukatu bitartean bi ildotan egingo dutela lan iragarri dute: batetik, bideo-elkarrizketak egingo dituzte. Herriko hainbat kirolarirekin elkarrizketa laburrak grabatuko dituzte, hilabeteetan bat, eta gero, sare sozialen eta komunikabideen bitartez zabaldu. Kirolarien esperientziak eta bizipenak jasoko dituzte elkarrizketa horietan, eta euskara ere izango da elkarrizketako gai. Urtea bukatu bitartean, honako kirolari hauekin egongo dira: Beñat Etxabe, Lore Etxeandia, Markel Uriarte eta Oihana Aldaierkin. "Kirolariek gazteen zat duten erreferentzialtasuna baliatzea da helburua, hauen artean euskarari prestigioa eta

BIDEO-ELKARRIZKETAK GRABATUKO DITUZTE HERRIKO HAINBAT KIROLARIREKIN, ETA GERO, ZABALDU

indarra emateko", adierazi du Iñigo Iñurrategik, Loramendiko presidentea.

Bestetik, trebakuntza saioak eskainiko dizkiete kirol elkarteke hezitzaileei. "Entrenatzaileak euren erreferentzialtasunaz kontziente egin eta euskararekiko jarrera aktiboa bultzatzea da helburua. Baita entrenatzaileei euskararen erabilera bultzatzeko baliabideak eta tresnak ematea", jakinarazi du Iñurrategik. Hiru saio egingo dituzte udazkenean.

Udalaren babesa

Abian jarritako egitasmo hori "oso interesgarria" dela adierazi dute Udaleko Euskara Saileko kideek, eta babes osoa eman diote. Izan ere, euskararen erabilerraren azken kale neurketan, gazteen artean, elkarrizketen %40,5 bakarrik jaso ziren euskaraz: "Eskola eremutik kanpo gaztelerarako joera handia dute; hori irauliko duten egitasmoak sustatuko ditugu", esan du Aitor Gabilondok, Euskara zinegotziak.

Irteerak, moda desfilea eta gehiago, Basotxok antolatuta

Ekitaldi mordoak izango dituzte astelehenetik egubakoitzera bitartean egingo duten Kultura Astean

M.A. ARETXABALETA

Azken urteotan legez, iraileko azken astearekin batera dator Basotxo erretiratuen elkarteke Kultura Astea.

Astelehenean, irailaren 25ean, Errioxara joango dira eta Guardia eta inguruak bisitatuko dituzte (09:00-19:00). Martitzenean (09:30), mendi irteera egingo dute Apotzaga aldera, Jesus Osinagak gidatuta. Eta arratsaldean (18:30), dotore jantzi eta Basotxo inguruan jarritako alfonbra gorriaren gainean jardungo dute Aretxarterekin batera antolatu-

tako moda desfilean. Eguaztenean, Oñatiko Arrikruz kobak ezagutzera joango dira (09:30-13:30); iluntzean, kantuan egingo dute Aretxabaletako kaleetan.

Eguenean (18:00), txokolate-jana izango dute, txistulariek eta dantzariak girotuta, eta H. Kinta Y Ku taldeak dantzan jarriko ditu erretiratu guztiak. Astea bukatzeko, irailaren 29an (17:15), gazta dastatzea eskainiko die Felix Ajuria gaztagile otxandiarak. Horrez gain, eskulanean erakusketa izango da aste osoan erretiratuen elkarteak.



M.A.

25 urteak jai giroan ospatzen

Aratz elkarteak ospakizunetan murgilduta dabil egunotan. Eguaztenean musikarekin girotutako pintxo-potea eskaini zuten, eta antzerkiarekin aktore galantak direla erakutsi zuten atzo. Gaur, batukada doinuak eroango dituzte kaleetara, eta bihar, ekitaldi nagusia izango dute, 11:30ean, Arkupen. 13:00 aldera, Oihulari Klownek jardungo du kaleetan, urteurrena agurtzeko.

Sanmigeletako kantu afaria eta bazkaria, herritarren zain

Aurtan ere kantu afaria izango da sanmigeletan Herriko Plazan, eta, izena emateko, astelehenean, hilaren 25ean, Arkupera joan behar da, 09:00etan. Pertsonako euro bat eskatuko dute.

Bestetik, zapatuko herri bazkariako txartelak salgai daude Gurea eta Urbaltz tabernetan; nagusiek 18 euro ordaindu behar dute eta umeek, 12 euro.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Herritarren parte hartzea ordenantzan araututa

lazko ekaina ezker lantzen jardundako parte-hartze ordenantza aho batez onartu zuen udalbatzak, "demokrazian sakontzen laguntzeko" asmoarekin. Horrekin batera, Katalunia izan zuten mahai gainean eguaztenean egindako osoko bilkuran

Mirari Altube ARETXABALETA

Ezohiko osoko bilkura egin zuen eguaztenean udalbatzak, eta Katalunian bizi duten egoera izan zen bilkurako gai nagusia. Horrekin batera, 2016ko ekaina ezker lantzen jardun duten parte-hartze ordenantzari behin-behineko onespina eman zioten.

EH Bildu pozik agertu zen ordenantza berriarekin: "Erreminta garrantzitsua sortu dela uste dugu, herritarrek udal egituretan parte har dezaten eta demokrazian gehiago sakondu. Bide bat zabaldu da, dokumentu bat sortu da, eta orain martxan jarri behar da hau, eta martxan jartzeko behar dira gogoia eta borondate politikoa", adierazi zuen Irati Pagoaga zinegotziak.

Ordenantzak dioen lez, helburua da demokratizazioan sakontzeko marko legala zehaztea; batetik, herritarren parte hartzea arautu eta sustatzeko, eta bestetik, udal egituraren gardentasuna bermatzeko: "Udalaren konpromisoa, beraz, demokrazian sakontzen lagunduko duen parte-hartze sistema sortzea da", dio araudiak. Unai Elkoro alkatearen esanetan, herritarrek ez dute alaketarik igarriko: "Orain ere iritzia emateko eta Udalean parte hartzeko aukera badute, baina eskubide batzuk bermatuko ditu horrek". Aho batez onartu zuten udalbatzako kideek eta hilabetez egongo da orain ikusgai; helegiterik izan ezean, behin betiko onartuko dute.

Kataluniari babesa

Katalunian bizi duten egoerarekin kezkatuta, EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen *Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat, Independentzia* izenarekin. Horren helburua zen "babesa adieraztea" Kataluniako parlamentuak egin gura duen erreferendumari eta "salatzea Espainiako Estatutik jasotzen dabilzan erasoak". Hainbat konpromiso hartzeko eskatu



Udalbatzako kideak elkartuta, Kataluniako estelada bertan dela. MIRARI ALTUBE

EH BILDUK AURKEZTUTAKO KATALUNIAREN ALDEKO MOZIOA EZ ZUTEN ONARTU

zuten, mozio bidez; besteak beste, prozesu politikoaren alde egiteko konpromisoa, Herriko Plazan dagoen ikurrinarekin batera estelada jartzeko erabakia eta Katalunian erasoak jarraituz gero herritarrek mobilizatzea deitzeko konpromisoa. "Egoera oso larria da. Estatu espainiarrekin ezinezkoa da eztabaida bat abiaraztea; hori ez da demokrazia, eta ezin da onartu. Horren aurrean erantzun irmoa, bateratua eta koherentea eman behar da", zioen Ion Albizuk.

Irabaziko Luis Mariano Gomez ere mozio horren alde agertu zen: "Espainiako Gobernuak oinarritzko eskubideak urratu ditu eta oso larria da hori. Elkarrikeria politikorako dei egiten dugu arazo politikoak era baketsuan konpontzeko".

Jeltzaleek, oster, aurka bozkatu zuten. "Mozioak dioen gehie-

narekin ados gaude, baina ez Udalak mobilizazioetara deitzearekin", argitu zuen alkateak. Eta Miren Lorea Lana sozialista ere aurka agertu zen: "Erreferendum horrek ez du inolako berme demokratikorik". Mozioa ez zen onartu, baina EAJkoek ere bat egin zuten EH Bilduk deitutako elkarretaratzearekin eta Herriko Plazan izan ziren beste aretxabaletar askorekin batera.

GED ere Kataluniarekin

Galdera eta eskaeren atalean mozio bat aurkeztu zuen Gure Esku Dago taldeak. Kezkatuta agertu ziren: "Katalanen bozkatzeko nahiari eta erabakitze eskubidea erabiltzeari Espainiatik iragartzen ari diren erantzun demofobikoekin arduratuta gaude", eta "babesa eta elkartasuna" adierazi zioten Kataluniako herriari zein erakundeei. Mozio hori aho batez onartu zuten.

Bukatzeko, Irabaziko Gomezek merkataritaren kexa jarri zuen mahai gainean: "Andramaixetan umeen artean banatutako izozkiak kanpoko enpresa batetik ekartzea ez da begi onez ikusi".

Hainbat kirol jarduera ezagutzeko eta egiteko aukera dago bihar

Europako Kirol Astearekin bat egingo dute kiroldegiko kideek eta herritarrek mugitzera animatu dituzte

M.A. ARETXABALETA

"Europako Kirol Astea dela eta, hainbat jarduera herritarren eskura jarri gura izan ditugu", adierazi dute Ibarra kiroldegiko kideek. Areto txirrindularitza, xunba eta saskibaloia egokitua ezagutu ahal izango dituzte zapatuan, eta lehenengo biak egiteko aurrez izena eman beharra dago kiroldegira deituta (943 03 98 42).

Eguraldi txarra izanez gero kiroldegian egingo dituztela jarduera guztiak iragarri dute antolatzaileek.

Jarduerak

Areto txirrindularitza

• 10:00-11:00. Herriko Plaza.

Saskibaloia egokitua

• 11:00-12:30. Iturrigorri pilotalekua.

Xunba

• 12:30-13:30. Herriko Plaza.

Mokadutxo

• 13:30-14:30.



M.A.

Bizikletak edonorendako

Bizikletak, patineteak, patinak eta beste hainbat ibilgailu, 67 guztira, jaso zituzten Mugikortasun Astearen barruan egindako bizikleta azokan. Jaso bakarrik ez, saldu ere mordo, azoka zabaldu orduko, gainera. Zulatutako gurpilak konpontzen irakatsi zuen Mikel Lizarralde, beste urte batez, eta hainbat herritarrek bizikleta elektrikoak probatu zituzten.

2016an jaiotako bertsu libururako izen-ematea bukatze

Lekaixoka bertso eskolakoek aurrean ere argitaratuko dute umeendako bertso liburua. 2016an jaiotako neska-mutikoen argazkiak jasoko dituzte, eta bertso bana eskaini. Oraindik izenik eman ez duten interesatuek irailaren 30a dute azken eguna. Lekaixokako kideei mezu bat bidali lekaixoka@gmail.com - umearen datuak emanaz, argazki batekin batera.

Bizikletak konpontzeko ikastaroa Loramendirekin

Bizikletak zelan konpondu irakatsiko du Beñat Kortabarria aretxabaletarrak urrian, Loramendi elkarteak antolatuta: neurriak doitu, zulatutako konpondu, mantentzea... Hiru egunetan izango da, udaletxe zaharrean (18:30): urriaren 4an, 9an eta 18an. Izena emateko Loramendira jo loramendielkartea@gmail.com, 685 75 67 29-.



Iaz egindako Garagardo Azokan batutako kuadrillatxoak garagardoa edaten. GOIENA

Musikaz beteta dator Garagardo Azoka

Atzo, eguna, Oñatiko 'Supituki' umore saioarekin ireki zuten Jose Arana zaharren egoitzari diruz laguntzeko Garagardo Azoka solidarioa. Hala ere, domekara arte egongo da irekita karpa, eta gaur eta bihar musika izango da nagusi

Imanol Beloki ESKORIATZA

Atzo ireki zituzten Jose Arana zaharren egoitzari diruz laguntzeko Garagardo Azoka solidarioa. Urteroko egitarauari jarraituz, hainbat garagardo mota, jaki alemaniarak, oilaskoak, ukondoak, patata-tortillak, eta abar izango dira, eta herriko elkarte eta norbanakoak ardura-tuko dira bertaratzen direnei

zerbitzatzeaz. Aurten, gainera, giroa handitze aldera, egitarau zabalagoa prestatu dute; batez ere, musikak hartuko du protagonismoa.

Atzo, Oñatiko Irazan Antzerki Gunekoek inprobisazioan oinarritutako *Supituki* antzerki emaldia egin zuten. Umorea oinarri izanda, alaitasunez, irekiera bikaina emateko asmoz. Gaur

eta bihar, berriz, musika izango da nagusi Fernando Eskoriatza plazan jarri duten karpan. Honela azaldu du Dorleta Sologaitoak, Jose Arana zaharren egoitzako zuzendariak: "Gaur eta bihar kontzertuak izango ditugu. Ilunkeran bat eta afalostean beste bat, bertaratzen direnei lasai afaltzeko tarteak utziz". Gaur, 17:00 aldera, urtero moduan, egoilia-

rrak gerturatuko dira plazara karpako giroan murgiltzeko asmoz. Hala, 18:00etan, Arantxa eta Pantxoren habaneroak, boleroak eta Mexikoko kantak entzuteko aukera izango da. 22:30ean, berriz, Imanolek eta Unaik trikiti doinuak jarriko dituzte dantzarako gogoia pizteko asmoz, eta zapatuan, Blue Mood taldea izango da lehenengo, 19:30ean, eta 23:00etan, Txerrikumeak eta Jasan taldeen txanda izango da.

Bigarren faseko lanekin "pozik"

Zaharren egoitzako lanak duela gutxi amaitu zituzten, eta Sologaitoak azaldu du "oso pozik" daudela bertan egin diren aldaketekin, batetik, egoiliarak, eta bestetik, bertako langileak. "Behereko solairua berritu egin dugu; aldagelak, botikina eta atsedenez gela egin ditugu". Lanak ikuste-

ko, gainera, ate irekiak antolatu dituzte gaurko. "Beti dago aukera zaharren egoitza bisitatzeko, baina, ate irekiak jarritz, herri-tarrak lanak ikustera animatuko direlakoan gaude".

Hirugarren faseko lanak hastear

Hirugarren faseko lanak hastear daude, eta, obra horretan, lehenengo solairua konponduko dute. Hain zuzen ere, gelak berritu egingo dituzte, komunak jarri, lurra aldatu -zaharkituta dago-, eta bertan dagoen egongela bat atondu.

Lanak amaitzen dituztenean, balorazioa egingo dute, Garagardo Azoka herrian erroto den egitasmoa bada ere, berriz antolatuko ote duten erabakitzeko. "Etorkizunean ez dakigu azoka antolatzen jarraituko dugun. Baloratu egin beharko dugu..."



Bigarren fasea, onuraz beteta

Bigarren faseko lanak egiteko, 180.000 euroko aurrekontua behar izan dute, baina, lanak amaituta, egoitzan aurrerapauso handia egin dute. Poliki-poliki eraikina berrituz, egoiliarren eta bertako langileen egunerokotasuna hobetu egin da.

Hainbat hitzordu falta dira Mugikortasun Astea amaitzeko

Gaur, kale animazioa egongo da, eta goitibehera tailerrarekin eta Apotzagako jaitsierarekin bukatuko da

I.B ESKORIATZA

Pasa den domekan egindako bizikleta martxarekin eman zioten hasiera Eskoriatzako Mugikortasun Asteari.

Eskoriatzako eta Aretxabale-tako 60 lagun inguru batu ziren

Bañuexen, Urkulura bidegorriko bidetik igotzeko. Urtegiari bira eman, eta Arientzatik bueltan jaitsi ziren. Goizari amaiera emateko, berriz, Torrebason hamaiketako egin zuten. Ekin-tza horretaz gain, beste hainbat

hitzordu ere izan dira Eskoriatzan. Atzo, esaterako, *Seguru baietz* autobusa izan zen plazan eta gaur, berriz, 19:30ean, kale animazioa izango da, Lur Korta aktorearen eskutik.

Mugikortasun Asteari amaiera emateko, berriz, goitibeherak izango dira nagusi. Bihar, 15:00etan, Txistularien Arratean tailerra egingo dute, Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldekoen laguntzarekin, eta irailaren 30ean Apotzagako goitibehera jaitsiera jokatu da.



Urkulura bizikletan igo ziren hainbat herritar bidegorrian gora. IMANOL SORIANO

Gaztelekua zabalik, eskaintza handiarekin

Irailaren 16an zabaldu zituzten Eskoriatzako gaztelekuko ateak, eta hango hezitzaileek gonbidapena egin diete herriko nerabeei bertara daitezen. Aurten, gainera, ekintza berriak egin nahi dituzte; betiere, gazteekin batera antolatutakoak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Irailaren 16an zabaldu zuten Eskoriatzako gaztelekua, eta nerabeek dagoeneko aukera dute aste bukaeretan hara joan eta antolatzen dituzten ekintze-kin disfrutatzeko. Hezikidetzak, aniztasuna, euskara eta harremanak oinarri izanda, jolasteko eta aisialdirako txoko erosoak sortzen jarraitu nahi dute ikasurte honetan.

Iazko ordutegi bera izango du aurten ere: egubakoitzetan 17:00etatik 20:30era eta zapatuetan eta domeketan 16:30etik 20:30era bitartean. Aurten, gainera, erronka berriak dituzte bertako hezitzaileek. Honela azaldu du Iratxe Arrese, Eskoriatzako gaztelekuko hezitzaileak: "Gazteendako zabalik ditugu ateak, eta lasai etortzeko dei egin nahi diegu, ez baitago izenik eman beharrik. Bertan, mahai-futbola, ping-ponga, Wii-a, sukaldeak, pelikulak ikusteko, musika entzuteko eta lasai egoteko txokoak eta euskarazko mahai joko ugari ditugu. Horrez gain, ekintzak egiten ditugu, tailerrak, irteerak, eta abar. Aurten, orain arte funtzionatu duten ekintza batzuk errepikatu egingo ditugu, eta berriak ere txertatuko ditugu gure plangintzan".



Izaskun Besada eta Iratxe Arrese hezitzaileak iazko argazkigintza tailerrean. IRATXE ARRESE

Iraila eta urria prest

Hilabete honetarako eta hurrengorako, sukaldaritza, fimo eta talo tailerrak prestatu dituzte, eta *Hi selfie!* lehiaketa egingo dute, iaz bezala. Edozelan ere, gazteekin batera antolatuko dituzte ekintza guztiak, betiko moduan.

Urrian ekintza berezi bat egin nahi dute, gainera. Iaz, *paintball*-a egitera joan ziren, eta aurten ere irteera bat egitea pentsatu dute. "Urriko irteera Aretxabaletakoekin batera egingo dugu, baina ikusi egin behar-

ko dugu gazteek zein proposamen egiten duten. Talo tailerra, berriz, San Migel jaietan Aretxabaletan egingo da...".

Gaba Beltza, berezia

Irailaren 30ean ospatuko dute Gaba Beltza, gaztelekuan, baina aurten berezia egin nahi dute. "Udalarekin eta Tortolis ludo-tekarekin batera antolatu dugu aurten. Gazteekin su jokoei elkartuko gara, baina, gazteendako ez ezik, herri guztiarendako zabalduko dugun ekintza izango da".

Guraso Eskolan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago

Hezkuntza Foroak antolatuta, Guraso Eskola martxan jarriko dute. Nerea Mendizabal izango da eskolaren gidaria, eta haurren autoestimua, hura nola sustatu, mugak nola jarri, eta halako gaiak landuko dituzte. Azalpenak euskaraz izango dira, eta izena eman nahi duenak kultura etxera 943 71 46 88 telefonora deituta egin dezake.

Arrakastatsua izaten ari dira aurtengo kontakizunak

Eskoriatzako Ostegun Bidaiariak egitasmoaren barruan Iker Zugastik egin zuen lehenengo kontakizunean 70 lagun inguru batu ziren, Zaldibarren. Eguaztenean bigarrena izan zen, eta hura ere arrakastatsua izan zen. Hain zuzen, datorren egunean Oihana Irazuk Nepalera egindako bidaiarekin itxiko da aurtengo egitasmoa.

Etzi, domeka, erretiratuei omenaldia egingo diete

Erretiratuei omenaldia egingo diete domekan, Joseba Inurragi pilotalekuan. 65 urtetik gorako 200 pertsona inguru batu dira, giro ederrean bazkaltzeko asmoz. Gainera, bazkari-ara doazen artean zozketa egingo dute, eta hainbat udal ordezkari 30-40 sari inguru banatuko dituzte. Horrekin batera, dantza ere egongo da.

LEINTZ GATZAGA



Iturburuaren prozesuaren lehenengo saioan batutakoak. JOANNES MENDIZABAL

Iturburuaren prozesuaren barruan, lehen pausoa eman dute

Eguaztenean egin zuten 'Iragana, gata eta etorkizuna' proiektuaren lehenengo lan-saioa arrakastatsua izan da

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Iragana, gata eta etorkizuna proiektuko lehenengo urratsa eguaztenean egin zuten gatzagarrrek. *Iraganetik etorkizuna proiektatz* lelopean, bilera irekia izan zen kultura etxean. Bertan, Azitiker Soziologia Ikerlariaren Aholkularitzako bi kide izan ziren saioa gidatzen; udal ordezkariak, elkartetako ordezkariak eta hainbat herritar, guztira, 30 lagun batu ziren.

Bileran egindakoa honela azaldu du Joannes Mendizabalek, Kultura zinegotziak: "Azken urteetako gertaera garrantzitsuak

zerrendatu genituen 70eko hamarkadatik gaur egunera arte. Herriak dituen onurak eta hobetu beharrekoak zerrendatu genituen, banaka lehenengo, eta taldeetan ondoren. Azkenik, etorkizunera begirakoak aztertu genituen... ordu eta erdiko saioan".

Bigarren urratserako deia

Bigarren urratsa irailaren 27an izango da, kultura etxean, eta gatz iturburuaren proiektua ondo ezagutzeko eta ekarpenak egiteko saioa izango da. Hala, gazteei ere dei egin nahi die Udalak, bertara daitezen.



JOKIN BEREZIARTUA

Pilota finalean, Karra Elejalde

Irailaren 17an jokatu ziren Dorletako Ama Pilota Txapelketako finalak. Aurten, oso gonbidatu berezia ekarri du Mauri Zubillagak sari banaketara: 14 urte bete arte Leintz Gatzagan bizi izan zen Karra Elejalde aktore ezaguna. Azken bi urteetan ezin izan da etorri, baina aurten ez du hutsik egin, eta pilotari gazteei sariak banatu zizkien.

SANMIGELAK 2017




**OÑATI
JAIETAN!**



- EGITARAUA
- JAIK ATEBURU BAKARREAN
- KEN ZAZPI, JAIETAKO IZARRA
- TXOSNAGUNEA, EREMU NAGUSIA
- DANBORRAK ETA MOZORROAK
- HERRI EGUNA
- PILOTA
- TXAPELKETAKO FINALAK

IMANOL SORIANO



gelatru s.l.

*ONDO PASAU
SANMIGELAK!*

Zubillaga auzoa 1 - OÑATI • Tel.: 943 71 63 22 - Faxe: 943 78 15 51

AGURRA



MIKEL BIAIN
OÑATIKO
ALKATEA

Udabarri inguruan jaixak auzorik auzo hasi ostian, udazkenara arrimauaz goiaz eta herriko jai nagusixekin aurtengo denboraldixari bukaera eder bat emun biharko dostegu! Esku artian dakotzun egitarau hau berau izan bedi gure herriko jai nagusixen aurkezpen eta gonbite!

Jare deigun ordu batzuz alde batera lantegiko nahiz etxeko lanak eta murgildu gaittezen danok jai betian.

Askotarikuak dia aurtien be jai egitarauian aurkituko ditzuzuen ekitaldixak. Ez da samurra danon gustora josittako egitaraua egittia, baina esku artian dakotzun egitarau honetan eskeintza ahalik eta anitz nahiz zabalena luzaketako saiakeria egin da, eta, alde horretatik, Udalaren izenian esker onik beruena helarazi gura nosterke herriko jaixak gero eta parte hartzailiaguak eta herrikoiaiguak izate aldera lan egin dauein danori.

Lerro honein bittartez, arrazoi ezberdinak tarteko, herriko jaixak kalia, gure artian, pasaitteko aukerarik eukiko ez daueinak be gogora ekarri gura nittuke. Besarkada bero bana zuendako.

Gozatu daigun jaixak, eta uxatu gorputzeko kezka neke eta ardurak, bakoitzak beretik jaixari bere ekarpena egiñaz. Jardun deigun danok neurri egokixan, inguruko pertsonetikiko eta ingurumenarekiko errespetuz.

Gora San Migel eta Errosoixa Jaixak! Gora Herrixa!

EGITARAUA

EGUBAKOITZA 22

22:30 IKER MARTINEZEN eta RUPER ORDORIKAREN KONTZERTUA gaztelekuan. Sarrerak: 8 euro.

ZAPATUA 23

10:00 San Migel PITCH AND PUTT TXAPELKETA, Irelore Pitch And Putt golf zelaian. Antolatzailea: Irelore Golf Eskola.

12:30 'ATSOLORRA': urtean zehar jaiotako HAURREI ONGIETORRIA, udaletxeko batzar areto nagusian.

DOMEKA 24

KILOMETROAK 2017

10:30 NAZIOARTEKO 58. ARTZAIN TXAKURREN TREBETASUN LEHIAKETA, Santa Lutzian.

12:00/13:00/15:30 Oñatiko historia ezagutzeko antzezlan, Zumeltzegi dorrearen aurrealdean, Sancti Spiritus unibertsitateko klaustroan eta Lazarraga jauregiko lorategian. Antolatzailea: Olaiturri Kultur Elkartea.

EGUAZTENA 27

17:00 Iruberri plazaren muntaia herrikoia txosnagunean.

BEGI BISTAN ARGAZKI ERAKUSKETA, Ilunpetan argazki taldeak antolatuta, plazan. Urriaren 7a arte.

EGUENA 28

SAN MIGEL AOZARAZA EGUNA

18:00 Txapela buruan eta dantza munduan EIDABE taldearen HAUR IKUSKIZUNA, plazan.

18:00-21:00 BELDUR BARIK GUNEA, Unibertsitate etorbidean.

19:15 'ENTRE CUATRO TIEMPOS' IKUSKIZUNA, Laglo Zirkdantza & Compañía, San Migel parrokiako kanpandorrean.

19:30 UROLATARRAK TXARANGA herriko kaleetan, txosna batzordeak antolatuta.

20:00 TXANTXIKUAREN JAITSIERA, jaiet hasiera emateko.

20:05 PINTXO-JATEA, txosnagunean.

20:15 AMAIA TXINTXURRETAREKIN disko festa, plazan.

23:00 DANBORRADA NAGUSIA herriko kaleetan zehar. Amaiera plazan izango da.

00:00 *Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideak errespetatu: MANIFESTAZIOA*, plazatik abiatuta.

Ondoren AMAIA TXINTXURRETAREKIN disko festa, plazan.

00:00-03:00 TESTINGa txosnagunean, Ailaket elkartearekin.

02:00 KARAOKEA, txosnagunean.

EGUBAKOITZA 29

SAN MIGEL EGUNA

06:00 DJ BOLLO, txosnagunean.

08:00 TXOKOLATE-JANA, txosnagunean.

08:00 DJ OSAKAREKIN KALEJIRA, txosna batzordeak antolatuta.

09:00 Txistularien GOIZ-ERESIA.

11:00 Herri mailako PLATER TIROKETA, Txopekua tiro-zelaian –armak edukitzeko baimena eta Federazioaren lizentzia behar da–.

11:00-14:00 BELDUR BARIK GUNEA, Unibertsitate etorbidean.

11:00-19:00 'GAZION EGUNA': eskubalo txapelketa, bazkaria txosnagunean, jolasak, *kolore festa!*...

12:00 MEZA NAGUSIA San Migel parrokan, koruak abestuta.

12:00 Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.

12:00 BERA-KATZ-ZOPA LEHIAKETA, Portu plazan. Sari banaketa 13:30ean.

12:00-14:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

13:00 Oñatiko Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, Lazarraga jauregiko lorategian. Eguraldi txarra eginez gero, udaletxeko arkupeetan.

14:30 Pilota BAZKARIA: *Euskal presoak euskal pilotalekuek* eta. Merkatu plazan.

17:00-20:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen.

19:30 ELKARRETARATZEA plazan, *Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideen alde*.

19:30 Oñatiko historia ezagutzeko ANTZEZLANA, Olaiturri Kultur Elkarteen eskutik, Santa Anan.

19:30 ISEO & DODOSOUND taldearen KONTZERTUA, Atzeko kalean.

20:00 PILOTA txapelketako finala, txosna batzordeak antolatuta, plazako pilotalekuan.

20:00 TEX MEX takoak afaltzeko, txosna batzordeak antolatuta.

22:00 ROCK KONTZERTUAK: ESKEAN KRISTO, HUMUS eta BITZ, txosnagunean.

23:00 KEN ZAZPI taldearen KONTZERTUA, plazan.



lazgo haur parkea. AITOR AGIRIANO

ULMA

GARA

Ondo pasa jaietan!

Gara



ZAPATUA 30**HERRI EGUNA**

09:00 Txistulari bandaren GOIZ-ERESIA. Ondoren, kalejira.

10:30 Animalia, barazki, fruta, landare eta artisau ERAKUSKETAK, unibertsitate inguruan.

11:00 KALEJIRA, Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolako TRIKI-PANDERO eta SOINU-JOLEEN TALDEA, TXISTULARIAK ETA TOLOSAKO GAITEROAK ibiliko dira herriko kaleetan.

11:00-14:00 BELDUR BARIK GUNEA, Unibertsitate etorbidean.

12:00 31. SAGARDO DASTAKETA, plazan.

13:15 Lehiaketetako SARI-BANAKETA.

14:00 BAZKARIA Antixena gaztetxean, txosna batzordeak antolatuta.

14:30 HERRI BAZKARIA, Zubikoa kiroldegian.

17:00 Herriko GAZTETXOEKIN HERRI KIROLAK, plazan.

18:00 Profesionalen HERRI KIROLEN JAIALDIA, plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

18:30 HERRIXA DANTZAN dantzaldia, Harkaitz Allur eta Maialen Arzallus trikitilariekin, Patxi Monterok gidatuta, Atzeko kalean.

19:00 ELEKTROTXUFLA txaranga herriko kaleetan zehar, txosna batzordeak antolatuta.

19:30 Parrokian F. ESNALEN SALBEA, parrokiako koruak eta Oñati abesbatzak abestuta.

20:00 0 km. Prest gaude. MOSAIKO ERRALDOIA herriko plazan. Antolatzailea SARE OÑATI.

Ondoren TRIKIZIO erromeria, plazan.

22:00 AUTOBUS MAGIKOA, SUA eta ZOPILOTES TXIRRIAUS taldeen kontzertua, txosnagunean.

23:00 TRIKIZIO erromeria, plazan.

DOMEKA 1**ERROSAIXO EGUNA**

09:00 Txistularien GOIZ-ERESIA.

11:00-14:30 Gaztetxoentzako ABENTURA PARKEA, 3-12 urte bitarteko haurrentzat –tirolina, rokodromoa, oreka tailerra, paintball-a, puzgarriak, eskulanak...– Errementari plazan.

Goiz osoan zehar Oñatiko TXORIMALOAK BERTATIK BERTARA. Beraiekin argazkiak ateratzeko aukera egongo da.

12:00 MEZA NAGUSIA, parrokiako koruak abestuta.

12:00 Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.

13:00 Oñatiko Musika Bandaren KONTZERTUA, plazan.

17:00 35. SAN MIGEL PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK –50. urteurrena–. Antolatzailea: Aloña Mendi KEko pilota saila.

17:00 ARKU TIROKETA ERAKUSTALDIA, San Martinen. Txantxiku Arkulariek antolatua –arkua probatu nahi duen edonorentzat irekia–.

17:30 MUGAK ZABALDUZ karabana ekitaldia Melillara, txosna batzordeak antolatuta.

19:00 THE LADIES: Rock & Rollaren Jaia taldearen KONTZERTUA, Atzeko kalean.

19:00 PAELLA PRESTAKETA herriko taldeak eta DIXAUEK taldearen KONTZERTUA, txosna batzordeak antolatuta.

20:00 DANTZALDIA plazan, LONDON ORKESTRAREKIN.

20:30 BALKOITIK BALKOIRAKO bertso-saioa AMAIA AGIRRE eta UNAI MENDIZABAL bertsolariekin, Kale Zaharrean.

20:30 AFARIA, txosna batzordeak antolatuta.

21:00 MOBYDICK taldearen kontzertua, txosnagunean.

23:00 SCURA SPLATS konpainiaren 'THEOS FOC' ikuskizun pirotekniko ibiltaria. Korreosko eraikinean hasita, plazaraino.

Ondoren DANTZALDIA plazan, LONDON ORKESTRAREKIN.

ASTELEHENA 2**ERROSAIXO BIXAMONA**

09:30 SOKAMUTURRA plazan. ARNO ganadutegiko zezenak.



Kuadrilla bat moztortuta iazko Errosaixo Bixamon Egunean. AITOR AGIRIANO

12:00 Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.

14:30 HERRI BAZKARIA, txosnagunean.

17:00-19:30 SOKAMUTURRA. Plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean. ARNO ganadutegiko zezenak.

18:00 ROCKALEAN bertsio-taldearen KALEJIRA IBILTARIA.

18:00 DI-BERTSIOAK herriko musikarien eskutik, txosnagunean.

20:00-23:00 DANTZALDIA plazan, TRAKETS TALDEAREKIN.

MARTITZENA 3

17:00 IRUNBERRI plazaren desmuntatze herrikoia.

ZAPATUA 7

22:30 BERTSO JAIALDIA Zubikoa kiroldegian. Bertsolariak: Amets Arzallus, Maider Arregi, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Andoni Goitia eta Igor Elortza. Gai jartzailea: Txinparta Bertso Eskolia / Gai emalea: Egoitz Atxaga Sarrerak salgai, Txokolateixian. Nagusiak: 10 euro. Gazteak: 8 euro.

DOMEKA 8

Goizean zehar Aire zabaleko 15. MARGO-LEHIAKETA. 14:30ean, sari-banaketa kultur etxean. Urriaren 22a arte MARGO LEHIAKETAKO ETA MARGO-IKASTAROETAKO IKASLEEN LANEN ERAKUSKETA, kultur etxeko erakusketa-gelan. Ordutegia: astelehenetik domekara, 18:00-20:00.



Mekanizazio zerbitzu integralak

Zubillaga 13 - 20560 Oñati - tel.: 943 78 19 11 / www.mekalki.es / e-mail: comercial@mekalki.es

*Ondo ibili
jaixetan!!*



Txantxikuaren jaitsierarekin lehertuko da festa irailaren 28an. AITOR AGIRIANO

Asteburu bakarrean eta aldaketekin datoz jaiak

Errosaixo Eguna urriaren 1ean izateak jaietako egun kopurua txikitu du, eta egitaraua baldintzatu. Jaiak laburragoak izan arren, hainbat berrikuntza egongo dira; adibidez, berakatz-zopa lehiaketa eta Txantxikuaren jaitsieraren aurreko aireko ikuskizuna

Itziar Larrañaga OÑATI

San Migel –irailaren 29a– eta Errosaixo egunek –urriko lehen domeka– zehazten dute Oñatiko jaietako egutegia urtero. Aurten, Errosaixo Egunari urriaren 1a egokitu zaio; horren ondorioz, Herri Eguna irailaren 30ean ospatuko da; San Migel egunaren jarraian, hain justu ere.

Horren eraginez, eta aurreko urtean gertatu zen moduan, aurten ere jaiak aste bukaera bakarrean izango dira.

Berrikuntzak

Txantxikuaren jaitsierarekin jaiei hasiera eman aurretik, *Entre cuatro tiempos* ikuskizuna eskainiko du Laglo Zirkdantza

& Compañía taldeak San Migel parrokiako kanpandorrean. Natura aldatzen doan heinean aldatzen doan dantza bertikala da. Zuzeneko musika pieza bakarrekin, munduaren txoko honetan bizi diren lau urtaroak igaroko dituzte zintzilik dauden lau gorputzek. Uraren jaria korotasuna, haizearen zoramena,

haizearen laztanak eta pertsonen alderik basatiena kanporatzen duen suaren energia.

San Migel egunerako, aurten, lehen aldiz, berakatz-zopa lehiaketa antolatu dute. Portu plazan egingo da, 12:00etan.

Egun berean izango dira, batetik, Oñatiko historia ezagutzeko antzezlanak, Olaituri kultur elkartearen eskutik; eta, bestetik, Ken Zazpi talde ezagunaren kontzertua.

Etzaluzeko haur parkea ere San Migel egunean jarriko da, bai goizez eta bai arratsalde, urteroko moduan. Baina, horretaz gain, Errosaixo Egunean gaztetxoentzako abentura parkea jarriko dute, Errementari plazan. 12 urte arteko haurrentzako ekitaldi bereziak eskainiko dira: tirolina, rokodromoa, puzgarriak, eskulanak, oreka tailerra.... Txorimaloekin argazkiak ateratzeko aukera ere egongo da.

Gaueko piroteknia ikuskizunak ere aldaketa dakar, ibiltaria izango baita. Scura Splats antzerki taldeak *Theos Foc* ikuskizuna ekarriko du, kaleak kolorez eta txinpartaz beteta. Ibilbidea Korreosko eraikinetik plazara izango da; amaiera ekitaldia plazan bertan egingo da.

Artzain Txakurren Txapelketa

Nazioarteko 58. artzain-txakurren trebetasun lehiaketa Kilometroetako egitarauan barneratu da aurten. Kilometroak 2017ko antolatzaileek adierazi

dutenez, "aurtengo Kilometroak eguna herritarrekin batera antolatzea izan da helburua, eta, hori horrela, bi antolakuntzek elkarlanaren bideari ekin diote". Kilometroetako bigarren gunean kokatuko da txapelketa eta doan izango da.

Sokamuturra egun bakarrean

Bi egunetan egin ohi da sokamuturra, bata San Migel egunaren ostean, eta bestea, Errosaixo Bixamonean. Aurten, baina, Herri Eguna San Migel egunaren jarraian denez, sokamuturra urriaren 2an bakarrik izango da; Errosaixo Bixamon egunean, goizez eta arratsalde.

Jaien osteko asteburua

Bertso jaialdia jaien hurrengo aste bukaeran egingo da. Aurten, baina, egubakoitzean izan beharrean, zapatu gauean izango da Zubikoa, kiroldegian.

Bestalde, aire zabaleko margo lehiaketaren sari banaketa atzeratu egin da aurten. San Migel egunaren aurretik izan ordez, urriaren 8an egingo dute. Erakusketa egun berean hasiko da, kultura etxean, eta urriaren 22a arte iraungo du.

'THEOS FOC': SCURA PLATS TALDEAK PIROTEKNIA IBILTARIA ESKAINIKO DU ERROSAIXO EGUNEAN

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketa 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 30 09
Faxa: 943 78 31 36
Polts.: 620 77 66 20



OÑATI
dabilen herria

Oñatiko Udalak jai
zoriontsuak opa dizkizue

RUPER ORDORIKA
HAURREN EGUNA
ISED
KEN 7
KALE ANTZERKIA
ROCKALEAN
TRIKIDANTZ

#oñatikojaixak2017



"Ez dugu utziko Ken Zazpi inertziak gidatzea"

EÑAUT ELORRIETA KEN ZAZPI TALDEKO ABESLARIA

'Phoenicoperus' bira azaroan amaitu eta deskantsua hartuko du taldeak: "Proiektu berri batekin bueltan bagatoz, guretako benetakoa eta interesgarria delako izango da"

Jokin Bereziartua OÑATI

San Migel jaietako musika eskaintzari dagokionez, plater nagusietako bat izango da Ken Zazpi hilaren 29an Foruen plazan (23:00) eskainiko duen kontzertua. *Phoenicoperus* diskoa aurkezteko biraz eta Ken Zazpiaren etorkizunaz mintzatu da Eñaut Elorrieta, besteak beste. **Zer moduz dago taldea?**

Gustura gaude. Honako hau *Phoenicoperus* diskoaren birako bigarren uda ari da izaten eta iaz baino lasaiago gabilta. Orain, bira ixten ari gara, Ken Zazpiaren fase bat ixten. Izugarri ari gara gozatzen, kontzertuak oso bereziak eta jendetsuak ari dira izate.

Ken Zazpi beti ulertu izan dugu esperimentaziorako gune moduan eta diskotik diskora erronka berriak jarri dizkiegu gure buruei. Ezaugarri hori Ken Zazpiaren motorra izan da beti, taldekideok motibatuta izateko modu bat. *Phoenicoperus*-ekin ere hori gauzatu egin dela esango nuke. *Rollo* elektronikoago batean sartu gara, beste estilo bat landu, produktore berri bat...

Nolakoa izan da Ricky Falkner-ekin produktore moduan lan egitea?

Gozamena izan da. Bide interesgarriagoetatik errazago eramango gintuen gidari bat behar genuen eta gidari hori izan da Ricky Falkner.

Nola gogoratzen duzu biraren hasiera iazko urtarrilean?

Gogoan dut disko berriaren hasierako hilabeteak ahaztezinak izan zirela. Victoria Eugenia hiru egunez jarraian bete genuen; hasierako hilabeteetan sarrera guztiak agortu genituen... Sekulakoa izan zen.

Zergatik erabaki duzue bira bi urtez luzatzea?

Hautu kontzientea izan da, horrek dakartzan arriskuekin. Gaur egun, diskoen eta kontzertuen iraungipena asko laburtzen da, dena doa oso-oso arin. Gauza bat ateratzen duzu gaur eta hamar egunetan zahartuta dago. Gurpil hori oso arriskutsua da;



Elorrieta, Ken Zazpirekin, uztailan Hatortxu Rock-en emandako kontzertuan. ALEX CARMONA

hanka bat barruan izan behar bada ere, begi bat beti kanpoan izatea komeni da. Saiatzen gara merkatuaren erritmo bizitiki gure buruak babesten; joera nabarmena dago taldeek ia etengabe nobedadeak ateratzeko, baina gure hautua beste bat da.

Disko berria atera genuen eta bizi izan genuen momentu go-rena, baina bira luzatzea erabaki dugu. Horrek taldeari ahalbidetzen dio lasaiago egotea eta gauzak beste era batera hartzea. **Ikusten diozu arriskurik errubera horretan barruraino ez sartzeari?**



RPS:174/13

M^a Angeles Mendizabal
H AHO SENDAGILEA

- Implantologia konbentzionala
- Gidatutako implantologia (punturik gabe)
- Odontologia estetiko
- Periodontzia
- Eskanerra

Ondo pasa jaixak!

Arantzazuko Ama 2C-behea
20560 Oñati
Tel.: 943 71 60 71
mendikorta@outlook.com



Kale barria 20 • Errekalde 8
OÑATI
Tel.: 943 78 01 54 • txantxiku@telefonica.net

Phoenicoperus diskoa urrun ikusten da eta jendeak akaso kantu berriak espero ditu, abiadura biziaren merkatu horretara ohituta dagoelako. Hortik irteten zarenean onartu behar duzu ez daukazula muskulu berbera, ez zarela nobedade etengabea. Horretara egokitu beharra dago; hori bai, argi daukat hautu horrek Ken Zazpiri mesede egin izan diola. Gu gara gure denboraren jabe, neurri bateraino.

Hala ere, errubertatik irteteak ez dio taldearen arrakastari larregi eragin... Ez... Sekulako zortea daukagu. Halako apustu bat eginda ere, kontzertuetan sekulako jendetza elkartzen da. Zaleen babesa ez dugu galdu; beraz, ez dugu kezatzeko arrazoi txikiena ere.

Azaroan amaituko da *Phoenicoperus* bira. Eta azarotik aurrera zer? *Phoenicoperus*-en amaierarekin Ken Zazpiren beste fase bat amai-

"EGUN, IRAUNGIPENA ASKO LABURTZEN DA, DENA OSO ARIN DOA; GURPIL HORI OSO ARRISKUTSUA DA"

tuko da. Talde barruan hausnarketa kolektiboak eta indibidualak daude, eta garbi dauka Ken Zazpik ez dituela asetzen taldekideon kezka musikal guztiak. Azarotik aurrera Ken Zazpiren hurrengo proiektua sortzeko eta eraikitzeko denbora beharko dugu; horrek esan gura du deskantsua hartuko dugula eta taldekideok beste bide batzuk probatuko ditugula. Geroago, gai bagara komunean ilusionatzen gaituen proiektu bat osatzeko batuko gara eta ez bada horrela ez gara batuko. Ez dugu esango Ken Zazpi amaitzen denik, ez dakigulako. Hori denborarak esango du. Baina bai eman go diogula Ken Zazpiri gure bizitzetan beste espazio bat, ez dugu utziko taldea inertiak gidatzea. Ken Zazpi berriro disko edo proiektu batekin itzuliko bada, berrmatuta egongo da benetakoa eta interesgarria izango dela guretako.

Askok aldatu dira Eñaut Elorrietaren kezka musikalak azken 20 urteotan? Ken Zazpiren lehen diskoa duela 20 urte atera genuen. Hasieran, taldeak asko betetzen ninduen eta indar guztia bideratzen nuen

proiektu horretara. Baina denbora aurrera doa, taldekide bakoitzak bere bilakaera izan du... Beharbada, orain ditudan interesak eta kezka musikalak ez dira duela 20 edo 15 urtekoak.

Musikari profesional izateko jauzia ematerakoan, asko aldatu zitzaizun bizitza?

Musika ogibide moduan hartzeko hautua egiterakoan ate asko irekitzen dira bat-batean. Bestalde, baina, erromantizismo puntua ere galtzen da, egiten duzun horretatik bizi egin behar dela konturatzen zarenean. Baina, azken finean, beste edozein ogibidek dituen antzeko ezauzgarriak ditu musikari profesional izateak. Momentu batzuetan, edozein lanek izan ditzakeen egoerak kudeatu behar izaten dira, baina hori normala da. Hala ere, pasioz bizi dut musika eta zentzu horretan pribilegio-

"IKUSGARRIA IZATEA ESPERO DUGU, GURE ESPERIENTZIA GUZTIA JARRIKO DUGU AGERTOKI GAINEAN"



Ken Zazpi, 2016an, Victoria Euguenian; hiru egunez jarraian bete zuten. PRODUCCIONES SERRANO

duna sentitzen naiz. Lanera noanean, lokalera edo kontzertu batera izan, izugarri gozatzen dut. Une honetan musika da nire bizitza eta musika egiten nabil, ezin dut gehiago eskatu. **Goazen Oñatin emango duzun kontzertura. Ezer aurreratzerik bai?** Lehen esan moduan, Ken Zazpiren fase bat ixtear gaude. Horregatik, gure ibilbide osoko eta disko guztietako kantuak eskainiko ditugu Oñatiko kontzertuan ere. Argiak, irudiekin osatutako proiektzioak... Zuzeneko ikusgarria izatea espero dugu; azken

urteotako esperientzia guztia jarriko dugu agertoki gainean. Azken finean, Ken Zazpiren ibilbidearen errepaso bat izango da, ospakizun giroan. Ez dugu Ken Zazpiren azken kontzertuak izango direla esango, baina bai nahi dugula azken urteotako ibilbidearen ospakizun bat jendearekin batera bizi. Energia horrekin enfokatuko ditugu azarora arteko emanaldiak, Oñatiko barne. Lehen aldia izango da Oñatin herriko jaietan eta agertoki handian joko duguna; aukera aprobetxatzera goaz.



MURUAMENDIARAZ
GOZOTEGIA 1939

Ondo pasa sanmigelak!



Kale zaharra, 24 • Oñati • 943 03 93 18

Ondo pasau jaxetan!

Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI

Portu Kale 5 • Tel.: 943 78 12 65
www.mapfre.es

Jai eremu nagusi, beste behin ere, txosnagunea

Txosnagune berritua izango da 2017ko nobedade aipagarrienetako bat. Horretaz gain, Udana Oñatiko Motor Taldeak txosna ez jartzea erabaki du. Bestalde, aurtengo jaien egutegia dela-eta, Egun Morea ez da sanmigeletan egingo

Itziar Larrañaga OÑATI

Herriko hainbat txokotan banatzen dira jaietako ekitaldiak, baina txosnagunea izango da aurten ere egitarau zabalena eskainiko duen gunea, Foruen plazarekin batera.

Txosna batzordea

Ohiko taldeek osatuko dute aurten ere txosna batzordea. Era-gile bakoitzetik pare bat pertsona daude antolakuntzan, eta, horretaz gain, norbanakoak ere badaude. Izan ere, "ez dago era-gile bateko kide izan beharrik txosna batzordean parte hartze-ko", argitu du Txosna batzordeko kide Xabier Etxebarriak.



Irailaren 30ean joko du Zopilotes Txirrius taldeak txosnetan. IMANOL SORIANO

Aurten, baina, Udana Oñatiko Motor Taldeak txosna ez jartze-ko erabakia hartu du.

Txosnagunearen muntaiarekin Kilometroak egunaren ostean hasia aurreikusten du txosna batzordeak. Etxebarriak jakinarazi duenez, txosnagunean "aldaketak egongo dira, baina ez da lehenengo sistemara itzuliko -kaseten sistemara-; karpa bat egongo da". Muntatze lanetan 50 bat lagun batuko dira, aurreko urteetako moduan.

Paella, afaltzeko

Urte askoan izan da paella Errosa Bixamon Eguneko bazkaria txosnagunean, baina aurten, menua aldatzea erabaki dute. *Berria* egunkariak zerbitzatu dute bazkaria eta batutako dirua *Berria*-rentzako berarentzako izango da. Txartelak aurrez salduko dira. Errosa Bixamon Egunean, herriko elkarteek prestatutako paella eskainiko dute. Kasu horretan, afaltzeko izango da.

Musika

Lau kontzertu gau egongo dira. Egubakoitzean, rocka izango da, Eskean Kristo-k, Humus-ek eta

Bitz talde oñatiarrak eskainitako saioekin. Herri Egunean, hiru kontzertu eskainiko dira: Sua taldeak trikiti doinuak ekarriko ditu, Zopilotes Txirrius taldeak rantxerak eta Autobus Magikoak, reggaea. "Herri Egunean, trikitiaz gain, jai giroa bermatzen duten beste estilo batzuk jartzen saiatu gara", dio Etxebarriak. Domekan, Herri Egunean eta Errosa Bixamonaren artean, MobyDick bakarlararen musika lasaiaz gozatu ahalko da afalduan. Errosa Bixamonean, Di-Bertsioak izango dira: Eltzia antolatuta, Oñatiko taldeen bertsio kontzertuak.

Eraso sexistarik ez!

Eraso Sexisten Aurkako Protokoloa izango dute txosnagunean. Bertan lanean diharduten guztiek izango dute horren berri.

Egun Morea urriaren 21ean

Hainbat ekitaldi pilatu dira San Migel jaien inguruan, eta Egun Morearen antolatzaileek ez dute "tarterik" aurkitu egitarauan. Jaietatik gehiegi urrundu gabe, urriaren 21ean egingo dute Egun Morea aurten.

Ondo pasa sanmigelak!



GEZALUS
ELEKTRIZITATEA

650 39 80 88

Era guztietako Instalazioak, Argiztapen Lanak, Berrikuntzak...



egaralur

Construcciones | Eraikuntza Lanak

50
años-urte
1967 | 2017

- Eraikuntza lanak
- Industria-nabeen eraikuntza
- Obra Zibila - Urbanizazioak
- Industrialde eta etxebizitzaren promozioa
- Etxebizitzaren eraikuntza

Bidebarrieta 17, behea • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 07 15 • Faxe 943 78 08 62 • www.egaralur.net

KILOMETROAK 2017



LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI

www.kilometroak.eus

[kmk17Onati](https://www.facebook.com/kmk17Onati)

[@kilometroak](https://twitter.com/kilometroak)

[kilometroakbideoak](https://www.youtube.com/kilometroakbideoak)

Tailerrak ematen zituztenak, omenduak

Ia 50 dira eta gehien-gehienak emakumeak. Urtetan eta urtetan musu-truk, Txantxiku Ikastolako ikasleei tailerrak eman izan dizkiete. Bada, domekako jaietan, horiek omentzea erabaki du Txantxiku Ikastolak. 11:30ean aitortuko diete euren lana

Miren Arregi OÑATI

09:30ean egingo da, Oñatiko lehenengo gunean, Txantxiku Ikastola eta plaza inguruan, Kilometroak 2017 jaiari hasiera emango dion irekiera ekitaldia. Bertan izango dira Hezkuntza sailburu Cristina Uriarte, Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano, Oñatiko alkate Mikel Biain eta Txantxiku Ikastolako presidente Aitor Guridi, besteak beste. Ekitaldi horrek emango dio hasiera ofiziala jaiari, baina beste ekitaldi bat ere izango da; alegia, 11:30ean Santa Ana antzokian egingo dena. Horretan, datorren urteko Gipuzkoako


ikastolen aldeko festa antolatze-ko ardura duen Zumarraga-Urretxuko Ikastolari lekukoa emango diote. Baina ez hori bakarrik, azken urteetan Kilometroak jaiaren barruan ohiko bilakatu den omenaldia ere egingo baita. Izan ere, urtero, ikastola bakoitzaren ibilbidean erreferente izan den pertsona edo pertsona taldea omentzen dute Kilometroen egunean.

Omenduak

Aurtengo protagonistak Kilometroak 2017ren zutabe den *auzolana* hitzaren esanahiaren isla garbia dira. Urtetan eta urtetan,

musu-truk, Txantxiku Ikastolan tailerrak eman izan dituzten 40tik gora pertsona: "Ia 50 bat dira, gehien-gehienak emakumeak. Astean bi orduz etortzen ziren eta tailerrak ematen zituzten. Txantxiku Ikastolan ikasi dugun belaunaldi asko eta asko pasatu dira euren eskoletatik", adierazi du Txantxiku Ikastolako zuzendari Zigor Ibarzabalek. Makramea, zumitza, banastagintza, sukaldaritza, ispilugintza, zeramika... Ikasleen guraso ziren asko, baina baziren bestelako herritarrek ere. Domekan, oroigarria jasoko dute, eta lana aitortuko diete.

Omenduko dituztenetako bi



MARIA ANGELES MENDIGUREN

"Esan zidatenean, ilusio handia egin zidan"

"1980ko hamarkada hasiera zen egubakoitzetan tailerrak ematen hasi nintzenean. Eskulanak egiten genituen, loreak, galtza gorri, galtza berde eta alambreekin. Autobusean ere egon nintzen urte batzuetan boluntario lanetan. Ikastolatik laguntza eskatu zuten eta animatu egin nintzen. Kilometroak jaietan gure lana aitortuko zela esan zidatenean, hunkitu egin nintzen, benetan ilusio handia egin zidan. Domekan bertan izango naiz, noski, beste guztiekin batera".



MANTTONI BERRAONDO

"Orduko oso oroitzapen onak gelditu zaizkit"

"Eskura ekarri zidaten domekako ekitaldirako gonbidapena eta sekulako ilusioa egin zidan. Garai hartan ere aitortzen zen gure lana, baina horrenbeste urteren ostean ere omentzea... Pozik nago, bai. 1986a izango zen tailerrak ematen hasi nintzenean. Hiru dimentsioko eskulanak egiten genituen. Loreak, pailazoak... San Lorentzon egin genituen lehenengo urteak eta gero, plazako eraikineren pasatu ginen. Orduko oso oroitzapen onak gelditu zaizkit".

oerlikon
balzers

Oerlikon Balzers
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2
20577 Antzuola
Tel.: 943 76 62 08
info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es



ZUBIA
TECNOLOGIA
TUBULAR

Especialistak hodi-formako piezetan

NEMESIO ZUBIA S.A.
Zubillaga auzoa 74 • 20560 Oñati | Tel.: **943 78 14 10** | www.zubia.biz - zubia@zubia.biz

1 IKASTOLA		2 SAN MARTIN		3 ASENTZIO		4 BEREZAO	
PLAZA	FRONTOIA	"HAURREN HIRIA"					
09.30							09.30
09.45							09.45
10.00							10.00
10.15	UDABERRI DANTZA TALDEA						10.15
10.30							10.30
10.45							10.45
11.00							11.00
11.15							11.15
11.30	HUTSUN TALDEAK						11.30
11.45							11.45
12.00	HERRIKA KANTUAN						12.00
12.15							12.15
12.30							12.30
12.45	TIO TERONEN SEMEAK DANTZA TALDEA						12.45
13.00							13.00
13.15							13.15
13.30	BEREZOAK Antton Egoitz, Iñaki Arregi, Aitor Mendizabal eta Iñaki Mendi						13.30
13.45							13.45
14.00							14.00
14.15							14.15
14.30	DANTZA TALDEA						14.30
14.45							14.45
15.00	OXARI						15.00
15.15							15.15
15.30							15.30
15.45							15.45
16.00							16.00
16.15							16.15
16.30	LIHER						16.30
16.45							16.45
17.00							17.00
17.15							17.15
17.30							17.30
17.45	ANJE DUHALDE						17.45
18.00							18.00
18.15							18.15
18.30							18.30
18.45							18.45
19.00							19.00
OMENALDIA (SANTA ANA ANTZOKIAN) 11:30ean KAIKUTXO IPUIN KONTAKETA orduero		NAZIOARTEKO ARTZAIN TXAKURREN TXAPELKETA 10:30-14:00		AXI MUNIAIN "CARVER" ERAKUSTALDIA 10:00-18:00		HERRI KIROLAK (NATRA) 11:30-13:00 EUSKAL KULTURGINTZA + ARTISAUTZA	

LIRAIN

Estetika-Zentroa



RPS: 40/14
Ez da osasun zentroa

TEKNOLOGIARIK AUERRERATUENA ZURE ESKU: LASER PLATAFORMA

Diodo Ligthseer - Alejandrita - Argi pultsatua (I.P.L.)

6 saioko bonoarekin (saiok 3 hilabetero), prezioa saio bakoitzeko

Emakumezkoak		Gizonezkoak	
Hanka osoak	69 €	Bizkarra	100 €
Hanka erdiak	45 €	Bularra	50 €
Izterrondoak	29 €	Sabela	50 €
Besapeak	29 €		

FINANTZIAZIOA
% 0 INTERESA
12 HILABETETAN

LASER DEPILAZIOA
Gozatu zure azalaren leuntasunaz



Bixente Ferrer, 1 ARRASATE 943 79 52 17

Ingelesa jakinez gero, % 44 handitzen da lanpostu bat aurkitzeko aukera.

Lanpostuen % 70ean ingelesa edo euskara eskatzen dute.

Hizkuntzek garuna lantzen laguntzen dute.

Hizkuntza berri bat ikastea, oso ongarri den garunerako solinketa da.

Erantzukizuneko postuen % 100ean bigarren hizkuntza bat ezagutzea exijitzen da.

Gure 10 ikasletik 9k Cambridgeko azterketak gainditzen dituzte.

mondragonLingua

ARRASATE. Araba etorb. 4 Tel. 943 71 20 55
OÑATI. Motxon kalea 7 Tel. 943 71 60 00

MATRIKULA zabalik

Abantaila interesgarriak dauzkagu zuretzat.

'Lekaixo' egingo du Txantxiku Ikastolak etzi

Urtebetetik gora daramate lanean, domekako Kilometroak 2017 borobila izan dadin. 'Lekaixoka' hasi zuen urtea Txantxiku Ikastolak eta 'lekaixoka' jarraitu du lanean, auzolanean, domekako jaia prestatzen

Miren Arregi OÑATI

Intzirika, irrintzika, euskaraz gatz lekaixoka dio etzi Oñatin ospatuko den Kilometroak 2017ko kantuak, herritarrek auzolanean sortu zuten kantuak, eta domekan ezinbesteko doinu bilakatu denak. Auzolana izan dute urte osoan zutabe eta lan hori guztia erakusteko ordua heldu da. 1.600 boluntario ibiliko dira lanean, dena ondo atera dadin. Urduri, gogotsu, irrikaz beterik daude antolatzaileak, mimo han-

diz eta maitasunez prestatu duten egun handira begira. 1989ko Kilometrotako zirkuitua errepikatuko da eta lau gunetan, publiko guztiendako ekintzak prestatu dituzte oñatiarrek; ume, gazte zein helduk ez dezaten berehalakoan ahaztu 2017ko Kilometroetan bizi izandakoa. Gipuzkoako ikastolen festa handirako atzerako kontaketa hasi da, eta badute alde zerbait, eguraldi ona iragarri baitute meteorologia agentziek.

Jakin beharreko hainbat kontu

IREKIERA EKITALDIA

09:30en egingo da, Oñatiko plazan, gune nagusian, Kilometroak 2017 jaiari hasiera emango dion ekitaldia. Bertan hitza hartuko dute, besteak beste, Hezkuntza sailburu Cristina Uriartek, Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok, Oñatiko alkate Mikel Biainek eta Txantxiku Ikastolako ordezkariak. 11:30ean hasiko da bigarren ekitaldia, Santa Ana aretoan. Horretan, lekukoa emango diote datorren urtean Kilometroak jaia antolatzeke ardura izango duen Zumarraga-Urretxuko presidenteari.



ZIRKULAZIOA

Aurrena jakin beharrekoa da Udanako mendatea itxita egongo dela –autobusak pasatu ahal izango dira–, eta, hori horrela, Elorregitik soilik sartu ahalko

dela herrira. Guztira, zortzi aparkaleku prestatu dituzte domekarako. Herriatik gertuen daudenak, hilerriaren inguruan egokituko dena eta Otadui zuhaiztikoa izango dira. Bi horietan, guztira, 750 autorendako tokia egongo da. Bi gune horietatik zuzenean sartu ahal izango dira bisitariak zirkuitura. Gainera, beste sei gune egokituko dituzte Elorregitik Oñatira bitartean, autoak utzi ahal izateko. Haietatik, etengabe, lotura-autobusak egongo dira herrigunera joateko.



BAILARATIK, BIZIKLETAZ

Antolakuntzak bizikletaz joateko dei egin du. Hala, bidegorritik bizikletaz joateko bi topagune egongo dira: Arrasateko Eroskin eta Bergarako Labegaraletan. Bietan ere, 10:00etan elkartuko dira eta horiek guztiak 10:30ean

Elorregin elkartuko dira, elkarrekin Oñatira joateko. Institutu aurrean egokituko dute bizikletendako aparkaleku erraldoia eta zainduta egongo da goizetik iluntzera arte.



NON JAN

Seguratik etorritako Luma Gorri enpresari esker, Zubikoa kiroldegiko kantxa jantoki erraldoi bihurtuko da. Bertan, Luma Gorriren oilaskoa dastatu ahal izango da. 1.200 pertsonari jaten emateko prestatuko dute kantxa. Paella eta oilasko izterrak, hori da menua. Postrea ere egongo da. Helduek 15 euro eta umeek 8 ordaindu beharko dute. Zubikoako jantokian ez ezik, gune bakoitzean ipiniko den txosnan ere egongo da tripa betetzeko aukera. Horietan, ogitartekoak emango dituzte egunean zehar. San Martingo gunean, Eusko Label postua



Zu intzirika, ni irrintzika
 Euskaraz gatz lekaixoka
 Ni xuxurlaka, zu deiadarka
 Euskaraz gatz lekaixoka

carrascaladapt
 sukaldeak bainuak armairuak

**ZEURE NEURRIRA,
 ZEURE GUSTURA**

Ekutio 4, 14-15. pab. • Uribarri auzoa
 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82
 scarrasc_1@infonegocio.com



Natra Oñati



Arantzazurako bidean z/g • 20560 Oñati | Tel.: **943 71 63 69**



egongo da, eta, hori horrela, txosnan ez dute ogitartekorik egingo. Edaria erosteko aukera bai egongo da.



ARROPA SALMENTA

Oraindik erosi ez duenak izango du Kilometroen egunean bertan arropa erosteko aukera. Guztira, hiru gune egokituko dituzte arropa salmentarako: Sietevientosko bidegurutzean ipiniko dute postu bat, Zubikoa kiroldegi aurrean beste bat eta San Martinen –bigarren gunea– egongo da hirugarrena.



TONBOLA ETXALUZEN

Tonbola ere ez da faltako Oñatin domekan. Etxaluzen jarriko dute, Urrutia dendan. Guztira, 21.400 txartel atera dituzte eta guzti-guztiekin dute saria. Oñatiko

bertako eta Gipuzkoa osoko enpresa, komertzio eta erakundeek egin dute ekarpena tonbolarako. Egun osoan egongo da zabalik.



ERASO SEXISTAK SAIHESTEKO, SIRENA MOREA

Eraso sexistak saihesteko, parekidetasun batzordeak kanpaina bat abiarazi du. Hala, herritarrek eraso sexisten aurrean duten ardura gogorarazteko, sirena moreak ipiniko dituzte txosnetako karpetan. Horien helburua da jaietan parte hartzen ari direnei –antolatzaile, boluntario, eta gozatzen ari direnei– gogoraraztea horrelako jarreraren aurrean adi egon behar dela. Gainera, lehenengo, hirugarren eta laugarren gunetan, Beldur Barik elkartearekin batera, informazio puntuak ipiniko dituzte edonolako zalantzak argitu eta, behar den kasuan, hara joan ahal izateko.



IKASTOLEN 'APP'-A

Azken urteetan bezala, Kilometroak jaiak aplikazio berezia izango du telefono adimendunendako. Bertan kontsultatu ahal izango dira egitaraua, zerbitzuak, eta abar. Gainera, Erronka porra egin daiteke bertan, lehen hiru irabazleak zeintzuk izango diren asmatzen saiatuta.



NAZIOARTEKO ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA

Urtero Oñatin jokatzeko den Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa eta Kilometroak 2017k bat egin dute aurten. Hala, domekan izango da txapelketa, beti bezala, Santa Lutzia

zelaian. Zirkuituaren bigarren gunean dago kokatuta zelai hori, eta, beraz, handik pasatzen diren guztiek izango dute nazioarteko txapelketaz gozatzeko aukera.



OLAITTURRI ELKARTEAREN ANTZEZLANA

Emanaldi berezia prestatu dute Oñatiko Olaitturri elkarteak Kilometroen egunerako. *Oñatiko zertzeladak* izenburupean, hoge minutuko hiru emanaldi prestatu dituzte. Oñatiko historia pixka bat gehiago ezagutzeko emanaldiak dira horiek eta herriko hiru txoko berezitan egingo dituzte: Lazarraga parkean, unibertsitateko klaustroan eta Zumeltzegi dorretxean. 1542an kokatutako gebaratarrekin lotutako emanaldia eskainiko dute; Sancti Spiritus unibertsitateko klaustroan, 1760an kokatutako amodiozko

istorio baten epaiketa; eta Lazarraga jauregiko lorategian, berriz, 1845ean Oñati Gipuzkoari anexionatu zitzaioneko kontaketa. 12:00etan, 13:00etan eta 15:30ean egingo dituzte horiek.



ERRONKA

DBHko hirugarren eta laugarren mailetako gazte osatutako Gipuzkoako hogeikastolako taldeek hartuko dute parte ERRONKAN, domekan. Bigarren, hirugarren eta laugarren gunetan egingo dira probak eta talde bakoitzak bi egin beharko ditu, gutxienez. 11:00etan eta 12:30ean egingo dituzte horiek. Aurtengo berritasuna da finaleko probetan ere talde guztiek hartuko dutela parte. Finala arratsaldean izango da, goizean, Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa egingo den Santa Lutzia zelaian bertan.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurritan
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491



BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com



UGARTE

OÑATI

> HORMIGOIZKO EGITURAK
> IGELTSEKOTZA
> ZAHARBERRITZEAK
> PROMOZIOAK

ERAIKUNTZAK

943 78 05 54
663 973 164

ugarte@cnes-ugarte.com





Ipuin kontaketa haurren gunean, iazko Kilometroak egunean. IMANOL SORIANO

Haurrentzako egitarau zabala egongo da

Kilometroetako bigarren gunea, San Martinen kokatutakoa, izango da bereziki haurrei zuzenduta egongo dena. Hala ere, Txantxiku Ikastolaren inguruan ere gaztetxoenei zuzendutako hainbat ekintza eskainiko dira

Itziar Larrañaga OÑATI

Jolasak, tailerrak, antzerkiak, abentura, ipuin kontaketak, musika... Etxeko txikienek aukera asko izango dituzte gozagarri egun osoan.

San Martingo gunea

Bigarren gunea bereziki haurrei zuzenduta egongo da. San Martingo zuhaiztian kokatuko dira beraientzako ekintzak.

Txatxilipurdi elkarteko begiraleak goizean eta arratsaldean egongo dira aurpegiak margotzen eta hainbat jolas dinamizatzen. Honetaz gain, Inguruabenturak hainbat jarduera eskainiko ditu egun osoan. San Martingo zuhaiztia aprobetxatuz jolas ezberdinak egongo dira: oreka lantzeko tailerrak, zuhaitz parke bat, *slackline* arbola batetik bestera, lasterketak, arku tiroketa, eta abar.

11:45ean, 3Txuloko lagunek ikuskizuna eskainiko dute. Zuhaitzitik kanpo kokatuta egongo den agertokian izango da.

Horretaz gain, bestelako ekintzak ere egongo dira; adibidez, giza mahai-futbola eta globo aerostatiko bat.

Arratsaldean, Xomorro taldeak tailerrak eskainiko ditu. Horretarako, zirkuaz baliatuko dira. Hezkuntza ez formala eskaintzen du Xomorrok, zirkuak transmititzen duen ilusioa eta poztasuna oinarritzat harturik.

15:30ean musikaren txanda izango da. Gauargi taldeak gerturatzaren diren guztiak dantzari jarri nahi ditu. Betiko kantuek bai, baina baita abesti modernoak ere, guztiak euskaraz eta koreografia errazez lagunduta. Ondo pasatzeko aukera aproposa izango da.

Ikastolaren inguruan

Herriko frontoiaren ondoan kokatuko dituzte haurrentzako ekintzak erdialdean. Goizean, Kulki taldeak gaztetxoentzako jolasak eskainiko ditu merkatuko arkupean. Bertan, herri jolasak eta kirola batuko dira hainbat ekintzatan.

Bazkalostean, Txatxilipurdi elkartea lau orduz egongo da hurbiltzen diren guztiei aurpegiak margotzen.

Gainera, orduro, Kaikutxo ipuin kontaketa egongo da lehenengo gunen horretan.

ZIENTZIALARI TXIKIENEK ERE GOZATU ETA BIZITZEKO!

17 €
www.elhuyareus/denda

Huntza taldeko kideak "gogotsu" Oñatin jotzeko

Trikiti doinuak protagonista izango dira Huntza taldeak Berezaoko gunean eskainiko duen kontzertuan. Euskal Herriko herri askotan egon badira ere, irailaren 24koa Oñatin joko duten lehen aldia izango da

Itziar Larrañaga OÑATI

Sei gipuzkoar gaztek osatzen dute Huntza taldea: Josunek (ahotsa), Uxuek (panderoa eta ahotsa), Aitorrek (biolina), Aitzolek (gitarra), Inharrek (baxua) eta Peruk (bateria). Taldearen helburua sortzen duten musika Euskal Herri osora zabaltzea da eta horretan aritu dira uda osoan. Orain, Oñatiren txanda iritsi da. "Udan zehar Euskal Herriko ia leku guztietan egon garen arren, Oñatira oraindik ez gara iritsi, eta gogotsu gaude!", diote taldeko kideek.

Abestuko dituzten kantuen artean ez da faltako ezagutzera eman zituen *Aldapan gora* abes-



Berezaoko gunean eskainiko dute kontzertua, 16:30ean. AITOR AGIRIANO

tia. Horrek, gainera, badu Oñatirekin lotura. *Ertzetan* diskoko abesti gehienak Josunek konposatzen ditu, baina abesti horretarako oñatiar baten laguntza izan zuela onartu dute: "Maider Arregi bertsolari oñatiarraren letra du abestiaren zati handi batek eta beste zati bat gure taldekide Josunerena da".

Berrogeita hamar kontzertu inguru eskaini dituzte uda honetan, gehienak herriko jaietan; abuztuan, adibidez, Aretxabale-tako jaietan izan ziren. Dena den, "jaialdi ugaritan" ere izan direla diote taldekideek, "tartean baita hainbat jaialditan ere". Hala ere, Kilometroetan kontzertu bat eskaintzea ezberdina izango dela uste dute: "Berezia izango da guretzat bertan izatea, txikitatik gutako asko ibili bai-

kara agertoki azpian dantzan, baina, oraingoan, gainean ibiltzea tokatuko zaigu".

Irailetik aurrera, lasaiago

Oñatiko ikuskizuna "udako buelta" bezala definitu dutenaren azkenetako kontzertua izango da. Emanaldi horren ostean erritmoa lasaitzeko asmoa dutela adierazi du taldeak: "Behin irailetik aurrera, kontzertu gutxiago emango ditugu, taldekide guztiak ikasleak garenez, guk ere ikasturtean zentratzeko garaia izango baitugu".

Japan Tour 2017

Udan Euskal Herria zeharkatu ostean, giroz aldatuko dute udazkenean zehar. Izan ere, azaroaren hasieran Japoniara joateko asmoa dute.

**"MAIDER ARREGI
BERTSOLARI
OÑATIARRAREN LETRA
DU 'ALDAPAN GORA'
ABESTIAREN ZATI
HANDI BATEK"**

**"AZAROAREN
HASIERAN JAPONIARA
JOATEKO ASMOTAN
GARA GURE MUSIKA
MUNDUAREN BESTE
ALDEAN ZABALTZERA"**

**100€ko
300€ sari
oparitzen
ditugu**

**Gu ere
Kilometroekin
bat!**



**Eska
ezazu
zure
txartela!**



**EROSKIn irailean EROSKI Club kreditu
txartelarekin egindako erosketak**

250 eurora helduz gero, zozketan parte har ezazu!



ARRASATE




Musakola z/g ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Oinarriak www.eroski.es/tarjeta-de-credito-eroski/promociones webgunean kontsulta itzazu. Zozketa eguna: 2017-10-16. EROSKI Club txartelean sartuko da dirua. Zenbatekoa hurrengo erosketetan erabil daiteke. Santander Consumer Finance S.A. eskaintako txartela.

FAGOR
TALDEA



**DEBAGOIENEAN SORTUAK,
DEBAGOIENEAN ERROTUAK**



LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI

FAGOR 
FAGOR ARRASATE

FAGOR 
FAGOR AUTOMATION

FAGOR 
Fagor Electrónica

FAGOR 
FAGOR INDUSTRIAL

 **COPRECI**

FAGOR 
FagorEderlan

 **MONDRAGON
ASSEMBLY**

 **galbaian**
Intellectual property

Oñatiko historia oholtzara Olaitturriren eskutik

'Oñatiko zertzeladak' antzezlana eskainiko dute Olaitturri Kultur Elkarteko kideek, Santa Ana antzokian, irailaren 29an. Oñatiko historia ezagutzeko hiru antzerki labur eramango dituzte taulara. Sarrerak Txokolateixan eros daitezke



Anexiñua herri antzerkiaren momentu bat, Oñatiko jaietan. GOIENA

Itziar Larrañaga OÑATI

Kilometroetako gune ezberdinetan *Oñatiko zertzeladak* antzerkia estreinatu ostean, orain, herriko jaien txanda da. Antzerkiko hiru zatiak jarraian eskainiko dituzte Olaitturri Kultur Elkarteko kideek. Guztira, hogeita bost bat lagun arituko dira aktore lanetan. Antzezlana agertokira eramateko hautatutako eguna irailaren 29a izango da, San Migel eguna. Santa Ana antzokian 19:30ean eskainiko dute ikuskizuna. Sarrerak Txokolateixan eros daitezke dagoneko. Sarrera eta liburua sei eurotan izango dute erosleek, Oñatiko Udalaren babesari es-

ker. Horretaz gain, Zumeltzegi dorrean gau bat pasatzeko zozketan parte hartzeko txartela ere eskuratuko dute. Iñazio Irizarrek, antzezlaren idazleak, adierazi duenez, Olaitturrikoek aurretik egindako obren nola baiteko moldaketa laburtuak izango dira antzezlana osatzen duten hiru zatiak.

Euskara batuan

Olaitturri Kultur Elkartea 2009an sortu zen, eta, ordutik hona, hainbat antzezlana egin ditu taldeak. Orain arte, euskalkian jardun dute; *Oñatiko zertzeladak* izango da euskara batuan antzeztuko duten lehenengo aldia.

Mende ezberdinetako hiru pieza

Olaitturrikoek egin dituzten lan guztien artetik hiru hautatu dituzte, formatu motzean berriz ere agertokira eramateko. Pieza bakoitzak hoge minutu inguru izango ditu.

Hiru aro ezberdin eta beste hainbeste xehetasun Oñatiko historia hobeto ezagutzeko.

1542a

Gebaratarrak konderriko jaunak ziren garaian kokatuta dago lehen pieza. Herriaren garairik

oparoenetakoa islatuko du pasarte horrek. Gorteari begira bizi ziren gebaratarrez gain, ganboatarren eta oinaztarren leinuak zeuden garai hartan.

1760a

Unibertsitateko amodiozko istorioa epaitu zenekoa bigarren zatian. Bikote gazte baten amodio istorioa ardatz hartuta, XVIII. mendeko aberatsen eta herriarren arteko tirabirak azalduko dira pieza horretan.

Irakasleen eta ikasleen bizitzak eta ikasleen eta herriko gazteen arteko harremanak ere jasoko dira antzezlana horretan.

1845a

Oñati Gipuzkoan anexionatu zen urtea izango da azken zatia antzerki horretan, oñatiarrek azaldutako arrazoiak eskainiko dira, baita Gipuzkoarekin bat egiteko adostutako hiru baldintza nagusien xehetasunak ere.

Bidebarri

LANERATZE ENPRESA

20 urte vending zerbitzua eskaintzen

Ondo pasa jaietan!

merkatu
Soziala

FAIRTRADE
INTERNATIONAL

“Eskaintza bereziak bidezko merkataritzako kafe eta txokolatean enpresa txiki eta ertainentzat”

Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe:
Tel. 943 716 479 • Mug. 617 677 913 • bidebarri@terra.com



www.bidebarri.org

Herri Eguna, ordu luzez kalean egoteko modukoa

Goizeko bederatzieta esnatuko dute herria txistulariek goiz-eresiarekin. Ordurako martxan egongo dira talogileak, baserritarrak, artisauak, sagardogileak, baita erdiguneko elkarteetako kideak ere, salda eta txorizoz betetako lapikoekin

Itziar Larrañaga OÑATI

Baserritar arropa jantzi eta goiz irteten dira oñatiarrak kalera Herri Egunean. Azken orduko erosketak ere ohikoak izaten dira; ez dira gutxi goizean bertan galtzerdiak, abarkak eta zapia eroatera joaten direnak.

Unibertsitate inguruan

Talogileek goizeko zazpietan hasiko dute eguna. Guztira, 60-70 pertsona arituko dira lanean eta bederatziatarako suak pizten hasiko dira. "Azken urteetan jendea goizago joaten da talo bila, baliteke ilarak ez itxaroteko izatea", dio Josu Erostarbek, herriko tabernako lantaldearen



Herri Eguneako azoka iaz. AITOR AGIRIANO

arduradunak. Talogileetatik hurbil kokatuko dira artisauak; 30 mahai jarriko dira Unibertsitatean; horietatik hogeitau, urteroko moduan, oñatiar artisauei egokitu zaizkie.

Nekazarien Elkarteak antolatuko du, beste behin ere, animalien eta barazkien erakusketa, baita gazta lehiaketa ere. Hogeitau baserrik hartuko dute parte. Hamar animalia mota egongo dira ikusgai: ardiak, bildotsak eta ahariak (35 inguru), sei arraza ezberdinetako behiak (27 bat), behorak (33), astoak eta ahuntzak (hamabi bakoitzetik), euskal txerriak (bikote bat), oiloak (hamasei bat) eta poneyak (hamar,



Zubikoa kiroldegian izango da herri bazkaria. AITOR AGIRIANO

Bazkaltzeko hainbat aukera


Kiroldegian herri bazkaria egongo da; Antixena gaztetxean txosna batzordeak antolatutako bazkaria; eta erdiguneko jatetxeak lepo egongo dira. Horrez gain, aurten, Arantzazurako autobus zerbitzua eskainiko dute, hango jatetxetara autoa hartu gabe joateko.

gutxi gorabehera). Gazta lehiaketan, berriz, hogeitau gazta espero dira.

Plazan

12:00etan hasiko da sagardo dastaketa herriko plazan. Baz-

kalostean, herri kirolak ikusi ahalko dira. Oñatiko gaztetxoekin hasiko dira, 17:00etan. Haien ostean, profesionalen txanda izango da. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoan egingo dute.



LIZKER

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

•

Lan aholkularitza

•

Kontabilitatea

•

Zerga aitorpena

Ondo pasatu sanmigeletan!

Errementari plaza 2-3 behe
OÑATI

Jai dotoreak izan!

ileak

marikarmen ile apaindegia

san lorentzo 9 a - behe

tel.: 943 71 60 46

OÑATI



Iazko danborradaren momentu bat. AITOR AGIRIANO

Entsegu orokorraren faltan, dena prest

Danborradak Eltziaiko eraikinaren aurrean hasiko du ibilbidea, eguenean. Bertan elkartuko dira partaide guztiak: danbor-joleak, barril-joleak, sukaldariak, kantinerak, txosna batzordekoak, banderadunak, zaldidunak, dantzariak eta musika banda

Itziar Larrañaga OÑATI

Jaietako lehenengo gauean, irailaren 28an, danbor hotsak izango dira protagonista Oñatin. 23:00etan hasiko da ibilbidea Eltzia eraikinaren parean, eta, urteroko moduan, plazan eman go zaio amaiera, gauerdia aldera.

"Eltzian hasteak, batez ere, denboran eragiten du", dio Iñaki Igartuak, helduen danborradako antolatzaile taldeko kideak: "Teorikoki, plazan, hamabietan jo beharko genuke San Migelen ereserkia, baina, batzuetan, luzatu egiten da ibilbidea. Hala ere, saiatzen gara ordu horretan plazan egoten".

Antolakuntza

2014an, ordura arteko antolatzailerik utzi egin zioten egiteari, eta nagusien danborrada antolatzeko batzorde bat eratze ko deia egin zen. Geroztik, batzorde horrek antolatzen du danborrada.

Konpainia bakoitzeko ardura dun bat izendatzen da antolakuntza talderako. Uztailean egiten dute lehen bilera, gauzak zehaztu eta eskaerak bideratzeko; Udalarari, elkartei... "Aurka-

koa badirudi ere, azpiegitura handia behar da danborradarako", dio Igartuak. Lan handiena, hala ere, irailean egiten da. Antolakuntza aldetik dena lotuta utzi ostean, entseguak hasten dira, danborradarako bi asteren faltan. Danborrariak jada lau entsegu egin dituzte Eltzia eraikineko aretoan; orain, azken entsegua falta da soilik. Hilaren 26an egingo da proba orokorra, Oñatiko Musika Bandarekin eta dantzariekin batera.

Danborra jotzen duten guztiek elkarrekin entseatzen dute. "Gaur egun, konpainiak, azken finean, desfilatzeko era eta arropa markatzen ditu soilik; bestela, denok bat gara", dio Igartuak. Dantzariak, bestalde, beste egun eta ordu batzuetan ikasten dituzte dantzak. Aurten kintoak hiru taldetan irtengo dira, ehun bat dantzari izango dira guztira.

AURTEN EHUN BAT KINTOK HARTUKO DUTE PARTE DANBORRADAN, DANTZARI

fontanería y calefacción

BELOKI

- Iturgintzako material salmenta
- Komun eta sukalde berritzeak
- Azulejuen salmenta
- Berokuntza eta aire girotua
- Diseinua, dekorazioa eta opariak
- Obren koordinazioa

%20ko
deskontua
erakusketan
dauden
altzarietan


Erakusketa berria

HERRIGUNEKO OSATUENA

Aurre hartu neguari eta berotu zure etxea Pellet berogailu ekologikoekin. Gasaren fakturan aldaketa igarriko duzu!



Bakardadeko Ama kalea 11 • 20500 OÑATI
Tel.: 678 46 54 58 | 943 10 52 54



LIZARRALDE

KIROLAK

ondo pasau jaixak!



ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

LEGAZPI
Patrizio Etxebarria 2
Tel.: 943 08 28 46

Pilota txapelketako finalak urriaren 1ean

Iñigo Perez eta Ibon Perez dira Oñatiko ordezkari bakarrak, eta bi anaiek elkarren kontra jokatuko dute finalean (17:00); Urriaren 8an, berriz, bote luzeko Euskal Herriko Txapelketako finalak ekarriko dituzte Oñatiko plazara (11:30)

Xabier Urzelai OÑATI

Jai egitarauaren barruan, pilota hitzorduak antolatu dituzte datozen egunetarako. Hala, ez da egongo pilotari profesionalen jaialdirik, baina San Migel Txapelketako finalek eta Herriko Txapelketako finalek ondo baino hobeto beteko dute hutsune hori. San Migel finalak Zubikoan izango dira eta Herriko Txapelketa-koak, plazako frontoian.

San Migel finalak, urriaren 1ean

Batetik, Aloña Mendiko lagunek antolatutako San Migel Txapelketako finalak egongo dira ikusgai urriaren 1ean, domeka, 17:00etan, Zubikoan. Hor, kade-



lazko pilota txapelketako finaletako bat. GOIENA

te mailan, anaien arteko lehia polita izango da. Uztailean hasi zuten txapelketak askorako eman du. 32 pilotarik hasi zuten txapelketa, bi kategoriatan banatu dituzten hamasei bikoterekin, eta finalean egongo diren ordezkari oñatiar bakarrak izango dira Ibon Perez eta Iñigo Perez, baina ez dute bikotea osatuko, aurrez aurre egongo dira biak. Hala, Iñigo Perezek Azpeitiko Alberdi izango du ondoan eta Ibon Perezek, ostera, Kuarain nafarra izango du bikotekide.

Gazte mailan, berriz, ordezkari nafarrak, arabarrak eta gipuzkoarrak izango dira. Izan ere, Uribe gasteiztarak eta Alegiko Azpitartek Iruñeko Mata eta Cordon izango dituzte aurrean.

Herriko Txapelketa 29an

Pilotari federatuak alde batera utzita, herriko pilotazaleen arteko finaletan ere saltsa ederra egongo da. Hala, txosna batzordeak antolatzen duen txapelketako finalak irailaren 29an, San Migel egunean jokatuko dituzte, arratsaldeko zortzietan, plazako frontoian.

Bote luzeko Euskal Herriko finalak Oñatin

Urriaren 8rako beste pilota ikuskizun bat ekarriko du herrira Aloña Mendik; izan ere, bote luzeko Euskal Herriko Txapelketako finalak jokatuko dituzte Oñatin (11:30, plazan).

Euskal pilotako espezialitate zaharrena da bote luzea. Bi taldeak aurrez aurre jartzen dira, tenisean moduan, eta ez da pilota hormaren kontra joz jokatzen. 60 metro inguru luzerako eremutan aritzen dira pilotariak, normalean, estalirik gabeko plazetan, eta helburua aurkariari eremua irabaztea da. Iaz, espezialitate horretako lehenengo txapelketa ofiziala egin zuten, Leitzan jokatu zituzten finalak, eta Gipuzkoa, Lapurdi eta Behe Nafarroa lurraldeek hartu zuten esku.



itusionorako hamaika arrazoi

Errosaixo Bixamona, festak borobiltzeko

Urriaren 2an ospatuko da, aurten, oñatiarrendako hain kutuna den Errosaixo Bixamona. Festetako hitzordu handia da mozorroen festa, herriko jai nagusiei bukaera ematen dien egun handia. Aurtengoak ere bikaina izateko osagaiak ditu

Miren Arregi OÑATI

Oñatiarrendako berezia da Errosaixo Bixamona. San Migel eta Errosaixo jaietako azken eguna da, eta herritarrendako kutunenetakoa. Gutxi dira egun horretan mozorroa soinean janzten ez duten oñatiarrak. Askok eta askok azken hilabeteetan egindako lana erakutsiko dute herriko kaleetan barrena. Izan ere, badira orduak eta orduak ematen dituztenak Errosaixo Bixamon Egunean kalera ateratzeko karroza dotorea egiten. Hala, herriko kale nagusiak kolorez, musikaz eta dantzaz beteko dira aurten ere, urriaren 2an, astelehena.

Goizean goiz

Goiz hasten da egun horretan festa. 09:30erako, sokamuturraren ordurako, asko eta asko mozorrotuta irtengo dira plaza. Poliki-poliki, betetzen joango dira herriko kaleak. eta 12:00etan, Oñatiko Musika Bandaren kalejira hasiko da. Harekin batera, ez da karrozek eta kuadrillek ipinitako musikarik faltako kalean.

14:30ean hasiko da bazkaria, txosnagunean. Azken urteetan paella egin badute ere, aurten menua berritza erabaki dute, eta, hala, entsalada, oilaskoa eta postrea eskaintzea erabaki dute antolatzaileek.

Arratsaldean osteria ere ekingo zaio plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean sokamuturrari, eta 20:00etan Rockalean bertsio-taldearen kalejira ibiltaria hasiko da.

DI-Bertsioak

Badira urte batzuk txosnetan herriko taldeak kontzertuak ematen hasi zirela. Batzuk urtean zehar ere musika talde bezala funtzionatzen duten taldeak dira, baina beste batzuk egun horretan soilik izango dira taula gainean. 18:00etan hasiko da txosnagunean festa, eta 20:00etan, berriz, plazan, Trakets taldearen eskutik.



Rockalean taldea, Aretxabaletan. GOIENA

Festa, Rockaleanen eskutik

Azken urteetan izan duen arrakasta ikusirik, aurten ere, Oñatiko Udalak egitarauan sartzera erabaki du. Bost musikarik osatutako taldea da Rockalean; guztiak ere, musikaren alorrean esperientzia handia duten pertsonak. Rock eta pop arloetako historiako talde handien bertsioak egiten dituzte eta herritarrek dantzan eta kantuan ipintzeko sekulako abilezia dute. Bateria, gitarra, sousaphonea, haize-instrumentuak eta ahotsa batzen dira Rockalean, eta hara eta hona herriko kale nagusietan barrena ikusteko aukera egongo da, urriaren 2an. 18:00etan hasiko dira instrumentuak astintzen eta gauera arte egongo dira kaleak girotzen. Jaia ziurtatuta dago, bost musikari bikain horien bertsio ezagunen eskutik.



- Gasa
- Berogailuak
- Pellet eta egurrezko estufak
- Eguzki plakak
- Energia berritzaileak
- Isolamendu ekologikoak: zelulosa, kortxo proiektatua eta xafla termikoak.

- Sukaldeak
- Bainurako behar duzuen guztia

Ondo pasau jaixak!

Kale Zaharra 17
Tel.: 943 71 82 49 • Mugikorra: 635 74 62 26
e-posta: e.inurritegi@gmail.com



PODOLOGIA

RPS: 309/13


Ondo pasa
sanmigelak!

Arantzazuko Ama 19 A • Oñati
Tel.: 943 53 36 37

**SANMIGELAK
2017
OÑATI**

**ETORRI GUREKIN
OSPATZERA!**

**Boga
Olakua
Aker
Urtiagain
Ongi etorri
Garoa
Zotz**





Olaitturri zabalik egongo da ibilgailua bertan uzteko. O.E.

Domekarako ibilgailuak kaleetatik kentzeko deia

Kalegoieneko lur azpiko aparkalekua eta Olaitturri ibilgailuak uzteko guneak izango dira. Bihar ez da jakien azokarik egingo eta arropena Santa Marinar izango da. Domekan 08:00etatik iluntzera arte egongo da zirkuitua itxita ibilgailuendako

Oihana Elortza OÑATI

Egun osoko jaia egongo da domekan Oñatin. Prestaketak, baina, askoz lehenago hasi dituzte eta herriko hainbat zerbitzutan eragina izango dute. Handiena zirkulazioan gertatuko da. Komeni da herri barruko kale eta espazio zabalak traba barik uztea domekarako; hau da, ibilgailu barik. Gomen dio nagusia da autoa beharrezkoa den kasuetarako soilik erabiltzea. Horretaz gain, garaieak dituztenei, autoak bertan sartzeko dei egin die antolakuntzak. Zirkuituak herriko zenbait kale eta auzo zeharkatzen dituzenez, kale mozketak izango dira nonahi; beraz, egun horretan herritik irteteko asmorik izanez gero, autoa alde zurretik erdigunetik ateratzea eskatu dute.

Itxita

Garajerik ez duten oñatiarren tzat bi gune berezi egokituko dituzte, euren autoak aparkatu

ahal izateko: Kalegoieneko aparkaleku publikoa doan izango da -68 aparkaleku- eta Olaitturri zapatu goizean irekiko da herriarrentzat -60 aparkaleku-. Kilometroetako zirkuitutik kanpo geratzen diren gainontzeko kaleetan dauden aparkalekuak erabilgarri izango dira.

Zirkuituak erdiguneko zenbait kale eta gune zeharkatzen dituzenez, bertan seinaleak jarriko dituzte. Bihar, zapatua, 14:00etatik aurrera, kale eta gune hauek ibilgailurik ezingo da egon: San Juan kalean, Bidebarrietan eta Errementari plazan, Martzelino Zelaia kalean, San Martin auzoan, osasun zentroko aparkalekuan, Eroskiko aparkalekuan, MUko aparkalekuan, Eltzian -autokarabanentzat gordeko da- eta Zubikoa kiroldegiko lur azpiko aparkalekuan.

Domekan

Domekan, 08:00etan zirkuitua itxi egingo dute eta Udanako bidea ere itxita egongo da. Jaia

19:00etan bukatuko da, eta jendea irten eta garbiketa lanak egin ostean irekiko dituzte kaleak zirkulaziora.

Egun horretan, Zubikoa kiroldegia itxita egongo da eta Arantzazura doan autobusak geltoki bakarra izango du: postetxea. Bihar, bestalde, ez da jaki azokarik egingo eta arropena Santa Marina plazan izango da.



Udaleko eta Dunak enpresako ordezkariak egon dira aurkezpenean. KONTZEJUPETIK

Hirigintzako erabakien garrantziaz jabetzeko egitasmoa

Azken 20 urteetan herriko hainbat toki zelan aldatu diren ikusiko da 'Oñati zana, dana' erakusketako argazkietan

O.E. OÑATI

Hiri Antolaketaren Plan Orokorra egingo du Udalak, baina, horrekin hasi aurretik, "hirigintza gizarteratzeko" ahalegina egin gura du, Hirigintza zinegotzi Irati Etxeberriaren esanetan. "Hirigintzan hartzen diren erabakiek asko aldatzen dute orain arte ikusitako paisaia edo ingurua, eta horixe erakutsi gura dugu erakusketan".

Erakusketa urriaren erdialderako egongo da prest eta sei astez egongo da ikusgai. 1934tik 2016ra bitartean herrian izan diren hirigintza aldaketak ikusiko dira, herriguneara zein auzoetara. Argazkiak eta planoak ikusiko dira panel erraldoietan. Gainera, Antixena parkean txoko bat egokituko dute, hirigintzari buruzko hausnarketa egiteko. "Banku batzuk jarriko ditugu solasaldietarako", zehaztu du Etxeberriak. Horrez gain,

irteerak ere egingo dituzte. "Herriko lorategi ezkontuak ikusiko ditugu. Errekaldetik parrokiako klaustoraino herria errekan behera zeharkatzeko asmoa ere badugu, baita arkitekto batzuekin egon eta berba egiteko, adibidez, azken urte horietan onerako zein txarrerako egon diren aldaketei buruz". Irteera horien abiapuntua Antixenean egokituko duten topagunea izango da. Informazio horrekin eskuorriak banatuko dituzte etxez etxe eta egingo dena ikus-entzunezko baten jasoko dute.

HAPO

Oñati zana, dana egitasmoa Dunak enpresarekin egingo du Udalak eta Hiri Antolaketaren Plan Orokorra girotzeko izango da. Plana bera Udalak esku artean duen proiektu garrantzitsuenetakoa bat da eta lizitazio prozesuan dago.



"Ikasitakoaren eta lanaren emaitza izan da"

SERGIO GIL ETA UNAI ARREGI RALLY GIDARIAK

Euskadiko Lur Gaineko Rally Txapelketa irabazi dute Sergio Gil oñatiarrak eta Oñatin bizi den Unai Arregi antzuolarrak. Pozik daude biak lortutakoarekin

Iker Oñate OÑATI

Euren mailako ibilgailuen arteko lehia egotea zuten helburu txapelketan parte hartzea erabaki zutenean. Baina irabaztea lortu dute. Unai Arregi izan da gidaria eta Sergio Gil albokoa. **Emaitza ez da lasterketa bakararren fruitu. Lan handia daroazue soinean?**

Sergio Gil: Urte osoko lanaz gain, azken urteetan ikasitakoaren eta pilotutako esperientziaren ondorio dela esango nuke. Nota sistema hobetzeko kurtso bat egin genuen. Lurgaineko rallyetan, ibilbideko notak hartzeko, behin bakarrik pasa gaitzeko bertatik. Horregatik, garrantzi handia du nota onak egitea, gero, lasterketako lehenengo erlojupeketik hasita, konfiantza eta erritmo onaz joan ahal izateko.

Oro har, nola joan da denboraldia? Unai Arregi: Oso ondo. Orain arte egin ditugun sei rallyetan helmugara iristea lortu dugu. Zorionez, autoan ez dugu matxura handirik izan, ezta kolpe-rik ere, eta hori da guretzat saririk onena, rallyaz disfrutatu ostean autoa osorik etxera eramatea bueltan. Horri esker, oso erregularrak izan gara txapelketa osoan zehar, eta hau izan da txapelketa lortzeko gakoetako bat. Los Arcosen hasi genuen txapelketa, apirilean, maiatzean Cintruenigon jokatu zen bigarren hitzordua eta uztailean Ultzaman hartu genuen parte. Aurreko asteburuan, berriz, azken proba jokatu genuen Baños de Riojan.

Nola prestatzen da halako txapelketa bat?

U.A.: Rallyen denboraldia azaroan bukatzen da eta martxoak arte dagoen geldialdia aprobetxatzen dut autoa errebisatzeko eta, aukera izanez gero, hobe-kuntzaren bat egiteko. Lan hauek guztiak nik egiten ditut, libre dudan denbora apurra aprobet-



Sergio Gil eta Unai Arregi, txapelketa irabazi duten autoarekin. SERGIO GIL

"ASFALTOKO RALLYREN BAT EDO BESTE EGINGO DUGU DATORREN DENBORALDIAN"

txatuz, Antzuolako baserrian dudan txokoan. Gero, denboraldiko lehen proba gerturatzen denean, nota sistema pixka bat lantzen dugu, lasterketa egunean freskoago edukitzeko, eta zirkuitura joaten gara autoa probatzera, lasterketa erritmoa hartzeko.

Beti izaten da lasterketa kutunen bat... Zein da zuena? Zergatik?

S.G.: Zaila da bat aukeratzea, baina urtero gogo eta ilusio handiz hartzen dugu Nafarroan, Los Arcosko zirkuitu inguruetan, egiten den rallya. Espainiako Lur Gaineko Rally Txapelketa-rako puntuagarria da, eta, normalean lehiatzen garen beste probekin konparatuta, luzeagoa da. Hemen 90 kilometro inguru izaten ditugu erlojuaren kontra hiru tramu ezberdinetan banatuta, eta beste rallyetan 30 kilometro inguru.

Zenbat urte daroazue bikote gisa. Nola jardun duzue orain arte?

S.G.: Aurtengoa batera egin dugun laugarren urtea izan da. Unai 2012an hasi zen; kuadrillako beste lagun bat ibili zen bi urtez kopilotu lanak egiten, eta denbora faltagatik utzi behar izan zuenean hartu nuen nik haren lekua. Orain arte, inguruetako probintzietan gustukoen genituen lur gaineko rallyetan lehiatzen ibili gara, txapelketa bat osorik jarraitu gabe. Aurtengoa, Euskadiko Automobilismo Federazioak Euskadiko Lur Gaineko Txapelketa antolatzea erabaki zuen, eta, horretarako, Nafarroako eta Errioxako lau rally puntuagarri aukeratu zituen.

Aurrera begira, zer?

U.A.: Datorren urtean lur gaineko rallyetan jarraituko dugu parte hartzen auto berarekin, baina helburu nagusia lagunekin konpartitzen dugun afizioa onetaz disfrutatzen jarraitzea da. Aurtengoa berriz lortzea zaila izango da. Lur gaineko rallyez gain, seguruenez, asfaltoko rallyren bat edo beste ere egingo dugu; modalitate hori probatzeko gogoz nago.

Izarraitz Muñozek bihar hasiko du denboraldia

Urdulizen jokatu du txapelketako lehen partidua; denboraldiari ekiteko "gogoz" daude oñatiarrak

I.O. OÑATI

Izarraitz Muñoz Aloña Mendik zapatuan hasiko du denboraldia, Urduliz eskubalo taldearen aurka jokatu duen partiduekin; 20:00etan dute hitzordua, Urdulizen.

Bada, denboraldiari ekiteko "gogoz" dira oñatiarrak. Aitor Aranburu entrenatzaileak esan du partidua gogorra izango dela: "Taldea gogorra da; are gogorragoa, etxean jokatzeko duenean. Beraz, gauzak ongi egin beharra izango dugu, partidua irabazi nahi badugu".

Orain artean egindakoarekin gustura da Aranburu. "Gogor jardun dugu denboraldi-aurrean. Bost partidua jokatu ditugu, eta bakarra galdu", dio. Orain, bolar horri jarraipena ematen saiatzea dagokie.

Asteburuko norgehiagoka irabazteak duen garrantzia azpimarratu du Aranburu. "Aurrea begira, garrantzitsua izan ohi da denboraldia garaipen batekin hastea", azaldu du. Datorren asteburuko partidua atzeratu egin dute, sanmigelengatik, jokatzeke kantxa topatu ezinda.

Saskibalo taldeak Zarautzen hasiko du liga bihar, zapatua

Gipuzkoako Lehen Mailan jokatu dute eta maila horri eustea da taldeak duen helburu nagusia

I.O. OÑATI

Aurreko urtean maila galdu ostean, Gipuzkoako Lehen Mailan jokatu du aurtengo Aloña Mendi saskibalo taldeak, eta, hasiera batean, maila horri eustea izango da taldearen helburua, "Multzo indartsua egokitu zaigu, sona handiko taldeak baitaude. Hori bai, ez dakigu askorik mailaren gainean; urte asko dira bertan jokatu ez dugula. Horregatik, oraingoz, salbazioa dugu helburu. Partiduek aurrera egin ahala joango gara helburu errealek zehazten",

adierazi du entrenatzaileak, Aitor Ugartek.

Denboraldi-aurrearekin pozik dago Ugarte: "Urte asko dira elkar ezagutzen dugula eta badakit bakoitzak zein ekarpen egin diezaiokeen taldeari". Aurtengo garaipenetan jokalaria gazteek zeresan handia izango dutela gaineratu du.

Kilometroak festa dela eta, domekatik zapatara aldatu dute partidua. Zarautzen izango da, bihar, 20:30ean, Zarautz Zast taldearen kontra.

Herriko gaztetxean kontzertua egongo da domekan

Kilometroak jaia aprobetxatuz, domekan kontzertua izango da Antixena gaztetxean, 14:00etan hasita. Trigger (Aretxabaleta) eta Gorpunzkingz (Bidasoaldea) taldeek jardungo dute agertoki gainean. Eguraldi ona bada, Antixeneko parkean egingo dute ekintza; hain zuzen, Abaigarko euskal udalekuetara bideratuko dute batutako dirua.

Argazki erakusketa eguaztenetik aurrera herriko plazan

Ilunpetan argazki taldearen ekimenez, Begi Bistan erakusketa egongo da ikusgai eguaztenetik hilak 27- aurrera herriko plazan. Herriko txoko ezberdinen irudiak egongo dira ikusgai. Herriarrek argazki gustukoena bota dezakete ilunpetan@gmail.com-era idatziz. Ostean, argazkiak zozketatuko dituzte iritzia eman dutenen artean.

Bizkotxoaren errezeta gura dute herritarrek

Oso harrera ona izan du Oñatiko bizkotxoak. Eguaztenean eman zuten probatzeko kultura etxean eta errezetaren gaineko galdera asko egin zituzten hara joandako herritarrek. Domekan eta Herri Egunean kalean emango dute probatzera

Oihana Elortza OÑATI

Jakin-mina piztu du Oñatiko bizkotxoak. Ez horrenbestekoa, agian, noizkoa den jakiteko, baizik eta nola eginda dagoen. Ze osagai dituen. Errezeta.

Aurkezpena

Horixe antzeman zen, behintzat, eguaztenean jendaurrean egin dako aurkezpenean. Eta harre-
ra ona izan duela ere bai. Amaie-
ran, bizkotxoak nori gustatu zaion
galdetu zuen Antton Azpiatzuk,
eta denek jaso zuten eskua.

Hitzaldia egin zuten, lehenen-
go, Antton Azpiatzuk, Raul Fer-
nandezek eta Lauren Buscak,
herriko ondare gastronomiko
horren nondik norakoak azal-
tzeko. Azpiatzuk, esaterako,
1925ean ABC egunkariak Oña-
tiko bizkotxoari buruz jasotako
artikulua irakurri zuen.

Azpiatzu eta Busca nor bere
kasa hasi ziren gozo horren ja-
torria ikertzen, topo egin zuten
arte. Historia jakinda, errezeta
berreskuratu eta bizkotxoak
egin behar zirela pentsatu zuten
eta Fernandezekin jarri ziren
harremanetan Azpiatzu eta Ar-
tixa elkarteko kideak. "Topatu-
tako errezetekin proba asko egin
ditugu, bizkotxo ezberdinak
prestatu; izan ere, lehengo erre-
zetari gaur egungo ukitua eman



Zati txikietan banatuta eman zuten probatzeko bizkotxoak. AMAIA TXINTXURRETA

ZAHARRAREN HIRU OSAGIAK DITU BERRIAK: IRINA, ARRAUTZAK ETA AZUKREA

gura genion. Horregatik, oina-
rrizko hiru osagaiez gain –arrau-
tzak, irina eta azukrea–, beste
hauek ere gehitu dizkiogu: limoia,
kanela eta ron pixka bat. Gu
gustura gaude emaitzarekin",
kontatu zuen gozogileak.

Errezeta

Bizkotxoak propio egindako ka-
xetan salduko dituzte eta barruan
beste bi elementu hauek ere
egongo dira: jatorriaren historia
laburra jasotzen duen testu bat,
Artixak prestatutakoa, eta biz-
kotxoaren errezeta.

Txokolateixian eta Aizpeko
produktuak egoten diren komer-
tizioetan egongo dira salgai Oña-
tiko bizkotxoak. Kilometroak
festan eta Herri Egunean, baina,
mahaiak jarriko dituzte; dome-
kan, Foruen plazan eta Herri
Egunean talogileen ondoan.



Udal ordezkariak eta teknikariak jaien egitarauaren aurkezpenean. ANABEL DOMINGUEZ

Jaiak askatasunez ospatzeko bermeak jarriko ditu Udalak

Jeltzaleek eskatu dute prebentzio programak egitea eta jaietan udaltzainen zerbitzua gauetara luzatzea

O.E. OÑATI

Ez ezetz da mezua indartu eta zabaldu egin gura du Udalak aurtengo jai nagusietan, eta aurreko urteetan baino baliabide gehiago jarri ditu, "jaiak askatasunez gozatzeko", adierazi du Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak. "Zorrotzak izango gara gai horretan eta baliabideak jarriko ditugu. Eskuorriak, pegatinak, tatuajeak eta preserbatiboak ere banatuko dira. Egu-bakoitzean bideo bat zabalduko dugu, erasoei nola aurre egin eta autodefentsa nola egin erakusteko. Horrez gain, jaietatik

kanpokora dauden gauzak ere aintzat hartu behar direla ulertzen dugu, zaintza, esaterako, eta mezu hori ere zabalduko dugu", zehaztu du Zubiak.

Euzko Alderdi Jeltzaleko udal taldeak prebentzioa lantzen jarraitzeko urtean zehar hainbat programa garatzeko proposatu dio Udal Gobernuari, eta jaietan Udaltzaingo zerbitzua gauetara zabaltzea eta kale-hezitzaileen zerbitzua indartzea.

Jaietako egitaraua eguaztenean aurkeztu zuten eta informazio guztia zenbaki honetako gehigarri berezian dator (21. orria).



NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE

Lekaixoka

Lekaixua beti lotu izan dut pozarekin, poz-algararekin. Lekaixoka aritzeak poza, alaitasuna, ilusioa, bizitzeko gogoia adierazten du. Xabier Amuritzak idatzi eta Imanolek ahotsa jarritako abesti bateko zati batek honela dio: *Mundua ez da beti jai inoiz tristea ere bai/ baina badaude mila motibo kantatzeko alai*. Iruditzen zait koplak horrek oso ondo laburtzen duela domekakoa. Ikastolaren ibilbidean dena ez da izan lekaixua. Izan dira une gogorak, negarrak, nekeak, eztabaidak... Hau guztia ere gure historiaren zati bat da. Beste norbaitek "izan ginelako gara eta garelako izango gara" esan zuen. Bat nator.

Eskolak eta ikastolak eragile nagusi izan dira jendartearen aldaketan, kultura berritzen. Eta horixe da nik ikastolari eskatzen diodana, gizartea eraldatzen jarraitzea, baloreak lantzen, herria justuagoa eta berdina egiten laguntzen jarraitzea. Domekan ospatzea tokatzen da, lekaixoka aritzea. Baina ez ahaztu: ondo pasatu, pasatu barik!

Etorriko da astelehena eta lanean jarraitu behar dugu, elkarlanean, auzolanean.



PILI ARZUAGA
HERRITARRA

"Nire gusturako, kanela larregi dauka, ez naiz kanela-zalea. Baina testura aldetik oso gozosa iruditu zait, ondo harrotuta".



BEGOÑA URRESTARAZU
HERRITARRA

"Ez nuen honen berri. Gaur probatu dut eta gustatu zait. Eta tarteka erosiko dut bai, neu ez naiz-eta gozogile ona".



ARRATE KORTABARRÍA
HERRITARRA

"Amak egiten zuen txikia nintzenean eta gogoan dut zaporea. Oraingoa ere asko gustatu zait".

Eguraldi txarrari, aurpegirik onena

Sanmartinak bergarrendako jai kutunak direla argi geratu da aurten ere, ekintza gehienak izan dira-eta jendetsuak: helduen zein umeen danborradak, Huntza taldearen, musika bandaren eta Munibeko txosnaguneko kontzertuak, umeendako goitibeherak...

Jokin Bereziartua BERGARA

Eguraldi txarrari aurre eginez, bergararrek ederto erantzun dute San Martin jaietan. Udaleko Kultura Sailaren arabera, helduen danborradaren arrakasta izan da aurtengo jaietako izarra. "Danborrada geroago eta errotuago dago herrian; aurten ere, euriaren beldur, ibilbide motza egin zen. Azkenean, baina, danborradaren ibilbidean zehar ez zuen euririk egin eta parte hartu zuten danbor-joleek gogotsu astindu zituzten danborrak". Danborradaren osteko San Martin Agirreren gurutziltzaketaren errepresentazioan ere jende asko elkartu zen: "Valen Moñuxek gidatutako ikuskizuna ikuslea aho bete hortz uzteko modukoa izan zen". San Martin egunean, hilak 16, umeen danborrada ikusteko bete egin ziren herriko erdiguneko kaleak.

Urterokoak ez diren ekitaldien artean, Huntza taldeak zapatu iluntzean eman zuen kontzertua nabarmendu dute: "Aspaldi ez genuen kontzertu batean San Martin plaza horrela ikusten. Arratsaldeko zortzietarako antolatutako genuen propio, adin guztietako herritarrek aukera izan

zezaten kontzertuaz gozatzeko. Zenbait gaztetxo hurbildu ziren udaletxera euren ustez kontzertu hori gauean egin beharko litzatekeela esanez. Ordutegia ez genuen aldatu, kontzertuan ahalik eta jende gehien egoteko. Hala ere, proposamen guztiak ongietorriak izaten dira".

Beste nobedade bat izan da umeendako goitibeheren zirkuitua jarri zutela domekan Herri-lagunak kalean: "Jai nagusietan ez zen egin euriagatik, eta horregatik erabaki genuen sanmartinetan antolatzea. Erantzun ona izan zuen". Gainerakoan, Kultura Sailaren arabera, ez da intzidentzia aipagarriarik izan.

Munibeko gunea ere, errotzen

Xaxau konpartsak bigarren urtez egokitu du txosnagunea Muniben. "Jaiak ondo joan dira. Bagabiltza leku bat egiten sanmartinetan ere bai, nahiz eta bi urteotan eguraldiak ez duen batere lagundu. Aurten ere euria, hotza... neguan geundela zirudien", adierazi du Xaxauko Maddi Aspiazuk. Eguraldi txarrarekin ere jendea ibili da Munibe plazan; aurtengo ekintzen artean, irailaren 9ko bertako

produktuekin egindako herri bazkaria nabarmendu du Aspiazuk: "Debagoienean hainbat nekazari eta ekoizle ditugu eta herriko gazteek nekazari horien produktuen aldeko apustua egiten dutela ikustea pozgarria da guretako. Bertako baserritarren lana balioan jartzeko modu bat da". Gainera, irailaren 16ko kontzertuetan ere jende asko elkartu zen: "Jendeak interesa agertu du eta gure apustua izango da sanmartinek ere aurrerantzean txosnagunea izatea".



Nagore Aramendi, pilota astindu ostean.



Umeen danborrada Barrenkaletik; aurten 250 bat umeek hartu dute parte.



Helduen danborrada Irala kalean; euririk ez egin arren, ibilbide motza egin zuten.



Huntza taldearen zuzenekoan goraino bete zen San Martin plaza.



Umeendako goitibeherak domekan.



Muniben jende asko ibili da aurten ere; irudian, Tacumah taldearen kontzertua.



Bandak frontoia bete eta hunkitu zuen hilaren 16an. ARGAZKIAK: I. SORIANO, A. AGIRIANO ETA XAXAU

Hitzarmena, bezeroek ez dezaten herritik ihes egin

Udalak, Bedelkarrek eta Bazkondeak hartutako konpromisoen artean daude, adibidez, sei hilabetetan lau ekitaldi antolatzea; helburuak dira "arazo nagusia" den erosleen ihesa galaraztea, dendetara bisitak sustatzea eta Bedelkarren bazkide kopurua handitzea

Jokin Bereziartua BERGARA

Gipuzkoako Bazkondeak, Udalak eta Bedelkarrek sinatu berri duten lankidetzak hitzarmenak herriko merkataritza sektorearen garapen sozioekonomikoa bideratzea du helburu. Udalarren eta Bedelkarren eskariari erantzunez, hiriguneko merkataritzaren momentuko egoera aztertu eta Bergarako merkataritza-enpresen lehiakortasuna hobetzea eta balioestea proposatu du Bazkondeak. Hiru helburu lortu nahi dira: kontsumitzaileen ihesa eragozteko, dendetara egiten diren bisitak sustatzea eta Bedelkarren bazkideen kopurua hazten jarraitzea.

Erosleen ihesa da, Bazkundeko Lurralde Ustiapenerako zuzendari Amalur Angiozarren esanetan, egungo arazo nagusia: "Horren kontra borrokatzeko ekintzak beharrezkoak dira; merkatariek, nahiz eta maila oso handia izan, ezingo dute ezer egin eroslerik ez badute".

Formakuntza eta aholkularitza

Horri aurre egiteko lan proposamena bi fasetan garatuko da: lehenengoan, merkatariei beharrezko ezagutza eta tresnak emango zaizkie, eta bigarren, jarduerak erabaki eta gauzatzeko aholkularitza eskaini. Bigarren parte horren barruan, hilean behin ekintza zehatz bat antolatzea dago aurreikusita. "Jendea Bergarara erakarri behar dugu, baina ez hori bakarrik. Jende hori dendetara sartu behar da gero, eta, horretarako, jakin behar dute zein denda dauden eta zein eskaintza duten. Aldatuko duguna izango da komunikatzeko era", gaineratu du.

Merkatariz merkatari egingo dute lan, lehendabizi. Hala ere, merkataritza eta ostalaritza "oso lotuta" daudenez, bi sektoreen arteko ekintza bateratuak planteatu behar direla dio Angiozarrek. Bedelkarrek gustura har-



Udaleko, Bedelkarko eta Bazkundeko ordezkariak astelehenean. G. ARANA

HERRIKO HOGEI KOMERTZIO BATU DIRA; 27.000 EURO DA AURREKONTUA, BEZ GABE

tu du erronka. "Oso lagungarria izango da komertzio bakoitzaren kasua ezagutzea eta hobekuntza pertsonalizatuak proposatzea", uste du Bedelkarko presidente Maitane Azkaratek. Hala ere, komertzioen aldetik inplikazioa eskatuko du: "Interesgarria izango da, baldin eta komertzioak aktibo bagara".

Udaleko Ekonomia Sustapen zinegotzi Sabino Azkaratek dagoeneko hainbat ekintza egiten direla nabarmendu du, baina harago joan gura izan dute: "Bazkundera jo genuen zerbait ezberdina egin gura genuelako, eta euren proposamena oso interesgarria iruditu zitzaigun, bai Udalarri, bai Bedelkarri". Hitzarmenak hiru urrats aurreikusten ditu: formakuntza orokorra, aholkularitza pertsonalizatua eta lau ekitaldi antolatzea: "Ekitaldi horietan ikusiko litzateke nola eza-

rri diren hitzarmenean jasotako neurriak". Oraingoz, hogeikomertzioek eman dute izena. Prozesuak sei hilabete iraungo du eta hiru eragileek jarraipen bilerak izango dituzte hamabostean behin. Aurrekontua 27.000 euro da, BEZa kontuan hartu gabe.

Aldaketak hondakinen bilketan
Bestalde, urriaren 1etik aurrera komertzioetako hondakinen bilketan aldaketak izango dira. Hasteko, errefusa kaleko edukiontzietan bota beharko da eta edukiontzia zabalteko txartela izango dute merkatariek. Organikoari dagokionez, batetik, 60 litro baino edukiera txikiagoko edukiontzia erabiliko dute txartelarekin eta, bestetik, 60 litrotik gorako edukiontzia dutenei, orain arte moduan, atean jasoko diete organikoa. Martitzen, eguen eta zapatu goizetan komertzio bakoitzari bere edukiontzia jasoko diote, 10:00etarako. Eguaztenean bilera egin zuten, txartela eman eta aldaketen berri emateko; hala ere, egoterik izan ez zutenek datorren astean jaso ditzakete txartelak, hondakinen bulegoan -09:00etatik 14:00etara-.



NIRE USTEZ

IOSU ELORZA

Adio uda!

Eman diogu hasiera ikasturte berri bati. Sanmartinak pasata, ez zaigu aitzakiarik geratzen normaltasunera itzultzeko. Hasi aurreko gai berdinekin eman diogu amaiera udari; ez da besterik albistegi, egunkari edo irratiari. Modu baketsu baten euren etorkizuna erabakitzeke nahia duten milaka herritarren aurka joateko asmo irmoa azaldu zuen gobernuak uda aurretik, eta, zoritxarrez, asmo horiek areagotu egin dira. Ikusteko dago datorren asteburuan zer gertatuko den.

Udako bueltak baditu bere gauza onak ere; tira, bueltatu behar hori arintzen digutenak, hobeto esanda. Futbolzaleontzat, asteburu Agorrosinen edo Ipintzan partiduak ikusi eta zerbait hartuz sortzen den giroak eta sanmartinak, herrian hain kutunak diren jaiak, esaterako, urtero ditugu zain uda bukatzerako. Ez da erraza, ez, udari agur esatea. Baina lasai egon, konturatu orduko Gabonak gainez izango ditugu eta. Bitartean, milaka aukera izango ditugu normaltasun hori berezi egiteko. Gure herriaren etorkizuna erabakitzeke aukera izan beharko genukeen bezala, gure bizitza ahalik eta hobekien bizitzeko eskubidea dugulako!

Boluko frontoia estali edo ez erabakitzeke galdeketa zapatuan

Biharko, irailak 23, Boluko frontoia estali edo ez erabakitzeke kontsulta loteslerako 1.262 herritar daude botoa ematera deituta. Mahai bakar bat jarriko dute auzotarrek botoa eman ahal dezaten, Beart elkartearen lokalean -Bolua kalea 47-. Botoa emateko ordutegia honako hau izango da: 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Nortasun agiria, pasaportea edo gidabaimen originala erakutsi beharko da.

Estaltzea onartuko balitz, estalkirako 150.000 euro baliatuko lirateke eta irisgarritasuna, argiteria eta soinu murrizketa bermatzeko, berriz, 40.000 euro inguru. Guztira, 190.000 bat euro.

OHARRAK

'Oparitu zuhaitz bat'

Irailaren 28an elkartuko dira, liburutegian (19:30): lan istripuak, Fiare banku etikoa, kooperatiba energetikoak eta *Oparitu zuhaitz bat* ekimena.

1942an jaiotakoak

Urriaren 7an Baztanera joango dira. Izena eman behar da irailaren 30a baino lehen 50 euro ordainduta kontu korronte zenbaki honetan: 3035 0009 10 0091151403.

1948an jaiotakoak

Irailaren 30ean Albaola faktoria bisitatuko dute. Izena emateko 60 euro ordaindu behar da Laboral Kutxan propio ireki duten kontuan, hilaren 23a baino lehen.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Eraso matxisten aurrean, erantzun bateratu bila

Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak bilera irekia antolatu du bihar goizerako gaztetxean; 2018ko urrian Bilbon egingo den nazioarteko topaketa antolatu eta eraso matxistei era "egokian eta bateratuan" aurre egiteko protokoloa berritu gura dute

Jokin Bereziartua BERGARA

"Euskal Herriko talde feministak elkartu gura ditugu gaztetxean, indarkeria matxistari aurre egiteko alde aurretik landu dugun protokoloa guztion artean berritzen joateko. Dokumentu hori indarkeria matxistari aurre egiteko erreminta moduan erabili gura dugu". Berba horiekin azaldu du Bergarako Martxan-teretako kide Luciana Alfaro biharko, zapatua, gaztetxean antolatu duten jardunaldiaren helburu nagusia. "Aste honetan bertan beste kasu bat bizi izan dugu Ustaritzen; egoera ohiko bihurtu da, tamalez, baina ezin dugu onartu", gaineratu du.

Euskal Herrirako sortu den protokolo horretatik nabarmendu beharreko aldagai nagusia da indarkeria matxista ezin dela genero ikuspegitik bakarrik ulertu: "Beste indarkeria batzuk ere hor daude. Guk biolentzia transistemiakoak deitzen ditugu: arrazismoa, neokolonialismoa... Biolentzia horiek ere eragin zuzena dute emakumearen gorputzean eta bizitzan. Euskal Herrikan kanpo indarkeria matxista genero ikuspegitik bakarrik lantzen da, baina Euskal Herriko Mundu Martxaren barruan harago doa hausnarketa, konfliktuagora da".

Eraso matxisten aurrean eman beharreko erantzuna "egokia eta bateratua" izan dadin ekin-tza zehatz batzuk planteatzen dira aurtengo uztailen adostutako azken dokumentuan. Elkarretaratzeaz eta manifestazioez aparte, erailekoen izena herrietan jartzea eta haien memoria indibiduala aldarrikatzea; muralak margotzea; agerraldi zaratzuak egitea; informazio orriak banatzea; "kontzientziak astintzeko eta erasotzaileak barregarri uzteko" bakarrikzeta antolatzea... Emakumeen Mundu Martxakoek argi utzi gura izan dute proto-



2015eko Mundu Martxa Bergarara etorri zeneko bazkaria, udaletxeko arkupeetan. GOIENA

GOIZ OSOA HARTUKO DU JARDUNALDI AK ETA ANTOLATZAILEEK DIOTE ATEAK EDONORI DAUDELA ZABALIK

koloa "dokumentu amaigabea eta dinamikoa" dela: "Eztabaida eta jakintza kolektiboaren fruitu izanik, borroka feministaren joan-etorriek osatuko eta moldatuko dute".

Protokoloaz gain, 2018ko urrian Bilbon egingo den nazioarteko topaketara begira ere jarriko dira lanean eta, besteak beste, topaketa horri begira antolatu beharreko ekintzak izango dituzte hizpide.

Protokoloa hedatu beharra

Biharko jardunaldiarekin, talde feministen konpromisoa indartu gura dute: "Protokoloa bere egin behar dute eragile feministek, auzoz auzo zabaldu beharra dago Euskal Herri osoan". Baina zergatik antolatu Bergaran Euskal Herri mailako jardunaldi bat? Honela erantzun du Alfaro: "Gogoratu behar da 2015eko

urrian Mundu Martxa hemendik pasatu zela. Debagoiena oso eskualde aktiboa da, eta horren adierazle da, hain zuzen, 2015eko martxan bailarako taldeek eman zuten erantzuna". Horrez gain, *Herri-hiri* izeneko metodologia ere hitzartu dute, bilera bat Gasteizen, Bilbon edo Donostian egiteko eta beste bat talde feministaren bat duen Euskal Autonomia Erkidegoko herriren baten egiteko: "Ez dugu nahi dena hirietan geratzea, herrietan ere badago eta mugimendua".

Biharko bilera irekirako egitaraua

Goiz osorako plana izango dute bihar gaztetxean. Kanpotik datozenei harrera egin (09:45) eta jardunaldia aurkeztu ondoren (10:00), nazioarteko topaketen aurkezpena egingo dute (10:30). Eta hamaiketarako atsedean hartu ostean protokoloa berri-tzeari ekingo diote bertaratutako guztien artean. Alfaro biharko jardunaldian parte hartzeko dei egin du: "Akaso badago jendea mugimendu feministan ez dabilena, baina bilera interesgarria izan daitekeela uste duena. Horiei ere zabal-zabalik egongo dira gaztetxe ateak".



GOIENA

Aukeran konpainia omendu dute

Diputazioak Edu Murumendiaren bergararra zuzendari duen Aukeran dantza taldea omendu du. Hogei urte bete dituen konpainiari esker euskal dantza "agertoki handietan" ikusi ahal izan dela nabarmendu zuen Kultura diputatu Denis Itxasok. Edu Murumendiaren omenaldia eskertu zuen: "Fusioak beti dira interesgarriak eta bideak, zuzenak edo ez, baina beti saiatu gara berritzen".



UDALA

Erasmus: Alemaniatik Bergarara

Alemaniko Wiesbaden hiriko hamalau gazte Bergaran daude, Erasmus+ elkartruke esperientziari esker. Helburua da Europako gazteak jabetzea berrikuntzak duen garrantziaz. Hala, Bergararen proposamenaren ardatza Laboratorium museoa da. Gazte alemaniarrek domekara arte egongo dira; urriaren 9tik 15era, hamalau gazte bergarar joango dira Wiesbadenera.

Bazkide berrien bila aurkeztuko ditu BKEk futbol saileko taldeak

Bihar, zapatua, BKEko futbol saileko lehen taldearen eta Zaurutzen arteko partiduaren ostean, 18:30 aldera, 2017-2018 denboraldian lehiatuko diren hamabost taldeak aurkeztuko dituzte Agorrosin futbol zelaian. Aurkezpena egiteaz gain, bazkide kopurua handitu gura dute, bereziki 18 eta 26 urte artekoekin. "Gaur egungo bazkideen batez besteko

adina nahiko altua dela ikusita, zuzendaritzak jende gaztea erakartzeko ahalegin berezia egin du". Ahalegin horren barruan dago adin tarte horretarako propio ateratako abonua, urte osorako 40 eurokoa dena. Bazkide ez direnendako prezioak mantendu egingo dira: sarrera orokorrak sei euro eta erretiratuenak zein gazteena, berriz, hiru euro. Bihar informazio puntua jarriko dute Irailan, 11:00etatik 14:00etara, eta partiduan zehar ere banatuko dute informazioa.



Kokein taldearen promoziorako erretratua; gaur, baina, hiru taldekide izango dira taula gainean. EGUBAKOITZAK KARTZELAN

"Akustikoan ere ikusleak animatu egiten dira"

Egubakoitzak Kartzelan ekimenaren barruan, Kokein taldearen kontzertua eta Txabela Bragasen antzezlanaren egongo dira ikusgai gaur (22:00). Kokein taldeko Zaloa Urainekin egon da GOIENA, emanaldi bereziaren gainean berbetan

Xabier Urzelai BERGARA

Dagoeneko sei edizio daramatza Egubakoitzak Kartzelan kulturA ekimenak, eta gaurko (22:00, Bergarako gaztetxea, 3 euro), musika eta antzerkia bateratu gura izan dituzte antolatzaileek. *Kontzertu lasaiak Bergarako Gaztetxeko kanpo eszenatokian* iragartzen du antolatzaileek irail honetarako zabaldu duten kartelak, baina Kokein taldearekin ez dago garbi hori beteko denik, nahiz eta formatu akustikoan izan: "Ez pentsa, Motorhead taldearen bertsioak ere jotzen ditugu akustikoan, eta emanaldiak aurrera egin ahala jendea animatu egiten da", dio, barrez, Zaloa Urainek.

Distortsio barik, baina indarrez

Akustikoan izanda ere, taldeko abeslariak ez du horren garbi eztarria urratuko ez duenik: "Emanaldi bereziak dira, hiru lagun igotzen gara taula gainera, eta gure abestiak gustuko ditugun beste abesti batzuen

bertsioekin tartekatzen ditugu. Uste dut jendearendako oso formatu gustagarria dela, hori da guri iristen zaiguna, behintzat, orain arte oso harrera ona izan dugulako. Eta horrekin batera, guk oso gustura egiten ditugun kontzertuak dira hauek".

Halako emanaldietan sortzen den giro intimoan, Urainek aitorzen du taldea biluztu egiten dela: "Taldea edo abestiak eurak geratzen dira biluzik, gitarren distortsioak alboratu egiten ditugu, estalki hori kendu egiten dugu, eta gordinago geratzen da dena. Eta momentuaren eta lekuaren arabera, ohi baino emanaldi lasaiagoak izaten dira, baina ez beti".

Txabela Bragasen emanaldia

Kokeinekin batera, Txabela Bragasekin talde bizkaitarraren emanaldiak osatuko du gaua; duela urte batzuk *zoro* batek *zoroetxeko* horman idatzi zituen hitzak ezagutaraziko dituzte emanaldian.

Txapa Irratiko ateak zabalik

Hain zuzen, Egubakoitzak Kartzelan emanaldiak zuzenean eskaini izan dituen Txapa Irratiak dei egin du gaur ikasturte hasierako ekitaldian parte hartzeko (19:00, gaztetxea). Irrati libreko ateak irekita daude, eta proiektuan parte hartzera gonbidatuta daude zerbait esateko duten herritarrek.



JOSU BILBAO

Zortzi talderekin lanera BKE

BKEko saskibaloi sailak aurten izango dituen zortzi taldeak aurkeztu zituen domekan: "laz baino talde bat gehiago dugu, aurrera goaz, eta pozik gaude", adierazi zuen Marian Melladok. Zortzi talde horietatik lau gizonezkoenak dira eta beste lau emakumezkoenak. Eta horrekin batera, saskibaloi eskolan gazte mordoak izango dituzte aurten ere.

Osintxuko II. Mendi Lasterketako izen-ematea zabalik dago

Urriaren 8an egingo dute proba (domeka), eta urriaren 6a izango da izena aurrez emateko azken eguna

X.U. BERGARA

Osintxuko auzotarrek iaz antolatutako lehenengo mendi lasterketa arrakastatsua izan zen. Eguraldiak lagundu egin zuen, 100 lagun inguru batu ziren irteera puntuan, eta 10 kilometroko lasterketa azkarrean mendi lasterkariak erritmo bizian ibili ziren. Distantzian motza, baina gorabehera handikoa, Iñigo Alzolak eta Maddi Mujikak saio puntu ona erakutsi zuten lasterketa irabazita, eta beste proba batzuetara begira entre-

namendu saio aparta izan zela azpimarratu zuten.

Bada, Txurigo Kirol Elkarteko lagunak bigarren edizioa antolatzera animatu dira, eta urriaren 8an izango da hitzordua (10:30, Osintxuko plaza). Izena aurrez emateko azken eguna urriaren 6a izango da, eta *herrikrosa.eus* webgunearen bitartez egin behar da. Antolatzaileek gehienez 160 lagunendako tokia gorde dute, eta lasterketan parte hartzeko 10 euro ordaindu behar dira.

IGANDEAN KILOMETROETARA!

Antolatzaileak:

Ikastolenelkartea

Txantxiku Ikastola

Taldearen babeslea:

ERREKA

ERRONKA

KMK OÑATI

Bergarako Aranzadi Ikastolako taldea

"Buruzagia emakumea izatea ere posible da"

LOURDES ODRIOZOLA IKERTZAILEA

Antzuolako Alardea "herriak sortu duen altxorra" dela dio Lourdes Odrizola ikertzaile irundarrak; parte hartzailea den ekitaldiak "etengabeko eboluzioa" duela ere badio

Maider arregi ANTZUOLA

Lourdes Odrizolak Mairuaren Alardea ikertzen dihardu. Abendurako prest izango du, ondoren herritarrei aurkezteko.

Zein da ikerketaren helburua?

Helburua da Mairuaren Alardea noiz eta zergatik sortu zen, izandako aldaketak zergatik izan dituen... jakitea. Ikuspuntu orokorra bazegoen; baina neuk dena hankaz gora jarri dut. Udal Artxiboko dokumentazioa, fakturak, Udal Batzordeko aktak... dena berriro begiratzen hasi naiz.

Eta zer ondorioztatzen hasi zara?

Alardea nortasun propioa duen festa dela. Herritik eta herriak sortu duena. Herriko jaiak izan da beti eta aldaketak herritik etorri direla ikusi dut.

Lehen Alardea 1881ean izan arren, aurrekariak badaudela diozu.

Bai, baina 1880an lehen diskurtsoa izan zen. Hala ere, nire ustez, lehen urratsa 1849an egin zen: *alarde* hitza ez zen agertzen, baina, urte askoren ostean, herritar batek proposatu zuen trokeo dantza festetan egitea, hura gal ez zedin. Pertsona horrek zortzi mutili dantza irakatsi zien, gainera. Dantzak, orokorrean, herriko festaren oinarri direla ere ikusi dut ikerketan. **Herrian jaiak garrantzi handia ematen zaie, beraz.**

Bai; batez ere, 1850eko Karlistaldiaren bukaeran herriko jaiak indartu gura izan zituzten herritarrek ondo pasa zezaten. Hainbat gerraren ostean –Franziako gerra tartean–, Gipuzkoako herri askok egoera latza bizi zuten. Hala, jendeari lasaitasuna eman guran, ikusten da Udalek herritarrek ondo pasatu gura zutela. Udala hainbat elementu sartzen joan dela ere ikusten da. Hala, zezena –sokamuturra– azaldu zen lehen aldiz. Baita su artifizialek ere, festari garrantzia emanez.

Baina Antzuolan alarde tradizionala egin zela ere ikertu duzu.



Lourdes Odrizola Antzuolako Udal artxibokoan. JONE LARRAÑAGA

1876an bukatu zen azken Karlistaldia, eta, Udala zorpetuta zegoen arren, festa dotorea egin zuen; orduan egin zuten lehen alarde tradizionala. Irunen ere urte hartan sortu zen alardea. Desberdinak ziren, baina bazeukaten antzekotasuna.

Izan ere, Antzuolako alardeak eboluzioa izan du.

Bai; 1879an etorri zen diskurtsoaren lehen aldaketa. Hor ikusten da herriak nortasun propioa eman gura ziola Alardeari. Arbasoek hainbat gauza egin zituztela jaso gura zuten, gal ez zedin. Ez zuten gura edozein festa izatea; oinarri bat gura zuten urtez urte herrian zabaltzeko. Udaletxeko liburu nagusian jasota dator diskurtsoa eta protokoloa; bertatik jaso dut. **Fakturak, liburuak... bitxikeria ugari aterako zenituen, ezta?**

Bai; adibidez, jakin dugu lehen soldaduak kartoizko trikornioarekin joan zirela eta 1906an arropak aldaketa sakona izan zutela. 1940an, gerra zibilaren ostean, inguruko jende pila bat etortzen zen festetara, eta, gosea zegoenez –janaria errazionatzeko kartilaz etortzen ziren–, gobernadoreari janari gehiago eskatu ziotela eta

eman zuela ere badakigu. Gauza oso txikiak eta puntualak dira, baina, dena testuinguru batean eta dena ondo lotuta, ikusten da herrian oso berezia izan dela festa giroa.

Aldaketa horiek guztiak herriaren nortasunarekin lotu-lotuta daude.

Hala da. Herria identifikatzeko eta, esan bezala, nortasuna ez galtzeko festa gisa dute Alardea antzuolarrek.

Uste duzu buruzagia egunen batean emakumea izan daitekeela?

Antzuolarrak oso ausartak direla sute dut eta nik buruzagia emakumezkoa izatea, gainera, oso ondo ikusten dut. Hemendik urte batzuetara posible izan daiteke. Horrelako aldaketak onuragarriak dira. Protokoloan berdintasuna, parekidetasuna sartzea onuragarria izan da, zalantzarik gabe. Gainera, kutsu belikoa, arrazista ere kendu dira Alardean. Pentsatu behar dugu hau sortu zenean beste gizarte eta garai bat bizi zutela.

Zerk harritu zaitu?

Paperean jasota dagoen lehen Alardea dela. Gainera, 1975ean, Franco bizi zela, Jose Luis Kortabariak kontatu dit diskurtsoa euskaraz egin zuela.

Derbia jokatu du Antzuolak bihar Aloñaren aurka Eztalan

Aurkari gogorra izango da Aloña Antzuolarendako; izan ere, kategoriaz igotzeko faboritua da aurtan

M. A. ANTZUOLA

Ondo hasi du denboraldia etxetik kanpo Antzuola futbol taldeak. Tolosaren aurka 1-2 irabazi ostean, orain, mailaz igotzeko faboritua den Aloña Mendi etxean hartuko dute antzuolarrek.

Usabal futbol zelaikoa ez zen partidua erraza izan, ordea. Ander Aranek berdinketaren gola egin zuen eta Markel Letek taldeari garaipena eman zion bigarren gola sartu zuen. "Denboraldi hasiera ona izan da, ea horrela jarraitzen dugun. Partidu gogorra izan zen Tolosaren

aurkakoa, galtzen hasi eta partiduari buelta ematea lortu genuen", kontatu du Ibon Gezala-gak, AKEko presidenteak. "Tolosaren aurkako lehen partidua gogorra izan bazen, Aloñaren aurkakoa ez da gutxiago izango. Kontuan izan behar da Aloña kategoriaz igotzeko faboritoe-netakoa dela. Oso talde ona dute".

Lehen partidua irabazita, Antzuola hiru punturekin lider dago –beste talde batzuekin batera; Aloña, tartean–. Bihar, zapatua, Eztalan jokatu dute derbia, 16:30ean hasita.



MAIDER ARREGI

Oinarineko dantzariak Oñatin

Haur Dantzarien Eguna ospatu zuten domekan Oñatin. Guztira, 600 haur batu ziren. Euskal Herriko hamahiru taldetako gazteek herriko zenbait auzotan eskaini zuten saioa. Antzuolako Oinarineko gazteek Olakua eta San Lorentzo auzoetan egin zuten emanaldia. Arratsaldean, guztiak Herriko Plazan batu ziren ekitaldi nagusia egiteko.

Gazte txokorako hezitzaileak kontratatuko dituzte

Euskaraz jakitea, 18 urtetik gora izatea eta antzuolarra izan edo bertan bizi izatea dira bete beharreko baldintzak. Esperientzia eta begirale titulua izatea edo horrekin zerikusia duten ikasketak izatea baloratuko dute. Izena emateko, gazteantzuola@hotmail.es helbidera idatzi edo 943 76 60 65 telefonora deitu behar da urriaren 4a baino lehen.

Kataluniarrei babesa adierazteko argazki jendetsua aterako da

Antzuolako EH Bilduk kataluniarrei babesa adierazteko dei egin die herritarrei. Izan ere, datozen egunetan herriko balkioak esteladaz eta ikurrinez janzteko eskaera egin du –asteburuan jarriko dira salgai esteladak–. Irailaren 28an, eguna, kataluniarrei babesa adierazteko argazki jendetsua aterako dute Zurrategi plazan, 19:00etan.

"Kalitatezko" aisialdia eskainiko du Idolazek

Ikasturte berrirako guztia gertu dauka Idolaz aisialdi taldeak; izan ere, gaur, egubakoitza, da izena emateko azkeneko eguna: Xinkona dendan edo 685 05 85 83 telefono zenbakira 'whatsapp' mezua bidalita, hain zuzen

E.A. /M.A. ANTZUOLA

Antzuolan zegoen aisialdi eskaintzan hutsunea nabaritu zuen herriko gazte talde batek iaz; eta horri erantzuna emateko helburuarekin jaio zen orain dela urtebete eskas Idolaz aisialdi taldea. "Lagun talde bat hasi ginen Antzuolan zegoen aisialdi hutsuneaz hausnartzen. Gure helburua izan da herriko aisialdia aberastea eta aisialdi hori kalitatezkoa izan dadin bermatzea", azaldu du Amaia Aranak, taldeko ki-deak. Helburu hori betetzeko eta eskaintzen dena "onena izateko" sortu dute Idolaz taldea.

Haurrei entzunez

Herrian bazegoen beharra, eta Idolaz sortu izana oso positiboa dela diote herritarrek. Taldea ezagutarazteko hainbat ekintza egin ondoren, irailean bertan abiatuko da Idolaz ofizialki. "Lehen ekintza umeekin egingo dugu, tailer gisa. Eurek esaten dutena kontuan izango dugu eta". Izan ere, Aranak azpimarratu gura izan du haurren iritzia kontuan hartu nahi dutela ekintzak antolatzeke orduan.

Harrera ona

Izena emateko, bi deialdi egin dituzte: ekainean bata, eta irailean bestea –gaur, egubakoitza, bukatuko da-. Oraingoz, izan duten harrera oso ona izan dela adierazi du Aranak, eta haiengan izandako konfiantza eskertu nahi izan die guztiei. "Uste baino harrera hobea izan du Idolazek. 150-160 haur inguruk izena eman dute. Eskerrak eman gura dizkiegu, noski, bai haurrei, baita gurasoei ere gudan,

**EKINTZAK
ANTOLATZEKO
GARAIA HURREI
ENTZUTEA DAUKA
IRIZPIDE IDOLAZEK**



Idolaz taldeko hezitzaileetako batzuk. ENEKO AZURMENDI

proiektu berria izanik, izan duten konfiantzagatik", azpimarratu du hezitzaile antzuolarrak. Izena emateko, Xinkona denda-ra jo dezakete interesatutuenek; baita identzantzantzuola@gmail.com helbidera mezua idatzita edo 685 05 85 83 zenbakira *whatsapp*-a bidalita. Taldekoak harremane-

tan jarriko dira gurasoei izena emateko papera bidaltzeko.

Orain, ikasturtea hastear darduen honetan, herritarrei informazioa ematen dabilta, izango duten funtzionamendua azalduz. Edozein zalantza argitzeko, gura duenak Olarango bulegora jo dezake.

Kamisetak salgai daude

Kolore bizia, deigarria dauka Idolaz aisialdi taldeak kaleratu duen kamisetak.

Hala, aurrez eskaera eginez, gura duenak kamiseta erosteko aukera ere badauka.

"Enkargu bidez eros daitezke, gurekin harremanetan jarrita", jakinarazi dute Idolazeko hezitzaileek.

Horretarako, haiekin harremanetan jarri beharko da eta eskaera egin, hauetako bide bat erabilita: Facebookeko orrira jota edo identzantzantzuola@gmail.com helbide elektronikora eskaera eginez.



Hitzarmena sinatu duten ordezkariak. GOIATZ ARANA

Lehen sektorea indartzeko konpromisoa hartu du Elayk

Baserritarren ekoizpenak eskuragarri jartzeko eta salmenta zuzena sustatzeko hitzarmena sinatu dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako baserritarren ota-reen banaketa sustatzeko hitzarmena sinatu dute. Hala, Elayko langileek eguaztenero aukera izango dute bertako baserritarren barazki ekologikoa eta garaian garaikoa duen ota-rea jasotzeko. "Bi-hiru hilabete behin kanpaina bereziak jarriko dira martxan eta Pikunietako gaztak, Irumendiko txahalkiak, Bidaurreko frutak,

eta abar jasotzeko aukera izango dute", azaldu du Ernaberitu proiektuko teknikari Miren Oianguren. "Baserritarren ekoizkinak herritarrei eskuragarri jarri gura genituen, salmenta zuzena ahalbidetuz eta baserritarrek ezagutzea emanaz. Biharko egunerako, halako ateak zabalduz, betiere, errazagoa izango baita gazteak animatzea". Elayk eta Udalak hori bultzatzeko konpromisoa hartu dute.



MAIDAR ARREGI

Generalitateko kartela, Antzuolan

Asteon, Antzuolako herriko hainbat gunetan urriaren 1eko erreferenduma eta Kataluniako autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen duten Generalitateak egindako kartelak azaldu dira. *Erabakitzeko eskubidearekin jaio zara eta uko egingo diozu?* dioten kartelak dira; hain justu ere, Guardia Zibila Katalunian bila dabilena.

Plazara etxeko onenarekin

Herriko ekoizleen eguna izango da bihar Elgetan. Baserritarren eta artisauen azokak hemeretzi bat postu izango ditu eta egun berean jokatu da Intxortako igoera. Arratsalderako, pilota partiduak eta Sagardo Eguna daude iragarrita

Larraitx Zeberio ELGETA

Askotariko produktuak izango dira aurten ere Elgetako baserritarren eta artisauen iraileko azoka berezian. Udalak emandako datuen arabera, hemeretzi bat postu izango dira plazan: zortzi baserriko produktuekin, hiru artisau lanekin, bi marokoar jakiekin, Mikel Irazabalen postua Baobeer garagardoarekin, Hotz Bergara taldeko lagunak Siriako errefuxiatuen aldeko materiala saltzen eta seigarren mailako eta DBHko ikasleak ikasturte amaierako bidaia ordaintzeko pastelak eta bestelako jakiak saltzen. Herriko ortu ekologikoetako kideek erakusketa ipiniko dute azokan eta Ekogunek hazi eta landare bereziak ipiniko ditu salgai. Postu sorta horretaz gainera, Igor Herce burdin langintza erakustaldia

egin du. "Baserritarrek azokan ipinitako postu kopurua aurreko urteetakoaren antzerakoa izango da", adierazi du baserritarren batzordeko buru Sebastian Arantzabalek. "Azokaren helbu-

rua da bertan ekoiztutako produktuak ezagutzera ematea eta *zero kilometro* izeneko produktuen kontsumoa bultzatzea". Badira urte batzuk azoka egiten dela. "Jendea ibiltzen da eta

egiten dira salmentak, baina esango nuke azkenaldian jaitzita dagoela hori. Bestalde, gehienetan, jende nagusia ibiltzen da. Akaso, ohituagoak daude azokan erosketak egitera".

Baratzeko lanetarako sasoi ona izan dela adierazi dute baserritarrek. "Tomaterako urte ona izan da, baina uste dut azkenaldian egin duen eguraldia dela-eta ez dela azokan askorik egongo", esan du Arantzabalek.

Udazkeneko produktuak nagusituko direla dio: intxaurreak, sagarrak, madariak, azaloreak, azak, porruak, zerbak, kalabazak... "Amaieran, baserritarrek emandako produktuekin osatutako otarre baten zozketa egin dugu", adierazi du.

Udalak aukera baliatuko du herriko baratze parkearen gaineko informazioa zabaltzeko.

"Erabiltzaileek bertan ekoiztutako produktuak erakutsiko dituzte azokan eta izen-emate orriak ipiniko ditugu eskuragarri". Udal arduradunak adierazi du bederatzi bat erabiltzaile daudela gaur egun baratze parkean eta badagoela berriak hartzeko lekua.

Artisautza eta gozoak ere bai

Baserritarrekin batera herriko zenbait artisau azokan izango dira bihar. Lerrook idazterakoan, hiru zeuden izena emanda: Lorena Ibeas, Pili Arin eta Igor Herceren eta Arrate Egurrolaren E-mendi Artelanak tailerra.

Gozoak ere izango dira salgai azokan. Alde batetik, ikasturte amaierako bidaia ordaintzeko salmenta postu bana ipiniko dute seigarren mailako eta DBHko ikasleek. Bestalde, marokoar gutziak ere izango dira aurten. Mohamed Elhuomanik eta Omar Bittik eskainiko dituzte. "Azoka batean baino gehiagotan izan dira dagoeneko eta adierazgarria da beraien parte hartzea", esan du Arantzabalek.

Hotz Bergara taldeak ere izango du postua azokan. "Elkartasun zozketa egin genuen Gabonetan eta zenbait sari jaso barik gelditu dira. Erabaki dugu material hori berriz zozketatzea", adierazi du Hotz Bergarako kide Saioa Arantzabalek. Neska-mutikoendako ekintzak ere egingo dituztela esan du elgetarrak.



IRENE BOLINAGA
ORTUKO PRODUKTUAK

"Aurten ondo etorri dira letxuga, porrua, zerba, sagarra, baba, hurra, intxaurre... Azoka txikia baina polita izaten da".



LORENA IBEAS
ARTISAU

"Urtero moduan, poltsak, motxilak eta antzerakoak izango ditut nik. Azoka polita iruditzen zait: herri mailakoa eta herriko talentua jendaurrean ipintzeko".



MOHAMED ELHUOMANI
MAROKOAR JAKIAK

"Azoka batzuk egin ditugu dagoeneko herrian eta oso ondo hartzen gaituzte. Gozoak prestatzen ditugu eta beti saldu izan dugu guztia".



ELGETAKO EGUNEKO ZENTROA

Eguneko zentrotik Zumaiara

Elgetako eguneko zentroan irteerak egiten dituzte. Kostaldera egin dute azkena; izan ere, hilaren 12an Zumaiara izan ziren zazpi erabiltzaile arduradunekin batera. Antzuolako eta Elgetako eguneko zentroetako koordinatzaile Itsaso Garmendiak adierazi du itsasoa

ikus, portuan paseotxo bat eman eta taberna batean pintxo hartu zutela. Esperientzia polita izan zela azaldu du, eta urtean pare bat irteera egiten saiatzen direla. Etorriko dira gehiago; izan ere, halakoek eguneroko martxatik ateratzeko aukera ematen dute.



IBAN ARANTZABAL

40 Vespa eta Lambretta herrian

Giro onean joan zen domekan herrian egindako Vespa eta Lambretta topaketa. Motor klasiko horien zaleak hamabigarren urtez elkartu dira Elgetan, eta 40 lagunetik gora izan ziren, azkenean. Motorrak plazan izan ziren ikusgai goizean eta 40 kilometroko ibilbidea egin zuten parte-hartzaileek bazkaldu aurretik.



Baserritarren azoka, iaz. ARTXIBOA

Elgetan Berbetan egitasmoko kideek informazio mahaia ipi-niko dute azokan. Mintzapraktikak zer diren eta herriko taldeen funtzionamendua zein den azalduko dute, kanpaina berriaren atarian. Egitasmoak, gainera, koordinatzaile berria du ikas-turte honetan: Geaxi Ezpeletak hartuko du Kepa de Vegak utzitako lekukoa.

Intxortako igoera jokoan

Eguneko kirol hitzordua izan ohi da, eta ikusmina sortzen du herrian. Parte-hartzaile kopurua handituz doa urtetik urtera. Azoka 10:30ean hasiko da. Lasterketa, berriz, 11:00etan jokatu da. Egunean bertan 10:20an zabalduko dute izen-ematea, plazan. Hiru kategoria izango dira: 16 urtetik gorakoak, 12 eta 16 urte

artekoak eta 12 urtera artekoak. Gazteenen kasuan, igoera Salbadorrera izango da.

Hainbat dirusari jarri ditu Udalak herrian errolatutako parte-hartzaileendako. Iaz hamabi lagunek hartu zuten parte nagusien lasterketan eta beste dozena batek 12 urtetik azpikoe-tan. Neska-mutikoetan Unai Eguren izan zen azkarrena eta nagusietan, Iñaki Egizabal. Egizabalek 18.31 egin zuen. Marka berria ezartzeko, dena den, Ele-der Lozanoren denbora da hobetu beharrekoa. Marka hori 16.14 da, 2015ekoa. Udalak, bestealde, emakumezkoen parte hartzea bultzatu gura du eta lasterketa mistoa deitu du berriro ere. Iaz Marta Barrachina izan zen emakume azkarrena. Haren denbora: 47.59.

Binakako pilota partidua bazkalosterako

Naroa Iturain, Maite Ruiz de Larramendi, Andrea Aldaregia eta Olatz Ruiz de Larramendi Elgetako frontoian izango dira, 17:00etan. Binakako norgehiagoka jokatu dute. Kiroletako zinegotzi Mikel Elkorok azaldu du herritar batek proposatu zuela Ferixa Nagusiko jaietan antzerako jaialdi bat egitea. Udalak orain ikusi du aukera. Elkorok gogoan du, baita ere, herri mailako lau t'erdiko pilota txapelketa. Hiru kategoriatarako deialdia egin dute: 40 urte arteko gizonezkoak, 40 urtetik gorako gizonezkoak eta emakumeak. "Elgetako emakumeak gonbidatuta daude parte hartzera", esan du. Zabalik dago izen-ematea udaletxean.



Olatz eta Maite Ruiz de Larramendi aurreko astean, Bergaran. IMANOL SORIANO

Iluntzean 21. Sagardo Eguna

Gaztetxeak antolatuta 18:30ean hasiko dira Sagardo Eguneko ekintzak. Sagardoa banatuko dute doan herriko plazan, Bolatokian, Haizean, Maialden, El Rincon de Lolan eta Patxi tabernan. Ordu berean emango diote hasiera patata tortilla lehiaketari. Sari banaketa 20:00etarako dago iragarrita. Ondoren, trikipotea egingo dute tabernaz taberna.



Patata tortilla lehiaketa, iaz. GOIENA

Bi mendi irteera egingo ditu Kantsatzeke taldeak asteotan

Domekarako helduendako irteera antolatu dute eta familiendakoa urriaren 1ean izango da

L.Z. ELGETA

Abuztuko etenaldiaren ostean, Kantsatzeke mendi taldeko kideak itzuli dira betiko martxara eta domekarako antolatu dute ikasturte berriko lehenengo irteera. "Unanutik abiatu eta Beriaingo tontorretik pasa ondoren, Euskal Herriko erdigune geografikoa bisitatuko dugu", adierazi dute. Puntu hori Nafarroan dago, Andia mendilerroan, Beriain edo San Donato izenez ezaguna den tontorretik ekialdera. Olibesario izenez ezaguna, 1.236 metrora dago. Bospasei

orduko ibilaldia egingo dute domekan eta taldea 08:00etan abiatuko da autoetan herriko plazatik.

Gazteekin Orkatzategira

Hurrengo domekarako, urriaren 1erako, familiendako irteera antolatu dute. Orkatzategi eta Aitzulo proposatu dituzte. "Etetik gertu dugun txoko zoragarria da. Aitzulo ezagunagoa da, baina Orkatzategi ez eta izugarriko bistak daude", adierazi du irteera horretako arduradun Ibai Etxanizek. Ibilbide zirku-



Kantsatzeke mendi taldeak maiatzean Andastora egindako irteera. L.Z.

larra egingo dute: bederatzi bat kilometro eta gehienez ere 600 metroko desnibel positiboarekin.

Kantsatzekek udaberrian egin zuen familiendako lehen irteera eta 45 bat lagunek hartu zuten parte. "Oso gustura bueltatu

ginen. Umeen artean mendizale-tasuna bultzatzeko aitzakia ona da guraso asko ere mendira gerturatzeko eta etxe inguruan dauzkagun paisaia zoragarriak ezagutzeko". Izen-emateak zabalik daude.

OHARRAK

Ipuinen Ordua gaur

Boluntario baten eskutik bi saio liburutegian: 16:40an eta 17:25ean.

Kirol eskaintza

Datorren astean ate irekiak Kirol Zerbitzuan. Gurasoendako eskola kiroleko batzarra, berriz, hilaren 27an, 19:00etan, udaletxean.

Plastiko bilketa

Baserriko plastikoak biltzeko zerbitzua hilaren 26an. Eskatera egiteko: 943 76 25 47.

Odol-ateratzeak

Sendagile eta erizain taldea hilaren 28an izango da Elgetako udaletxean, 18:00etatik 20:00etara.

Maila Nazionalean bide berria hasiko dute bihar

ARETO FUTBOLA Maiatzean mailaz igotzea lortu zuen UDA Aretxabaletak, eta, hainbat urtetako hutsunearen ostean, Debagoieneko talde bat Maila Nazionalean lehiatuko da ostera ere; zapatuan Tolosan egingo dute debuta, hainbat jokalaria berrirekin

Xabier Urzelai ARETXABALETA

"Lagun talde bat izaten jarraitzen dugu, azken urteotan gauzak ondo egin dituen lagun talde bat, eta hori ez da askorik aldatuko, nahiz eta Maila Nazionalean jokatu", dio zapatuko debuta iristeko gogotsu dagoen Arkaitz Riberak.

Lagun talde horretan, baina, jokalaria berriak daude: "Arkauzek, Luceok, Mañarikuak eta Adrianek utzitako hutsunea betetzeko, Josu Urzelai, Gorka Dueñas, Gorka Maria eta Joseba Church taldera ekarri ditugu. Horiek dira aldaketak, taldearen enborrak bere horretan jarraitzen du eta".

Harrobia falta dute

Denboraldi ilusionagarria dute aurretik: "Eta espero dugu zaileen babesa izatea. Hainbat kuadrillatako lagunak batu gara talde honetan, eta kuadrilla horiek animatzera etortzen dira partidu askotara; ea aurten ere ondoan izaten ditugun", dio Riberak. Behin Maila Nazionalera iritsita, baina, ez dute gura urtebeteko kontua bakarrik izatea: "Ea mailari eusten diogun, hori izango da helburu nagusia. Txarrena da klubean ez daukagula harrobi talderik, beheko kategorietan ez ditugu-



laz UDA Aretxabaletak Eskoriatzaren kontra jokaturako derbiaren une bat. GOIENA

la talde gehiago. Horrek, neurri handian, lehenengo taldearen joan-etorriak baldintzatzen ditu, jokalaria hauek nekatzen diren egunean ez ditugu-eta jokalaria gazteak izango erreleboa hartzeko moduan. Egia da, baita ere, talde honek 11ko futboletik datozen jokalarietatik edaten duela, eta horretan oinarritu beharko dugu".

Laguntza mugatuak

Areto futbol sailekoek euren kabuz lortu behar izan dituzte babesleak: "Eta, alde horretatik,

eskerrak eman gura dizkiogu Errepin enpresari, babes handia eman digulako Maila Nazionalean lehiatu ahal izateko".

Debuta, Tolosan

Aretxabaletako taldeak Tolosan jokatu du Maila Nazionalako lehenengo norgehiagoka bihar, zapatua, 18:00etan, Usabal kiroldegian. Denboraldi ederra bezain gogorra dute aurretik, besteak beste, Lagun Onak, Gasteizko Aurrera, Durango eta Santurtzi taldeak izango dituzte-eta aurrean.



GOIENA

"Taktikoki oso talde landuak egongo dira"

ARKAITZ RIBERA
ENTRENATZAILEA

Zer espero duzue maila honetatik?

Zapatuko norgehiagokak erakutsiko digu non gauden eta kontrarioak non egon daitezkeen. Baina ez gara horrekin itsutuko, Laskorain talde tolosarra iaz hirugarren sailkatu zelako eta gu oraindik fisikoki ez gaudelako gure mailarik onenean. Baina bai, ondorio batzuk aterako ditugu, seguru.

Kategoria aldaketan, alde handia egongo da?

Taldeak taktikoki landuagoak egongo dira, jokaldiak ondo entseatuta izango dituzte, askok ia memoriaz jokatu dute eta orokorrean esango nuke jokoa azkarragoa izango dela. Gure partiduak ez dira oso ordenatuak izaten, partidua erraz apurtzen genuen; ikusi egin behar orain.



Mondrate mailaz igo da. GOIENA

Mondrate eta Eskoriatza, maila berean

Euskadiko Txapelketan UDA Aretxabaletak utzitako hutsunea Mondratek beteko du, arrasatearrek ere mailaz igotzea lortu dutelako. Hala, kluba sortu eta urte gutxitan Euskal Ligaraino iristeko kapaz izan dira zuri-moreak. Euskal Ligan, berriz, Eskoriatzarekin egingo dute topo, eta, iaz aretxabaletarekin gertatu bezala, eskoriatzarren eta arrasatearren artean derbi interesgarriak egongo dira ikusgai.

Euskal Ligako Eskoriatzak eta Mondratek, baina, datorren asteburuan hasiko dute liga, irailaren 30ean. Eskoriatzak etxean jokatu du lehenengo partidua, Bakioren kontra. Eta Mondratekoek Bastidara egin beharko dute bidaia.

AUTOMOBILISMOA Xabier Fernandez 'Purito', erresistentzia probara

Espainiako Erresistentzia Txapelketako bosgarren eta azken proban izango da Xabier Fernandez *Purito* arrasatearra. Aurreko lasterketak Jaramako, Valentziako, Bartzelonako eta Aragoiko zirkuituetan egin ostean, urriaren 14ko eta 15eko asteburuan Nafarroako zirkuituan izango da hitzordua.

ESKUBALOIA Izarraitz Aloña Mendi eta Ford Mugarri, lanera

Euskadiko Txapelketan jardungo dute aurten ere Ford Mugarri Arrasatek eta Izarraitz Aloña Mendik, eta asteburuan hasiko dute liga txapelketa. Arrasatearrek etxean dute lehenengo norgehiagoka (zapatua, 18:00), eta oñatiarrek kanpoan jokatu dute (informazio gehiago 14 eta 36. orrietan).

ERRUGBIA Urriaren 1ean hasiko du ARTk denboraldia, kanpoan

Euskal Ligako lehenengo mailan jardungo dute aurten Igor Isasiren mutilek, eta urriaren 1eko asteburuan hasiko dute liga. Lehenengo partidua etxetik kanpora jokatu dute, BRT Menditarrak taldearen kontra. Arrasatearrek 37-5 irabazi zioten Elorriori joan den asteko lagunarteko partiduan.

ATLETISMOA Urriaren 14an egingo dute Arrasate-Oñati

Antxintxiketan taldeak antolatuta, urriaren 14an egingo dute Arrasate-Oñati lasterketaren 34. edizioa, eta dagoeneko zabalik dago izen-ematea, *herrikrosa.eus* webgunean eta Arrasateko Loramendi kirol dendan. Gehie-nez 350 lagunendako tokia egongo da eta egunean bertan ezingo da izenik eman (12 euro).

MENDI BIZIKLETA Urriaren 14an datoz Arrasateko eta Oñatiko martxak

Iraileko mendiko bizikleta martxak atzean utzita, urriaren 14an datoz Arrasateko Mondranbike (urriak 8) eta Oñatiko Iban Altuberen omenezkoa (urriak 22). Arrasateko martxarako zabalik dago izen-ematea, *kirolprobak.com* webgunean -10 euro federatuek eta 12 federatu ez direnek-. Gehie-nez 250 lagunendako tokia dago.

"Iazko arrakasta ikusita, bigarrenarekin gatoz"

ASIER ROSADO ARRASATEKO ENDURO LASTERKETAKO ANTOLATZAILEA
Urriaren 1ean egingo dute iaz 120 lagunek parte hartu zuten proba; Anporreta inguruetan ibiliko dira aurten ere, eta tramu batzuk sekretupean dituzte

Xabier Urzelai ARRASATE

Iaz Arrasateko lehen enduro lasterketako sari banaketa ekitaldian jaso zituzten zorion mezuen ondoren ez zuten zalantzarik izan, 2017an berriro ere lasterketa antolatzeko erabakia hartu zuten hasieratik *saltsa* horretan ibili diren Asier Rosadok eta Koldo Aranak. Duela bi aste, baina, sare sozialetan lasterketa bertan behe-geratzen zela adierazi zuten, Euskadiko Federazioak bizkarrara eman ziela adierazi eta gero. Bi bider pentsatu ostean, urriaren 1ean lasterketa egongo da.

Zenbat buruhauste lasterketa bat antolatzeko...

Ez sinisteko modukoa da. Lehenengo edizioa Federazioaren babes barik antolatu genuen, baina, prozedurak zeintzuk diren ikasita, 2017ko egutegia zehazteko orduan eskaera eta dokumentazio guztia garaiz aurkeztu genuen Gipuzkoako Federazioan, eta haien ardura da Euskadikora bidaltzea. Horretarako, klub baten babes bere izenean egin genuelako eskaera, eta Gipuzkoako federazioko ordezkariak adierazi digute eurek ondo bideratu zitutela dokumentazioa. Eta erantzun bat eman diguten bakarrak izan dira. Baina arazoren bat egon da Euskadiko Federazioarekin, ez dakigu zer gertatu den eta ez digute inolako erantzunik eman. Baina, ostera ere, Euskadiko Federazioaren egutegitik kanpo utzi gaituzte.

Zer dakar horrek?

Lasterketa antolatzeko zailtasun handiagoak izango ditugula, eta garestiagoa izango dela, besteak beste, aseguru pribatu bat kontratatatu beharko dugulako.

Pena da horrela ibili behar izatea...

Aurreko astean Transnomad lasterketa izan genuen Pirinioetan, eta antolaketa taldean nago.



Asier Rosado, eta atzean Koldo Arana, antolaketa taldeko ordezkariak. GOIENA

"IAZ HARRITUTA GERATU GINEN LASTERKETAN BATU ZEN IKUSLE KOPURUAREKIN"

Ikustekoa da Aragoiko Federazioak zelan babesten duen lasterketa: politikariak aurkezpenean, udal ordezkariak... Ainsako herria mendiko bizikletazaleendako gune bilakatu dute, eta kanpotik dator jendea mendiko bizikletan ibiltzera; turismo ikuspegitik sekulako bultzada izan du herriak, baita inguru guztiak ere. Gure inguruak, berriz, paradisua dira mendi bizikletan ibiltzeko, baina edozer antolatzeko zailtasunak baino ez ditugu hemen. **Zailtasunak zailtasun, lasterketarekin aurrera egitea erabaki duzue.**

Bai; urriaren 1ean izango da lasterketa, domekan (09:30), eta zapatuan entrenamendu saio libreak egingo ditugu. Lasterketa iazko leku berean hasiko dugu, Musakolako Arruena parkean, eta bezperan furgo-

netarekin edo autokarabana-ekin datozenek bertan egin ahal izango dute lo.

Iaz 120 lagun inguruk hartu zuten parte, arrakastatsua izan zen.

Bai, eta ez parte-hartzaileei dagokienez bakarrik; harrituta geratu ginen Anporretako ingurueta lasterketa ikustera gerturatu zen herritar kopuruarekin. Sekulako giroa egon zen. Nahiko genuke aurten ere jendea animatzea. Parte-hartzaileei dagokienez, izena aurrez emateko aukera egongo da *sportchip.es* webgunearen bitartez -35 euro-, baina lasterketa egunean ere izena emateko aukera egongo da; hori bai, apur bat gehiago ordaindu beharko dute.

Aurten ere tramu batzuk isilpean gordeko dituzue?

Bai, alde horretatik ez da alaketarik egongo. Tramu batzuk publikoki azalduko ditugu, jendeak nahi beste entrenatu dezan, baina garrantzitsua da beste tramu batzuk isilpean gordetzea. Horrela, kanpotik datozen pilotuek ez dute desbarrantailarik, lasterketa egunean bertan jaitsiko dituztelako, denek, lehenengoz.



Iaz, Bergarak Urolaren kontra jokaturako norgehiagokan. GOIENA

Bergara eta Aretxabaleta, bigarren jardunaldirako lider

FUTBOLA Bi talde horiek etxean jokatu dute oraingo asteburuan, Mondra taldearekin batera

X.U. ARRASATE

Joan den asteburua emankorra izan zen Ohorezko Erregionalean dabilzan Debagoieneko ordezkariendako, etxetik kanpora hiruna puntu batuta itzuli ziren-eta Mondra, Bergara eta Aretxabaleta.

Akaso, Mondra zen halako garaipen baten behar handiena zuena, ligako lehenengo jardunaldian, etxean, galdu eta gero Jorge Davilaren mutilek 0-3 hartu zuten-eta mende Urola. Garaipen horrek konfiantza emango die, seguru, zapatuan Beti Gazteren partidura begira (16:30, Mojategi). Bergarak, berriz, ezin hobeto hasi du liga: mailaz igo berria den taldea izanda, lehenengo bi partiduetan zazpi gol sartu ditu, eta bakarra ere ez du jaso.

Horri esker, kategoriako lehenengo posturaino egin du salto Mikel Juaristiren taldeak; bihar, berriz, ligako talde indartsuetako baten bisita izango dute Agorrosinen (16:30): Zarautz, hain zuzen. Partiduaren ostean. BKEko futbol sailekoek talde guztien aurkezpene egingo dute berdegunean bertan.

Aretxabaleta ere ondo

UDAK ere oso ondo hasi du liga, baina hori aurreikuspenen barruan zegoen, azken urteotan moduan talde sendoa dute-eta aretxabaletarrek. Jokaturako bi partidua irabazita, Iñigo Velez de Mendizabalen mutilek Bergarekin eta Oiartzunekin batera partekatzen dute sailkape-

neko lidergoa. Domekan (16:30), liga txukun hasi duen Añorgaren -lau puntu- bisita izango dute Ibarren.

Leintz Arizmendik, Erandion

Joan den astean etxean 1-2 galdu ostean, taldeko ordezkari Lore Etxeandiak GOIENARI aitortu zion porrot hartatik ikasi egin behar zutela: "Taldea berria gara eta oraindik jokalaria denok ez dugu elkar ondo ezagutzen. Baina ligako lehen partidua irabazi ostean, akaso, konfiantza larregiarekin genbiltzan, eta porrot hau baliatu behar dugu hankak lurrean izateko, eta konfiantza aurretik lan handia dugula egiteko".

Aste barruan ondorioak atera eta gero, asteburuan ahalegin-duko dira akatsak zuzentzen: zapatuan dute norgehiagoka (17:00), jokaturako bi partidua irabazi dituen Erandioko Betiko Neskak taldearen kontra.

Aloña Mendi ere lider dago

Erregional Preferentean jardunaldi bakarra jokatu dute, baina Oñatiko taldeak lehenengo abisua emateko baliatu du partidua hori, Idiazabali 5-1 irabazita. Ez dira lehenengo partidua hori irabazi duten bakarrak, Antzuolak (1-2), Mondrak (2-1) eta Bergarak (2-1) ere garaipen batekin hasi dute-eta liga.

Asteburuan, berriz, kategoria horretako lehenengo derbia izango da: hain zuzen, Antzuolak Aloña Mendi hartuko du Estalan (zapatua, 16:30).

Musikak hartuko du Oñati, gaurtik domekara

Iker Martinezen eta Ruper Ordorikaren kontzertuak zabalduko du, gaur, musikaz betetako asteburua. Domekan, Kilometroen egunean, Sharon Stoner, Arkada Social, Herstura, Huntza eta Willis Drummond taldeen doinuez gozatzeko aukera egongo da

Miren Arregi OÑATI

Gaur hasi eta domekara bitartean, Oñati festa giroan murgilduko da, eta festa horren zutabe, nola ez, kultura eta, bereziki, musika izango dira oraingoan ere. Hitzordu horietan lehena gaur, egubakoitza, Oñatiko bi musikarik eskainiko dutena da. Izan ere, Iker Martinez eta Ruper Ordorika eta Mugalariak arituko dira zuzenean gaztelekuan. Martinezek izango du kontzertuari hasiera emateko ardura. Oñatiarra bere bakarkako lehenengo diskoa, *Itzalen mundua*, aurkeztera igoko da taula gainera. Ondoren etorriko da Ruper Ordorika, hura ere bere azkenarekin, *Guria ostatuan* diskoarekin. Azken diskoko abestiak jotzeaz gain, beste sasoi bateko abestiak ere joko ditu Ordorikak, herrikideen aurrean. Gaur, 20:30etik aurrera egongo da kontzerturako sarrerak erosteko aukera, gaztelekuan bertan.

Domekan, eskaintza zabala

Domekan, Oñatiko Txantxiku Ikastolaren eskutik egingo den Kilometroak 2017 jaian, bestetik, hainbat musika proposamenez gozatzeko aukera egongo da. Kontzerturik esanguratsuenak Asentzion –hirugarren gunea– eta Berezaon –laugarren gunea–



Ruper Ordorika, kontzertuan. IMANOL SORIANO

egingo dira. Aipatzekoak dira, esaterako, Asentzion Oihan Vegak egingo duen kontzertua eta Arrasateko Perlak taldearena. Lehenengoa 13:30ean hasiko da; bigarrena, 17:00etan.

Joseba Irazoki eta Lagunak izango dira, bestetik, Berezaoko egitaraua zabaltzeko ardura izango dutenak. 11:45ean hasiko dira horiek eta ondoren etorriko dira rocka egiten duen herriko Sharon Stoner –13:30ean da euren kontzertua– eta Arkada Social, Arrasateko punk-rock talde eza-guna –14:30ean hasiko dira jo-

tzen–. Arrasatetik berriz ere Oñatira joango da testigua, Herstura talde oñatiarra igoko da eta taula gainera, 15:30ean. Trikiti doinuak nagusituko dira ondoren, azkenaldian sekulako arrakasta izaten ari den Huntza taldearen eskutik. Kilometroak 2017ko talde izarretako bat izango da hori, Willis Drummond taldearekin batera. Baionako musikari ezagunek 16:30ean ekingo diote gitarrek astintzeari. Gustu guztietarako eskaintza, beraz, asteburuan Oñatin, herriarren gozagarri.

Kameratoia ikus-entzunezko rallya Lekeition da aurten

Urriaren 20an aurkeztuko dituzte lehiaketaren gaiak eta ezaugarriak, eta urriaren 28an banatuko dituzte sariak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Euskaltzaleen Topaguneak bultzatzen duen Kameratoia lehiaketa berrikuntzekin dator: Euskal Zine Bilerak erakundearekin elkarlanean eta Lekeition egingo dute hamahirugarren edizioa.

"Gazteak euskarazko ikus-entzunezkoen mundura salto egitera bultzatzea, askori lehen aukera eskaintzea, hau da, auzartzeko moduko lehiaketa bat eskura jartzea"; hori da, antolatzaileen esanetan, helburua. Zera gaineratu dute: "Parte hartzaileek, 48 ordutan film bat grabatzeaz gainera, aukera izango dute Lekeitioko euskarazko zinemaldia barrutik bizitzeko, jendea eza-gutzeko, ondo pasatzeko, eta, agian, sari potolo bat irabazteko".

Izen-ematea zabalik

Lekeitioko Udalarekin elkarlanean antolatuta, 18 eta 35 urte

bitarteko gazteek har dezakete parte, eta urriaren 15era arte eman daiteke izena, *Kameratoia. eus* atarian.

Urriko bi asteburutan banatuta burutuko da aurtengo lehiaketa: "Urriaren 20an rallyaren gaia eta ezaugarriak aurkeztuko dituzte, *on line*, aurrez aipatutako webgunean. 11:00etan aurkezpen bideo bat zintzilikatuko dugu, baita edizio honi dagozkion oinarriak, arauak, baldintza teknikoak eta bestelako informazioa jasotzen dituen txosten bat ere. 12:00etatik aurrera, lehiakideek 48 ordu izango dituzte filma egin eta antolakuntzari helarazteko; hortaz, urriaren 22an 12:00etarako lan guztiak jasota izan behar dira. Sari-banaketa ekitaldia urriaren 28an egingo dugu Lekeitioko Ikusgarri zinema aretoan. 2.600 euro banatuko dira hiru lanen artean".

Ane Artetxeren harpa doinuak Mariaren Lagundia elizan gaur

Musika klasikoa oinarri duten emanaldiak herriko txoko ezberdinetan eskaintzea du helburu Udalaren *Kultura kalean* musika zikloak.

Eskarmentu handia duen Ane Artetxe izango da gaur protagonista. Donostiako Kontserbatorioan hasi zen harpa ikasten, 8 urte zituela; harrezkero, Bilbo-ko, Zaragozako eta Bartzelona-

ko kontserbatorioetan ikasi du. Askotariko orkestretako eta taldeetako kide izan da, eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin bi disko argitaratu zituen: *Harpa airean* eta *Airean harpa*. Gaur egun, bi pasioak uztartzen ditu –harpa eta irakaskuntza– Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan eta Donostiako Musika Eskolan.

Errekalde parkean iragarrita zegoen arren, Mariaren Lagundia elizan izango da gaur, egubakoitza, 19:00etan.

EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA (EKT)

GOIENA TELEBISTA,
IRAILAREN 28AN, EGUENEAN, 21:30EAN
GONBIDATUA: JOSE ANGEL IRIGARAI

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, GOIENAK,
EUSKADI IRRATIAK ETA BILBAO HIRIA IRRATIAK
ELKARLANEAN EGINDAKO SAIOA.

goiena
ZU HEMEN ZAUDE



'Handia' ere alfonbra gorria zapaltzeko prest

Imanol Gallego izango da aurten ere Goienako berriemailea Zinemaldian: 'Hemen Debagoiena' telebista saioan erreportaje bat eskainiko dute egunero, Arrasate Irratian zuzeneko konexioak egingo dituzte eta 'Goiena.eus'-en ere jarraitu ahal izango da

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE 65. Donostia Zinemaldia abiatu da gaur. Irailaren 30era bitartean, 200 film eskainiko dituzte, -800 emanaldi-, eta horietatik hamazortzi izango dira sail ofizialean lehiatzen. Tartean, Aitor Arregik eta Jon Garañok zuzendu duten *Handia*; irailaren 24an aurkeztuko dute, Kursalean.

Gaurko *Puntua* aldizkarian, *Altzoko erraldoia*-ren papera egiten duen Eneko Sagardoy aktoreari Durangaldeko *Anboto* aldizkariko Jone Guenetxeak egindako elkarrizketa dago.

Zinemaldi "anitza", "zabala"

Hitz horiekin definitzen du Zinemaldia Goienako berriemaile Imanol Gallegok. "Urte osoan izan diren film entzutetsuak aukeratu dituzte, baita datozen asteetan eta hilabeteetan estreinatuko dituzten beste hainbat ere. Oso zabala eta anitza izango da eskaintza. Berlingo jaialdian film politikoak, Cannesen estreinaldi handiak eta hemen urteko uzta oparoa izango da. Han eta hemen ibili dira Rebordinos eta haren lantaldea. 2.000 filmetik gora ikusi dituzte".

Ikuspegi askotatik begiratuta, film oso ezberdinak daude, eta ez da erraza apustu garbirik egieta. "Sail ofizialean 25 film es-



'Handia' filma errodutzen. MORIARTI PRODUKZIOAK

kainiko dituzte eta horietatik zazpi lehiaketatik kanpo daude; tartean, *La Peste* (Alberto Rodriguez). Ikusteko gogoia dut; telesail bat da, Movistar katean eskainiko dute. Torontoko jaialdian izan da eta *Fipresci* jaso du -kri-

"URTEKO FILM ENTZUTETSUAK ETA ESTREINALDIK ESKAINIKO DITUZTE"

IMANOL GALLEGO, ZINEMALDIAN GOIENAKO BERRIEMAILEA

tikarien saria-. Paco Leon aktorea ikusiko dugu, besteak beste. James Francoren *The disaster artist* ere gustura ikusiko dut; baita *Life and nothing more* ere (Antonio Mendez Esparza). Baina, noski, *Handia*-ri begira egongo gara, bereziki. *Loreak*-en moduan, sentimenduak eta harremanak oso presente daude, eta biak dira istorio erreala, baina honako honek fantasiatik asko du, eta, une batzuetan, umoretik ere bai. Hala ere, ofizialaz gainera, Perlak sailean ere oso gomendagarriak daude".

Jose Angel Irigarai sortzailea datorren egueneko 'EKT' saioan

Bilbo Hiria irratiko Ane Zabala kazetariak gidatutako solasaldia irailaren 28an izango da ikusgai, 21:30ean

A. A. ARRASATE

Saltsa askotan ibilitakoa da Jose Angel Irigarai (Iruñea, 1942): haren aitak eta aitonak bezala, Medikuntza ikasketak egin zituen, eta geroago, hainbat urtetan jardun zuen Donostiako

Contadores lantegiko mediku lanetan. Hala ere, kulturgintzan egin duen lanagatik da ezagunagoa. 1996an medikuntza albo batera utzi, eta Bilboko Kafe Antzokiko kultura egitarauaren ardura hartu zuen.

Bizitza osoan zehar kulturgintzan jardun du buru-belarri: hainbat elkartetako sustatzailea izan da -Ez Dok Amairu, Nafarroako ikastolak, Oteiza fundazioa...-, eta asko dira argitaratu dituen liburuak; poesia idatzi du, bereziki, baina eleberrigilea eta saiakera-egilea ere bada.

Irigarairen ibilbidea abiapuntu hartuta, kulturgintzaren transmisioak herrigintzan duen ezinbesteko garrantzia aldarrikatu du Zabalak egindako galderei erantzun ahala.

Goiena Klubaren txokoa



LEKAIXOKA

Goiena Klubeko bazkideendako

Goiena Klubeko bazkide bazara, Kilometroaketako arropa-sorta bat zurea izan daiteke. 5 zozketatuko ditugu. Animatu eta parte hartu!

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Lekaixoka"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

SIRIMIRI JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Donostiako Zinemaldiari esker

Handia filma ikusteko sarrerak ditugu.

Victoria Eugenia antzokian, Donostian. Irailaren 30ean, 16:00etan


PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "HANDIA"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2017 (irailetik aurrera): 20 euro.
Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. 90 metro koadroko etxebizitza salgai Arrasate pasealekuan. Unibertsitatetik gertu. Lau logela, bi komun eta garbata. Balkoi handiarekin eta dena kanpoaldera begira. Oso eguzkitsua. 618 79 36 45

Arrasate. Garagartza auzoan, Atxabalpe ondoan, ikuspegi politak eta guztiz berritutako 70 metroko etxebizitza dago salgai. Sukaldea eta egongela handiaz gain, bi logela, bi komun eta trastelekua ditu. Prezio ona. 678 62 31 52

103. ERRENTAN EMAN

Angiozar. Eraberritutako etxebizitza errentan ematen da Angiozarren: hiru logela, sukalde-egongela, bi komun, aseoa txiki bat eta txokoa dauka, hainbat solairutan banatuta. Berokuntza, tximinia eta hari musikarekin, bizitzera sartzeko moduan. Guztiz ekipatuta. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 679 33 18 70 edo 652 73 12 41

Oñati. 90 metro koadroko etxebizitza berria ematen da errentan Kurtzebiden. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. Telefonoa: 615 73 29 83

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Pertsona batenak moduko etxebizitza behar dut errentan erdi-gunean, kontratuarekin. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. 609 06 81 93

Debagoiena. Etxebizitza behar dugu errentan, igogailuarekin. Nagusiendako egokituta badago, hobeto. 632 77 35 38

105. ETXEAQ OSATU

Arrasate. 25 urteko neska naiz. Urritik ekainera bitartean etxebizitza baten logela bat hartu nahi dut errentan. 658 48 43 31

Arrasate. Logela edo bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan iraillean. 688 69 00 03

Pisukide bila Arrasaten. Etxea partekatzen da Arrasaten; Unibertsitatetik oso gertu. 659 05 53 65

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje moduan erabil daitekeen 79 metro koadroko lokala saldu edo errentan ematen da erdi-gunean, Burdiniaten. 607 34 90 43

202. EROSI

Arrasate. Garaje itxia erosi nuke Arimazubin. 652 74 03 08

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan San Lorentzon. 626 25 75 95

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Pertsona arduratsua behar da lau eta urtebeteko umeen zaintzan laguntzeko. Astelehenerik ostiralerara, 4-5 ordu egunean. 636 00 21 87

Bergara. Neska behar da umeak zaintzeko. 656 75 95 12

402. ESKAERAK

Bergara edo Arrasate. Etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar lan egingo nuke, zaintzan eta garbiketara. 632 91 89 93

Bergara. Neska gertu asteburuetan nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Interesatuok deitu 13:00etatik aurrera telefono zenbaki honetara: 943 50 47 29

Debagoiena. Asteburuetan edota astean zehar arratsaldetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen, garbiketara edo tabernan. 647 01 74 66

Debagoiena. Asteburuetan edota astean zehar arratsaldetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen, garbiketara edo tabernan. 647 01 74 66

Debagoiena. Emakume arduratsua, esperientziaduna, nagusiak egunez edota orduka zaintzeko gertu. 632 51 06 26

Debagoiena. Emakumea gertu etxean garbitzeko edota emakume nagusiak zaintzeko. 632 77 35 38

Debagoiena. Emakumea gertu, orduka edo etxean bertan bi izaten, nagusi eta umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. 615 12 81 36 (Iris)

Debagoiena. Garbiketa enpresaren baten edo errentan ematen da erdi-gunean, Burdiniaten. 607 34 90 43

Debagoiena. Geriatra titulua duen neska orduka lan egiteko gertu. Baita gauak ospitalean egiteko ere. Autoa daukat. 600 00 51 60

Debagoiena. Gizona gertu garbiketarako, banaketak, baserri lanak, etxeak hustu edota bestelako lanak egiteko. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Gizona gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egunez edota orduka. Berehala hasteko prestasuna. Telefonoa: 632 52 15 20 edo 632 28 89 67

Debagoiena. Mutil arduratsua orduka, etxean bizi izaten edo egunez, nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu. Telefonoa: 631 82 24 30

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu edota garbiketarako egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 603 63 68 14

Debagoiena. Mutila gertu orduka garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko. 634 07 99 70

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Erreferentziak aurkez ditzaket. 612 21 98 39

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 667 35 68 12

Debagoiena. Neska arduratsua gertu orduka nagusi eta umeak zaindu edota garbiketarako egiteko. Gomendio agiriak aurkez ditzaket. 632 89 57 06

Debagoiena. Neska arduratsua orduka, etxean bizi izaten edo ez, nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu. Telefonoa: 631 59 67 91

Debagoiena. Neska euskalduna, esperientzia handiarekin, dendan lan egiteko gertu. Telefonoa: 686 89 98 84

Debagoiena. Orduka edo egunez jardunez lan egingo nuke nagusiak zaintzen eta garbiketara. 615 06 28 04

Debagoiena. Orduka, egunez zein etxean bertan bizi izaten, nagusiak zaintzeko gertu nago. 632 69 40 90

